Ibaiertzeko landaretzan ere bi eremu bereizten dira. Itsasotik urrunago dagoen ibai-zatian galeria-basoak eta labo-reak daude ibaiertzetan. Ibai-ahora gerturatzearekin batera, ur gazikaren berezko landare-ingurua eratzen da: padura.

Inguru hori kanalez beteta dago; itsasgorek urez betetzen dituzte kanal horiek eta gazitasun handia ematen diote lurrari. Inguru horretan bizi diren landareak gazitasun horretara ohituta daude. Espezie nagusien artean daude

- ihia,
- salikornia eta
- garadaizka, besteak beste.

Peces

La biocenosis acuática participa también de esta dualidad entre aguas dulces y saladas y es el resultado de la mezcla de dos comunidades, una propiamente dulcea-cuícola, que desciende aguas abajo por el río y otra propiamente marina, que remonta el curso fluvial.

Así, mientras que en la parte más alejada del mar, la ictiofauna está integrada por ciprínidos de aguas lentas principalmente, en la zona próxima al mar las especies más abundantes son aquellas que, siendo de origen marino penetran en los ríos:

- el Corcón (*Chelon labrosus*),
- la Platija (*Platichthys flesus*),
- el Espinoso (*Gasterosteus aculeatus*) o
- el Cabuxino Enano (*Pomatoschistus microps*).

Por otro lado, la zona de aguas salobres, es lugar de paso obligado para aquellas especies que desarrollan parte de su ciclo vital en aguas dulces y otra parte en el mar:

- el Sábalo (*Alosa alosa*),
- la Trucha Marisca o Reo (*Salmo trutta trutta*),
- el Salmón (*Salmo salar*) y
- la Anguila (*Anguilla anguilla*)

Anfibios

Los anfibios, se ven en general, excluidos de este tramo final.

- La Rana Verde, sin embargo, es bastante tolerante.

Reptiles

Los reptiles, por el contrario, ocupan este medio de forma similar al caso del curso bajo.

Aves

Por lo que respecta a las aves, nos encontramos con un medio en el que están presentes las especies propias del curso bajo, las especies marinas y propias de la zona costera y, en épocas de migración, numerosas especies que aprovechan el área para descansar unos días e, incluso, pasar una larga temporada, en el caso de las especies invernantes.

Mamíferos

Por lo que se refiere a los mamíferos, hay que señalar que están presentes las especies más o menos acuáticas, ligadas al curso fluvial y que ya han sido mencionadas en los tramos anteriores del río. Se ubican con preferencia en la zona de la marisma y donde la cobertura vegetal es mayor. En cualquier caso hay que mencionar especialmente la presencia:

- del Visón,
- de la Rata Campestre.

Arrainak

Uretako biozenosia ere ur geza eta gazien nahasketa horren ondorio da. Bi komunitate nahastu dira: ur gezetatik ibaian behera jaitsi dena, eta itsasotik ibaian gora igo dena. Itsasotik urrunago dagoen ibai-zatiko iktiofauna ur geldoetako ziprinidoek osatzen dute, batez ere. Itsaso inguruan dagoen zatian, berriz, itsasotik ibaira sartutako espezieak dira nagusi:

- Hondoetako Korrokoia (*Chelon labrosus*),
- Platuxa Latza (*Platichthys flesus*),
- Arrain Hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*) edota
- Bokaletako Zarboa (*Pomatoschistus microps*).

Gainera, bizitza-zikloaren zati bat ur gezetan eta beste zatia itsasoan egiten duten arrainek, nahitaez, ur gazikarak zeharkatu behar dituzte. Mota horretako arrainak dira, esate baterako,

- Kolaka (*Alosa alosa*),
- Itsas amuarraina (*Salmo trutta trutta*),
- Izokina (*Salmo salar*) eta
- Aingira (*Anguilla anguilla*)

Anfibioak

Ibaian azken zati horretan ez da ia anfibiorik bizi.

- Ur-igel arrunta salbuespena da, ondo egokitzen baita.

Narrastiak

Narrastiak, aldiz, badaude. Ibaian behealdean ageri diren espezieak daude ur gazikaretan, eta populazioek dentsitate bertsuak dituzte.

Hegaztiak

Hegaztiei dagokienez, espezie ugari bizi da ur gazikaretan: ibaian behealdeko espezieak, itsasoko espezieak, eta itsasertzeko berezko espezieak. Gainera, migrazio garaian, hainbat espeziek erabiltzen dituzte inguru horiek egun batzuetan atsedean hartzeko edota, hegazti negutarren kasuan, denboraldi luze bat pasatzeko.

Ugaztunak

Ugaztunen artean, berriz, urarekin lotura duten espezieak daude (goragoko ibai-zatietan bizi diren espezieak, alegia). Padura inguruan bizi dira, eta landarez betetako lekuak aukeratzen dituzte. Nabarmentzekoak dira, batez ere:

- Bisoi Europarra,
- Arratoi Beltza.



Oriaren ibaiadarra, Orion.
Ría del Oria en Orio.

CURSO BAJO DEL RÍO Y ESTUARIO




Aturri ibaiaren bokalea.

Desembocadura del Adur-Atturri.

Ibaiko ur gezak eta itsasoko gaziak urtzen diren unea.

El encuentro de las aguas dulces del río y las salobres del mar.



IBAIAREN BEHEALDEA ETA ESTUARIOA



Oriaren beheko alde. Nabarmena da marearen eragina.
Curso bajo del Oria. Es notoria la influencia de la marea.

ESTUARIOS



Urdaibaiko estuariora / Estuario de Urdaibai.



Bidasoa ibaiaren bokalea / Desembocadura del Bidasoa.
Irun-Hendaya.



Urdaibaiko estuariora.
Estuario de Urdaibai.

ESTUARIOAK




Urdaibaiko estuarioa / Estuario de Urdaibai.

ZONIFICACIÓN GEOGRÁFICA Y BIOLÓGICA DEL RÍO



Eremu epeletako ibaiak mendian jaiotzen dira eta itsasorantz joaten. Han nahasten dira ur geza eta gazia.

Los ríos de las zonas templadas nacen en la alta montaña y van hacia el mar, donde se mezcla el agua dulce con la salada.



Zonificación de un río

Cada tramo viene definido por una serie de características físico-químicas y biológicas.

En Gipuzkoa, se diferencian tres zonas:

Curso alto (A): zona superior de los ríos, con aguas rápidas y cauces poco profundos, en los que predomina la erosión.

Curso medio (B): zona media donde el cauce es más profundo y más ancho; predomina el transporte. Zona de aguas salobres.

Estuario (C): tramo final del río que se caracteriza por la mezcla de agua dulce y salada y donde tiene lugar, preferentemente la sedimentación.

Ibaiaren eremu-mugaketa

Eremu bakoitza, ezaugarri fisiko-kimiko eta biologiko batzuk definitzen dute.

Gipuzkoan, hiru eremu bereizten dira:


Goiko ibilgua (A): ibaien burua da, ur basati eta sakonera txikiko urpidea dituztela. Higadura handia izaten da ibilgu honetan.

Erdiko ibilgua (B): tarteko eremua da eta urpide sakon eta zabalagoa du. Garraioa da nagusi ibilgu honetan.


Ur gazi eta estuarioaren eremua (C): ibaiaren azken zatia da. Beheko ibilgu honetan, ur geza eta gazia nahastu egiten dira eta jalkiera da fenomenorik nabarmenena.

IBAIAREN EREMUAK GEOGRAFIA ETA BIOLOGIA ALDETIK

(1) El agua de las fuentes, fría y rica en oxígeno, fluye a través de lechos que suelen ser rocosos. La vida animal está adaptada a este ambiente, unos nadan bien, como el salmón y la trucha, otros hacen buen uso de las aguas en calma, como el coto, etc. Los habitantes más pequeños del fondo se agarran a las rocas con los diversos órganos que poseen destinados a este fin.




(1) Iturrietako ura, hotza eta oxigenoan aberatsa, harrizko hondoen edo ibilguren gainean isurtzen da. Animalien bizitza ingurune horretara egokituta egoten da: batzuek ondo egiten dute igeri, hala nola, izokinak eta amuarrainak; beste batzuek egoki baliatzen dituzte ur geldiak, burtainak, esaterako. Hondoko biztanle txikiak harkaitzetara heltzen dira; hainbat organo dituzte horretarako.



(2) Beherago, korrontea ahuldu egiten da eta urak sakonagoak dira. Nolanahi ere, oxígeno dezente dauka oraindik urak. Hondoa harrizkoa izan ohi da eta eremu batzutan hareazkoa eta legarrezkoa. Goragoko uretan baino espezie gehiago bizi da ibaiaren eremu horretan.


(2) Más abajo, la corriente se hace más débil y las aguas más profundas, aunque todavía tienen bastante oxígeno y el fondo es de piedras con zonas de arena o grava. La especies existentes son más variadas aquí que en aguas arriba.



(3) Erdibideko beheko aldean, hondoa harea eta legarra izaten da batez ere, eta korrontea askoz ahulagoa izan ohi da. Perka eta aingira izaten dira inguru horietan espezierik ohikoenak.

(3) En la parte baja del curso medio, el fondo es principalmente de arena y grava y la corriente suele ser mucho más débil. La perca y la anguila están entre las especies piscícolas frecuentes en esta zona.

(4) El curso bajo del río es más bien como una charca, con aguas turbias que fluyen lentamente sobre un fondo de lodo. Bordean las orillas juncos y otras plantas de raíz. Abundan las especies animales y vegetales. La mayoría de los peces son lentos y tienen perfiles corporales altos, como las carpas y el lucio, que es aquí el más común depredador ictiofago.



(4) Ibaiaren beheko aldea istil baten antzekoa izan ohi da: ur uherrak geldo-geldo egiten du bidea buztinezko hondoaren gainean. Ihiak eta sustraia duten beste landare batzuk hazten dira ertzetan. Animalia eta landare espezieak ugari dira. Arrain gehienak mantsoak dira eta gorputzaren perfil altua dute, hala nola, karpak edo lutxoak. Hain zuzen, lutxoak da harrapari ictiofago ohikoa ingurune horretan.

Ingurune hezeak barrualdean

Humedales de interior



Yunto a los ecosistemas propiamente fluviales, las denominadas “zonas húmedas” o humedales constituyen sistemas caracterizados primariamente por una anomalía hídrica positiva, que crea unas condiciones peculiares desde los puntos de vista geomorfológico y biológico respecto de su entorno. A pesar de esta definición aparentemente académica y precisa, la tipología de los humedales es muy amplia y en ocasiones nos encontramos con dificultades a la hora de encuadrar algunas de estas situaciones.

Aunque nuestro territorio no es especialmente rico en este tipo de formaciones ecológicas, mantiene una representación interesante, especialmente en el Valle del Ebro. En este sector de mayor aridez, se propicia la aparición de:

Lagunas asociadas a sistemas endorreicos, o cuencas cerradas sin conexión con redes fluviales, en los que se producen depósitos de yesos o sales. Son ejemplos:

- las lagunas de **Laguardia**, en Álava, y
- la de **Pitillas**, en Navarra.

A su interés como muestra de ecosistemas escasos y por tanto valiosos, unen el servir como punto de atracción para algunos vertebrados, entre los que sobresalen las aves. La relevancia ornitológica que alcanzan muchos humedales se ha traducido a menudo en su valoración preferente por los contingentes de aves que albergaban, si bien esta visión deberá ser complementada por su consideración como sistemas ecológicos integrales, que conjugan peculiaridades hidrológicas, botánicas y faunísticas.

Otro tipo de humedales descritos en nuestro ámbito son las:

Lagunas asociadas a diapiros,

son estructuras geológicas en las que materiales arcillosos han ascendido por encima de otros más modernos, depositándose sobre ellos. Estos estratos arcillosos, impermeables, favorecen el surgimiento ocasional de lagos y charcas como los de:

- **Arreo**,
- **Altube** o
- **Vírgala**, en Álava.

Esfagnales

En el ámbito cantábrico, húmedo y lluvioso, se han desarrollado algunos pequeños enclaves sobre topografías llanas en los que la materia vegetal acumulada durante miles de años se descompone sólo parcialmente.

Son los *esfagnales*, humedales pantanosos caracterizados por la cubierta de musgos del tipo de los esfagnos y plantas carnívoras, que obtienen por ese procedimiento el nitrógeno que necesitan.

Ibai-ekosistemen antzera, ingurune hezeek anomalia hidriko positiboa dute eta, horren ondorioz, baldintza bereziak sortzen dira inguru horietan, ikuspegi geomorfologiko eta biologikotik. Definizioak itxura akademikoa eta zehatza badu ere, ingurune hezeen tipologia oso zabala da eta, noiz edo noiz, zailtasunak sortzen dira ingurune batzuk kokatzerakoan.

Gure lurraldean ingurune heze asko ez ditugun arren, badaude leku interesgarriak, batez ere Ebro bailaran. Lehorragoak diren lurralde horietan, sistema endorreikoe-kin lotutako urmaelak sortzen dira. Arro itxiak dira, ibai-sareekin konexiorik ez dutenak, eta igeltsu edota gatz mineralak metatzen dira hondoetan.

- Araban **Guardiako urmaelak** ditugu eta
- Nafarroan **Pitillasko urmaela**.

Interesgarriak eta balio handikoak dira, ekosistema bixiak direlako. Gainera, ornodun asko –hegaztiak, batez ere– erakartzen dute urmaelek. Ingurune hezeen garrantzi ornitologikoa neurtzerakoan, haietan bizi diren hegaztiei erreparatu ohi zaie, baina ikuspegi hori osatu egin behar da beste alderdi batzuk ere aintzat hartuz, ingurune hezeak berezitasun hidrolagiko, botaniko eta faunistikoak dituzten sistema ekologiko integralak direlako.

Gure lurraldean ditugun beste ingurune heze batzuk diapiroei loturiko urmaelak dira. Diapiroak egitura geologikoak dira. Hasiera batean material buztintsuak arroka berriago eta pisutsuago batzuen azpian zeuden baina, dentsitate gutxiago zuten, haien gainera igo eta han jaulki ziren. Geruza horiek buztin iragazgaitzez osatuta daudenez, haien gainean aintzira eta urmaelak sortzen dira noizbehinka. Araban, esate baterako,

- **Arreo**,
- **Altube** eta
- **Birgara** dira diapiroei loturiko ingurune heze nagusiak.

Esfagnaleak

Kantauri ingurua hezea eta euritsua da. Hango leku zelai batzuetan milaka urteetan pilatutako landare-hondakinak ez dira guztiz usteldu eta *esfagnaleak* eratu dira.

Ingurune heze eta zingiratsuak dira, esfagno motako goroldioez estaliak. Landare karniboroak ere izaten dira inguru horietan, elikagaien bidez nitrogenoa eskuratzen dutenak.

Turbera

Si el esfagnal ha alcanzado una superficie y potencia notables, pasa a ser considerado una *turbera*. Comunes y extendidas en algunas áreas del norte de Europa, en la Península Ibérica las turberas son sumamente escasas, y el hecho de que la turba pueda ser explotada y comercializada, con aplicaciones en jardinería, ha provocado que pueda decirse que algunos de estos ecosistemas, como el de **Saldropo** en Bizkaia, hayan sido destruidos por la mano del hombre.

Trampales

Entre los humedales de origen natural podemos mencionar también los

- *trampales* y
- *criptohumedales*, encharcamientos de dimensiones muy modestas que salpican nuestros montes.

Humedales artificiales

Pero la panorámica no estaría completa sin referirnos a los *humedales artificiales*, los embalsamientos creados por el hombre para satisfacer sus necesidades de agua potable, riego o producción hidroeléctrica. En modo alguno pueden éstos sustituir a los humedales naturales, ya que la dinámica hidrológica está supeditada totalmente al interés humano.

Sin embargo, el grado de “naturalización” que alcanzan algunas balsas y embalses les permite gozar de un importante atractivo para las aves, es el caso de:

- los embalses de **Las Cañas**, en Navarra y
- de **Ullívarri-Gamboa**, en Álava.

La reducida extensión superficial que ocupan los humedales y su singularidad ecológica les convierte, entre otros motivos, en dignos de conservación. El maltrato a que han estado sometidos secularmente, como terrenos carentes de aprovechamiento económico directo por el ser humano, pretende ser paliado modernamente por la valorización de sus atractivos paisajísticos, educativos y ambientales.

Zohizkategi

Esfagnaleek azalera eta potentzia handia hartzen dutenean zohikaztegi bihurtzen dira.

Europako iparraldean ohikoak dira zohikaztegiak, baina Iberiar penintsulan oso gutxi daude. Gainera, zohikaztegiak ustiatu eta zohikatza lorezaintzarako saldu daitekeen, gizakien esku-hartzeak suntsitu egin ditu ekosistema horietako batzuk, esate baterako **Saldropoko zohikaztegia**, Bizkaian.

Tranpalak

Beste ingurune heze naturalak ere baditugu:

- *tranpalak* eta
- *kriptohezeguneak* (mendi inguruan dauden istil eta urmael txikiak).

Ingurune artifizialak

Eta ingurune hezeen zerrenda osatzeko, *ingurune heze artifizialak* ere aipatu behar ditugu. Gizakiak egindako presa eta urtegiak dira, bere premiak asetzeko (edateko ura, ureztaketa-ura eta produkzio hidroelektrikoa). Eraikuntza artifizial horiek ezin dituzte inolaz ere ingurune heze naturalak ordezkatu, beroietan gizakien interesek baldintzatzen baitute dinamika hidrológikoa.

Hala ere, urmael eta urtegi batzuen «naturalizazio-mailak» hainbat hegazti erakartzen ditu leku horietara. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere,


- Nafarroako **Las Cañas** urtegian
- eta Arabako **Uribarri-Gamboa** urtegian.

Ingurune hezeak ez dira oso zabalak eta, ekologiaren ikuspegitik, oso bitxiak dira. Beraz, hainbat arrazoi dago ingurune horiei eusteko. Tratu txarra eman ohi zaie asfaltetik, gizakiari ez diotelako berehalako etekin ekonomikorik ematen. Gaur egun, berriz, leku horiek merezi duten begirunea izan dezaten, ingurune hezeen xarma nabarmendu nahi da, eta paisaiaren, hezkuntzaren eta ingurumenaren aldetik duten erakargarritasuna balioetsi.





HUMEDALES DE INTERIOR



INGURUNE HEZEAK BARRUALDEAN



Biasteri / Laguardia (A)

EMBALSES



Ibaiaren goialdeko urtegia. Irabiako urtegia, Irati ibaian (N).
Embalse de cabecera. Embalse de Irabia en el río Irati (N).



URTEGIAK



Urrunagako urtegia, Zadorra ibaian.
Embalse de Urrunaga en el río Zadorra.

Euskal Herriko ibaien egoera orokorra

Situación general de los ríos en el País Vasco

La divisoria de aguas

Como primera particularidad digna de mención hay que destacar que nuestros ríos desaguan a dos vertientes distintas: la atlántica o cantábrica y la mediterránea, más concretamente la Cuenca del Ebro. Esta doble vertiente es causa de diferencias muy notables entre unos y otros ríos.

La cadena montañosa del Pirineo y su prolongación occidental hacia los montes de Belate, Aralar, Aizkorri, Gorbeia y Sierra Salvada como hitos principales, establece esta *divisoria de aguas*.

En primer lugar hay que decir que los de la vertiente cantábrica desembocan en el mar en nuestras costas, dentro del territorio de Euskal Herria, mientras que los de la vertiente mediterránea desembocan todos ellos, finalmente, en el Ebro, que constituye el eje principal, su cuenca.

Vertiente Cantábrica

Los ríos de la vertiente cantábrica se caracterizan, en general, por sus cortos recorridos y fuertes pendientes. Ello es causa de que, en su mayoría, no pueda reconocerse un curso bajo propiamente dicho y sea el curso medio el que da paso inmediatamente a la zona de influencia marina.

Los valles no llegan a ser abiertos y en la mayor parte de las cuencas el cauce llega encajado entre montañas o colinas hasta su desembocadura. Excepción a esta regla la constituyen los ríos de Iparralde, en los que la orografía, más suave que al sur del Pirineo, permite la diferenciación de los cursos bajos en algunos casos.

Otra de las características de los ríos cantábricos, en este caso sólo referida al caso de Gipuzkoa y Bizkaia, es que el desarrollo urbano e industrial ha influido decisivamente en su grado de conservación y en la alteración de sus condiciones naturales.

La mayor parte de los ríos se encuentran gravemente polucionados y degradados, no sólo en sus condiciones físico-químicas sino también en las condiciones de sus cauces, riberas y biocenosis asociadas.

La situación, aunque mucho menos grave, también afecta a los ríos del norte, en este caso debido sobre todo a problemas de origen agrícola y rural.

Isurialdeen banalerroa

Lehenik eta behin, gure ibaien berezitasun bat aipatu behar da. Euskal Herriko erreka eta ibaietako ura bi isurialdeetara joaten da: Atlantikora (Kantauri itsasora) eta Mediterraneora (Ebro arrora). Bi isurialde egoteak desberdintasun handiak eragiten ditu ibai batzuen eta beste artean.

Pirinioek, eta Pirinioen mendebaldean dauden mendiek (Belate, Aralar, Aizkorri, Gorbeia eta Gorobel) osatzen dute bi isurialdeen banalerroa.

Isurialde kantauriarreko ibaiak gure itsasertzera isurtzen dituzte urak.

Isurialde mediterraneokoak, berriz, Ebro ibairaino iristen dira.

Isurialde kantauriarra

Isurialde kantauriarreko ibaiak laburrak dira eta malda handietan behera jaisten dira. Horregatik, hainbat ibai ez du behealderik: ibaiaren erdialdea amaitu bezain laster itsasoaren eragina duen zatia hasten da.

Bailarak ez dira irekiak eta, gehienetan, ibaia mendi artean jaisten da itsasoraino. Iparraldeko ibaiak salbuespen dira, hango orografía Pirinioen hegoaldekoa baino leunagoa baita, eta horregatik, zenbait kasutan, ibaien behealdea bereiz daiteke.

Kantauriar isurialdean, hiri- eta industria-garapenak eragin nabarmena izan du Gipuzkoa eta Bizkaiko ibaien kontserbazio-mailan eta egoera naturalen aldaketan.

Ibai gehienak larriki kutsatuak eta hondatuak daude, eta kaltea ez da soilik ibaiaren ezaugarri fisiko eta kimikoei eragindakoa: ibilguk, ibaiertzak eta biozenosiek ere kalte handiak jasan dituzte.

Iparraldeko ibaiak ere egoera kaskarrean daude, baina nekazaritza da han arazo-eragile nagusi eta problematika ez da hegoaldekoa bezain larria.

Kantauriar isurialdeko ibaien beste arazo larria baliabide hidraulikoen erabilera da. Sarritan neurri gabe erabili dira baliabide horiek eta zentral hidroelektrikoek, ur-errotek, ureztaketa-urek edota helburu industrialetarako erabilitako urek ibaiaren ur-emaria gutxitzen dute eta uda partean, batez ere, ibai-ekosistema mantentzeko eta garatzeko arazo larriak eragiten dituzte.

Otro de los graves problemas de los ríos cantábricos es la utilización, abusiva muchas veces, de los recursos hidráulicos, que en forma de centrales hidroeléctricas, molinos, riegos, o fines industriales, deriva gran parte del caudal de sus cauces naturales, ocasionando sobre todo en estiaje, graves problemas para el mantenimiento y desarrollo del ecosistema fluvial.

Vertiente Mediterránea

Los ríos de la vertiente mediterránea van todos ellos a desembocar en el Ebro.

- Son de recorrido más largo y las características orográficas del terreno por el que discurren permite diferenciar en ellos la clásica sucesión de curso alto, medio y bajo.
- Las montañas están mejor conservado el medio natural y los bosques.
- Los usos culturales del espacio son distintos a los de la vertiente cantábrica.
- Gran parte del territorio, sobre todo en los llanos, está explotado con fines agrícolas.
- La industria se encuentra concentrada en determinados núcleos (Gasteiz, Iruña, Lizarra, etc.) y no tiene el carácter de dispersión que presenta al norte.

En resumen, la degradación es menor en la vertiente mediterránea y las alteraciones, que evidentemente existen, afectan menos decisivamente al medio fluvial. Sin embargo, en los últimos años hay motivos serios de preocupación:

- la desaparición sistemática de la vegetación de ribera,
- las grandes obras de dragado, rectificaciones, nuevos cauces y creación de defensas, están afectando gravemente a los principales ríos de nuestro territorio, sobre todo en sus cursos medio y bajo, y han alterado sus características morfodinámicas y granulométricas.

Isurialde mediterránea

Isurialde mediterráneo ibaiak Ebrora isurtzen dituzte urak.

Luzeagoak dira, eta lurraren ezaugarri orografikoek ahalbidetzen dute ibai-zatien bereizketa klasikoa egitea: goialdea, erdialdea eta behealdea.

- Mendialdeetan hobeto kontserbatu dira ingurune naturalak eta basoak.
- Espazioen erabilera kulturala ere ez da isurialde kantauriarrean egiten denaren parekoa.
- Lur asko nekazaritzarako erabiltzen dira, batez ere lautadetan.
- Industria zenbait gunetan kontzentratu dago (Gasteiz, Iruña, Lizarra, etab.) eta ez dago Gipuzkoa eta Bizkaian bezain zabalduta.

Laburbilduz, isurialde mediterraneoan degradazioa ez da hain larria. Aldaketak nabarmenak dira, jakina, baina aldaketa horiek ez dute hainbesteko kaltea eragin ibai-ekosisteman. Hala ere, azken urteotan kezkatzeko moduko egoera bizi dugu:


- ibaiertzeko landareen desagertze sistematikoak eta
- ibai ondoko lan handiek (dragatze-lanak, zuzentze-lanak, ibilgu berriak eta babes-lanak) eragin kaltegarria dute gure lurraldeko ibai nagusietan. Ur-lasterren erdialdean eta behealdean izan dira kalterik handienak, ibaien ezaugarri morfodinamiko eta granulometrikoak aldatu baitira.

Adierazle biotikoak kutsatutako erreka batean.

Margalef iturria.

Índices bióticos en un río contaminado.

Fuente Margalef.







IBAI FAUNA

FAUNA FLUVIAL

ORNOGABEAK

INTSEKTUAK
MOLUSKUAK
OSKOLDUNAK

ORNODUNAK


ANFIBIOAK
NARRASTIAK
ARRAINAK
HEGAZTIAK
UGAZTUNAK

INVERTEBRADOS

INSECTOS
MOLUSCOS
CRUSTÁCEOS

VERTEBRADOS

ANFIBIOS
REPTILES
PECES
AVES
MAMÍFEROS





Ornogabeak

Invertebrados

Convencionalmente, las numerosas formas de vida invertebradas que utilizan los medios acuáticos se segregan según el estrato que explotan preferentemente.

Así, el **plancton** está constituido por los organismos que flotan pasivamente en la columna de agua, caracterizados por su pequeño tamaño y cuyo desplazamiento suele depender más de la turbulencia de lagos y lagunas que de su propio movimiento.

Algas microscópicas componen el *fitoplancton* o plancton vegetal, mientras los consumidores animales forman el *zooplancton*.

El *bentos*, por el contrario, reúne a todos los animales de los fondos acuáticos. Salvo en los ríos extremadamente grandes, en la mayoría de los ríos el plancton es casi inexistente.

En el bentos predominan las fases larvarias de insectos voladores, como por ejemplo:

- plecópteros,
- odonatos,
- dípteros,
- efemerópteros,
- coleópteros
- y tricópteros.

Éstos últimos construyen casetas tubulares, con piedras pequeñas, granos de arena y palitos, llamativas y fáciles de ver en el fondo de los arroyos de montaña.

Si las aguas son de naturaleza caliza pueden abundar:

- moluscos bivalvos,
- gasterópodos
- y crustáceos cladóceros, como las dafnias o pulgas de agua.
- zapateros (*Gerris* spp.) insectos conocidos que nadan en la superficie de las aguas tranquilas.
- gusanos anélidos como los tubifex o las sanguijuelas, que se alimentan de sangre de vertebrados, también pueden abundar.

Diferentes condicionamientos y adaptaciones

A lo largo del curso del río se produce una variación de la composición y abundancia de las comunidades de invertebrados, de forma que las especies más exigentes en cuanto a calidad de agua son reemplazadas progresivamente por otras que soportan mejor condiciones de mayor deterioro físico-químico. Esta sucesión natural de especies entre curso alto y bajo, a la que muchas responden estrictamente, se ha empleado como método para valorar la calidad de las aguas a través de indicadores biológicos.

Konbentzioaren arabera, uretan bizi diren ornogabeen sailkapena egitean zein geruzatan bizi diren hartu ohi da kontuan.

Uretan modu pasiboan flotatzen duten organismo txikiak osatzen dute **planktona**. Organismo horiek, berezko mugimenduari baino gehiago, aintzira eta urmaletako korronteei zor diete leku batetik bestera ibili ahal izatea. Alga mikroskopikoak osatzen dute *fitoplanktona*, eta animalia mikroskopikoak, berriz, *zooplanktona*.

Hondoetako animaliek, aldiz, *bentosa* osatzen dute. Ibai oso handietan soilik ageri da planktona, gainerako guztietan ez dago ia planktonik.

Aipaturiko bentosa intsektu hegalarien larbek osatzen dute, batez ere, eta mota ugari daude, hala nola:

- plekopteroak,
- odonatuak,
- dipteroak,
- efemeropteroak,
- koleopteroak
- eta trikopteroak.

Azken horiek etxolatxo tubularrak egiten dituzte hondoetako materialak erabiliz (harri txikiak, harea-pikorrak eta makilatxoak). Mendiko erreken hondoan erraz ikusten dira etxetxo deigarri horiek.

Urak kare nahikoa badu:

- molusku bibalbio,
- gasteropodo
- eta krustazeo kladozero ugari bizi ohi dira. Krustazeo kladozeroen artean dafnia edo uretako arkakuso nabarmentzen da.
- zapatari ezagunak (*Gerris* spp.) ditugu, ur-azal barreetan ibiltzen diren intsektuen artean, .
- tubifexak eta izainak, ornodunen odolaz elikatzen diren har anelido ugari dago.

Hainbat baldintza eta egokitze

Ibaitan aurkitzen ditugun ornogabeak ez dira berdinak ibai-zati guztietan. Goialdean bizi diren espezieak kalitate oneko ura behar dute eta, ibaiak behera egiten duen heinean, baldintza fisiko eta kimiko kaskarragoetako uretan bizi daitezkeen espezieak betetzen dute pixkanaka haiek uzten duten lekua. Espezien banaketa hori (batzuk ibaien goialdean eta besteak behealdean) nahiko zorrotza izaten da eta uren kalitatea adierazle biologikoen bidez neurtzeko erabili ohi da.

Resulta curioso observar las diferentes adaptaciones que presentan estos animales para sobrevivir soportando:

- fuertes corrientes,
- variaciones bruscas de nivel
- e incluso el arrastre de materiales.

Bien es verdad que, debido al rozamiento, la superficie y el fondo, o las orillas y el centro del arroyo, presentan diferentes condiciones morfodinámicas.

Asimismo, la variación en la granulometría favorece la existencia de diversos microhábitats que dan lugar a abrigos que amortiguan el rigor de las condiciones medioambientales.

A ello se suma toda una gama de *adaptaciones evolutivas*, como:

- los cuerpos aplanados o conchas de formas aerodinámicas que oponen poca resistencia a la corriente,
- las patas provistas de garfios para aferrarse a las piedras,
- glándulas secretoras de seda o sustancias adherentes,
- o incluso, un instinto especial para elegir como microhábitat aquellas zonas del fondo donde la fuerza de la corriente es menor.

Deigarria da nola egokitzen diren espezieak egoera zailei aurre egiteko eta bizirik iraun ahal izateko, esaterako:


- korronte bortitzei aurre egiteko,
- bat-bateko tenperatura aldaketei aurre egiteko,
- eta urak arrastan daraman material ugariari aurre egiteko.

Egia da, marruskaduraren eraginez, ezaugarri morfodinamikoak ezberdinak izaten direla ibaiaren azalean eta hondoan, edota ibaiertzetan eta ibaiaren erdialdean.

Gainera, granulometria ezberdinen ondorioz, hainbat mikrohabitat eratzen da, eta horrek inguruko baldintza gogorretatik babesteko aukera ematen du.

Horrez guztiaz gain, hainbat egokitze ebolutibo ere aipatzekoak dira:

- gorputz zapalagoak eta forma aerodinamikoak duten maskorrak (erresistentzia murrizteko),
- kakoak hanketan (harriei hobeto heltzeko),
- seta edota sustantzia eranskorra botatzen duten glandulak,
- eta korronteak hainbeste erasoko ez dituen lekuak aukeratzeko sena, besteak beste.



BIZKAIKO IBIAIAK
RIOS DE BIZKAIA

En este capítulo de invertebrados hemos recurrido a textos de la publicación "Ríos de Gipuzkoa. Gipuzkoako ibaiak" (1984) de Javier Álvarez y Antonio Bea y a algunos esquemas que se citan en su lugar. Al libro "Bizkaiko ibaiak. Ríos de Bizkaia" de Emma Orive y Ana Rallo, hemos recurrido para ilustrar algunos de los invertebrados de nuestra fauna fluvial reproduciendo en tamaño reducido los excelentes dibujos de Ángel Domínguez (pág. 60-61; 64-65 y 69-70).

Ornogabeei buruzko atal honetan, "Gipuzkoako ibaiak. Ríos de Gipuzkoa" (1984) argitalpeneko testua eta han aipatutako eskema batzuetara jo dugu. Javier Álvarez eta Antonio Bea idatzia da liburua. Bestalde, Emma Orive eta Ana Ralloren "Bizkaiko ibaiak. Ríos de Bizkaia" liburua hartu dugu oinarri gure ibaietako faunaren ornogabe batzuk ilustratzeko. Hala, neurri txikian berritu ditugu Ángel Domínguez-en marrazki bikainak (60-61; 64-65 eta 69-70 or.).

INSECTOS

Insectos

Un gran número de insectos realiza sus puestas de huevos en las aguas corrientes y sus larvas se desarrollan en este medio. La técnica de «pesca con mosca» se fundamenta precisamente en los hábitos reproductores de estos insectos y la respuesta de los peces.

A lo largo de la primavera y el verano es habitual observar cómo pequeñas «moscas de río» sobrevuelan la superficie, tocando de vez en cuando con el extremo de su abdomen en el agua para depositar los huevos. Muchas veces se puede ver cómo una Trucha salta en este momento para capturar al insecto. El hombre ha imitado este proceso construyendo, mediante finas plumas de colores, moscas artificiales que disimulan el anzuelo. El pez, «engañado» por este cebo, muerde el anzuelo al intentar engullir a la mosca.

La mayor parte de la vida de estos insectos transcurre en el río, en donde pasan su vida larvaria; sólo al final se transforman en individuos adultos que salen a la superficie (medio aéreo) y, en pocos días o semanas, se reproducen y mueren. Por esta razón, trataremos de ver cómo son precisamente sus formas larvarias, que las podemos encontrar durante todo el año en el río.

De los muchos grupos u órdenes de insectos acuáticos que hay, veremos sólo los más importantes y frecuentes.

Intsektuak

Intsektu askok beren arrautzak ur-korrontetan errutzen dituzte. Honela, arrautzetatik sortutako larbak ibaian hazten dira. «Eltxozko»

arrantzarako teknika, intsektuen ohitura honetan eta arrainen erantzunean oinarritzen da.

Udaberrian eta udan, ibaiko eltxoak ur gainean hegaka ikusi ohi dira, noiz behinka sabelaldearen puntarekin ura ukituz arrautzak uztearren. Sarri, une horretan amuarrainak salto egiten du intsektua harrapatzekotan. Gizakiak, jokamolde honetan oinarrituz prozesu hori imitatu egin du, amua daramaten koloretako eta luma finezko eltxo artifizialak erabiliz. Beitizunaz engainatuta arrainak amuari horzka egiten dio eltxoa jan nahiean.

Intsektu hauek ja bizialdi osoa ibaian eramaten dute. Haregoeran ibaian egoten dira. Bukaeran, heldutasunera iristen direnean bakarrik ateratzen dira hegaz urgainera eta egun edo aste gutxi barru, ugaltu eta akabatu egiten dira.

Beraz, intsektuen harrak nolakoak diren adierazten saiatuko gara. Har hauek urte osoan aurki daitezke ibaitan.

Uretako intsektuen talde edo ordena desberdin ugarietatik garrantzitsuenak eta ohizkoenak bakarrik aipatuko ditugu.

INTSEKTUAK

Plecópteros

Las larvas se distinguen por los dos filamentos finos y largos que poseen en el extremo posterior de su abdomen. Viven cobijados debajo de las piedras, sólo en aquellos ríos de aguas limpias y frescas, de alta calidad. Constituyen un excelente alimento para las Truchas.

Efemerópteros

Sus larvas, muy parecidas a primera vista a las anteriores, se distinguen por tener tres filamentos finos y largos en el extremo posterior del abdomen. También son un bocado selecto para las Truchas.

Tricópteros

Son, quizás, las larvas más abundantes en nuestros ríos. Es raro levantar una piedra de mediano tamaño sin encontrar bajo ella varios individuos. Quizás, los más conocidos entre los Tricópteros sean los llamados «gusanos de palo», que viven protegidos por una carcasa que construyen con palitos y restos vegetales o pequeñas piedrecillas. La forma de construir estos habitáculos (carcasas) es muy variada y suele ser típica para cada especie. Hay también Tricópteros que viven libres, es decir, sin proteger su cuerpo dentro de carcasas.

Hemípteros

Son muchas las especies de Hemípteros que están presentes en los ríos guipuzcoanos. No obstante, los Zapateros (*Gerris sp.*) son los más conocidos a nivel popular, por su frecuencia. Se deslizan por la superficie del agua moviendo sus largas patas a modo de remos. Es normal verlos en grandes grupos ocupando las zonas de aguas más remansadas de los ríos.

Dípteros

Es un grupo que se encuentra bien representado en todos nuestros ríos y que es abundante. Sus larvas se caracterizan por carecer de patas. Viven en todos los tramos de los ríos y son especialmente abundantes en las aguas contaminadas. Los mal llamados Gusanos rojos (*Chironomus sp.*) son muy frecuentes en este tipo de aguas; su sangre especial les permite resistir concentraciones muy bajas de oxígeno disuelto en el agua.

Plekopteroak

Sabelaldearen atzekaldean dituzten bi harizpi fin eta luzeengatik bereizten dira harrak. Harri azpitan gordeta bizi dira, baina ur garbi eta freskoa duten ibaietan bakarrik. Amuarrainak elikatzeko janari paregabe dira.

Efemeropteroak

Harrak aurrekoen antzekoak izan arren, sabelaldeko atzekaldean hiru harizpi fin eta luze dituztelako bereizten dira. Hauek ere mokadu gozoa dira amuarrainentzat.

Trikopteroak

Beharbada, gure ibaietako har-motarik ugariena berau izango da. Arraroa izaten da tamaina ertaineko harri bat jaso eta azpian har batzuk ez aurkitzea. Trikopteroen artean, agian ezagunenak «makila-zizareak» deitutakoak izango dira. Har hauek, txotx, hondakin begetal eta harriokorrez osatutako oskoletan babestuta bizi ohi dira. Espezie bakoitzak oskola eraikitzeke era berezia izaten du. Beraz, forma desberdinetako oskolak aurki daitezke. Libre bizi diren trikopteroak ere badira. Hau da, gorputza oskolean babestu gabe bizi direnak alegia.

Hemipteroak

Gipuzkoako ibaietan hemiptero-mota asko bizi da. Hala ere zapatariak (*Gerris sp.*) dira ezagunenak eta ugarietak. Urgainean beren hanka luzeak arraunak balira bezala mugitzen dituzte. Ibaiko urgeldietan talde handiak osatuz aurkitu ohi dira normalean.

Dipteroak

Talde ugaria eta gure edozein ibaitan aurki daitekeena. Harren bereiztasuna hankarik ez edukitzean datza. Ibaiaren ibilgu guztietan aurkitzen dira eta oso ugariak dira ur kutsatuetan. Izen desegokia eman ohi zaien zizare gorriak (*Chironomus sp.*), ugariak dira ur-mota hauetan. Daukaten odol bereziari esker oxigeno baxuko uretan ongi irauten dute.

INSECTOS

PLEKOPTEROAK / PLECÓPTEROS



Nemoura cinerea (heldua /adulto)



Nemoura cinerea (ninfa)



Leuctra fusca (heldua /adulto)



Leuctra franzi (ninfa)



Perla bipunctata (heldua /adulto)



Perla marginata (ninfa)

EFEMEROPTEROAK / EFEMERÓPTEROS



Ecdyonurus dispar
(ninfa eta heldua
1,5 cm arte)
ninfa y adulto
hasta 1,5 cm)



Baetis rhodani
(ninfa eta heldua
1 cm arte)
(ninfa y adulto
hasta 1 cm)



Ephemerella ignita
(ninfa eta heldua
2 cm arte)
(ninfa y adulto
hasta 2 cm)



Caenis sp. (ninfa eta heldua 0,8 cm)
(ninfa y adulto, 0,8 cm)



TRIKOPTEROAK / TRICÓPTEROS

Odontocerus sp.



Hydropsyche pellucidula

Silo nigricornis



Brachycentridae



Anabolia sp.



Potamophylax sp.

Halesus sp.



Athripsodes sp.



Hydropsyche pellucidula



Polycentropus flavomaculatus



Rhyacophila relicta



Chimarra marginata



INTSEKTUAK

KOLEOPTEROAK / COLEÓPTEROS




Dytiscus s.p.



Esolus parallelepipedus




Orectochilus villosus



Hydrophilus s.p.


HEMIPTEROAK / HEMÍPTEROS



Notonecta s.p.



Gerris s.p.



Nepa Cinerea

MEGALOPTEROAK MEGALÓPTERO



Sialis lutaria

DIPTEROAK / DÍPTEROS



Chironomus plumosus



Tabanus bovinus



Culex pipiens

INSECTOS




Efemeropteroa / Efemeróptero



INTSEKTUAK



Trikopteroa / Tricóptero



Zenbait trikopterok sareak sortzen ditu urak dakartzan elikagaiak harrapatzeko.
Algunos tricópteros construyen redes para capturar el alimento arrastrado por el agua.

MOLUSCOS - MOLUSKUAK

Moluscos

Son muy variadas las especies representantes de los Moluscos que viven en los ríos. Citaremos aquellos que con mayor frecuencia se encuentran y que resultan fácilmente identificables.

Ancylus fluviatilis

Se reconoce por su concha carente de espiras que recuerda a la de las Lapas. Su tamaño es pequeño, alrededor de 5 mm de longitud y 2 mm de altura.

Planorbis sp.

Su aspecto de Caracol terrestre, pero con la concha enrollada en un solo plano, los hace inconfundibles. Son de pequeña talla y raramente sobrepasan un centímetro de longitud.

Physa sp.

Su concha es helicoidal, más alta que ancha. Se distingue de la siguiente especie en que el sentido de giro de sus espiras es levógiro (si miramos la concha desde la punta, las espiras giran en sentido contrario a las agujas del reloj).

Lymnaea sp.

Es muy parecida a la anterior, pero el sentido de giro de las espiras es dextrógiro.



Planorbis planorbis



Moluskuak

Ibaietan, espezie askotako moluskuak bizi dira. Erraz identifika daitezkeen eta ugarienak direnen aipamena bakarrik egingo dugu hemen.

Ancylus fluviatilis

Lapen antzeko eta espirarik gabeko maskorragatik ezagutu daitezke. Tamainaz txikiak dira; 5 mm.ko luzera eta 2 mm.ko altuera dute gutxi gorabehera.

Planorbis sp

Nahiz eta lurreko barakuiluaren itxura izan, maskorra plano bakar batean biribildua daukalako bereizten da espezie hau. Altuera txikikoak dira eta gutxitan iristen dira zentimetro bat baino luzeago izatera.

Physa sp

Maskor helikoidala daukate; zabalera baino altuera handiagokoa. Ondoren aipatuko dugun espeziez bereizten duena, espiren norantza da (lebogiroak direnez, maskorrari puntatik begiratzeko badiogu, espirek, erlojuorratzen kontrako norantzan biratzen dute).

Limnaea sp

Goian aipatutakoaren antz handikoa da, baina espiren norantza eskuin alderakoa da.

MOLUSKU GASTEROPODOAK ETA MOLUSKU BIBALBIOAK MOLUSCOS GASTERÓPODOS Y MOLUSCOS BIVALVOS

Physella acuta



Lymnaea peregra



Ancylus fluviatilis



OSKOLDUNAK - CRUSTÁCEOS

Crustáceos

Destacaremos dos representantes de este grupo, muy conocidos en general.

Oskoldunak

Talde honetako bi ordezkari oso ezagunen aipamena egingo dugu.

Gammarus sp (Ixkira)

Ixkirak oso ugariak dira gure ibai guztietan.

1-1,5 cm.tako tamaina izaten dute.

Harri azpitan ezkutaturik bizi ohi dira eta bizkor egiten dute igari zirikatzen badira. Salmonidoentzat mokadu gozoa dira.

Hauen haragiari kolore gorrixka ematen die ixkirek, sarri jaten badituzte.


Gammarus sp. (Camarón)

Los Camarones son muy frecuentes en todos nuestros ríos; tienen un tamaño de 1 a 1,5 cm.

Viven escondidos debajo de las piedras

y nadan con agilidad cuando son molestados.



Constituyen un bocado exquisito para los Salmónidos, a los que confieren el color asalmonado de su carne, si habitualmente forman parte de su dieta alimenticia.



TURBELARIOAK, OLIGOKETOAK ETA HIRUDINEOAK TURBELARIOS, OLIGOQUETOS Y HIRUDINEOS



CRUSTÁCEOS



OSKOLDUNAK



Gammarus sp.

CRUSTÁCEOS

Cangrejo de Río (Bertako ibai-karramarroa). *Austropotamobius pallipes*

Es especie propia de aguas poco profundas, claras y bien oxigenadas, de preferencia calcáreas. Vive en arroyos y ríos no muy caudalosos de todo el País y también en canales, acequias y orillas de lagos y embalses, pero no le gustan los fondos blandos, de limos, sino los pedregosos. Evita también las aguas demasiado frías, por lo que suele faltar en los tramos superiores de los ríos de montaña. Le van muy bien las orillas abruptas, con paredes en las que encuentre cavidades y los lechos con rocas y piedras bajo las que pueda hallar refugio. También le gusta ocultarse entre la masa de raíces que extienden algunos árboles ribereños, como el aliso, sumergidos en el agua de las orillas.

En general, el cangrejo permanece oculto durante el día, entrando en actividad al anochecer.

A partir de esta hora sale en busca de comida, caminando, con las fuertes pinzas preparadas para sujetar el alimento o defenderse. Por cierto que, contra la creencia general, el cangrejo anda hacia adelante. Sólo se desplaza hacia atrás cuando nada, cosa que hace a saltos, impulsándose mediante vigorosas contracciones de la cola, que repliega bajo el cuerpo.

Se alimenta un poco de todo: insectos y sus larvas, caracoles, lombrices, huevos de peces, cadáveres de éstos u otros animales y raíces de algunas plantas acuáticas.

La hembra pone de 50 a 350 huevos, que lleva sujetos a su abdomen durante casi seis meses. Al cabo de este tiempo nacen los cangrejillos, de unos 8 mm y muy parecidos de aspecto a los adultos. A pesar de los cuidados de la hembra, rara vez llegan a nacer más del 20% de los huevos.

Para crecer el cangrejo tiene que mudar, desprendiéndose del caparazón rígido que lo envuelve.

Tras la muda queda por unos 10 días blando e indefenso, hasta que se endurece su nuevo caparazón. Durante estos días es cuando crece. En su primer año realiza de 7 a 8 mudas, con un crecimiento total que va de 2 a 6 cm, según las condiciones más o menos favorables que encuentre.

Los años posteriores, ya de adultos, mudan una sola vez las hembras y dos los machos.

En general, su desarrollo es lento, y no alcanzan la madurez sexual hasta los tres años.

Hoy en día, la situación del cangrejo autóctono es más que precaria: se encuentra en riesgo de extinción.

La afanomicosis, una enfermedad fúngica previsiblemente introducida con la importación de cangrejos foráneos ha diezmando terriblemente las poblaciones desde los años 80, con la “inestimable” colaboración de la contaminación acuática y quizá de la sobrepesca. La especie sólo ha logrado sobrevivir en contados arroyos y regatas de montaña, a los que por su relativo aislamiento la enfermedad no ha logrado llegar. La triste desaparición del cangrejo es un síntoma más del maltrecho y deteriorado estado de nuestros ríos.

Bertako ibai-karramarroa (Cangrejo de Río). *Austropotamobius pallipes*

Sakonera eskaseko ur garbi eta ondo oxigenatuetan bizi den espeziea da, eta ur kareduna nahiago izaten du. Euskal herriko erreketan eta ur gutxi duten ibaietan bizi da, eta baita kanaletan, ubidetan eta aintzira nahiz urtegietako ur-bazterretan ere. Lohia duten hondo bigunak ez ditu gogoko, nahiago ditu hondo harritsuak. Ur hotzegiak saihesten ditu eta horregatik ez da ageri mendi-ibaietako goialdean.

Ur-bazter malkartsuak gustuko ditu, zulo eta txokoetan ezkutatzea atsegin baitu, eta hondo harritsuak aukeratzen ditu, harrien azpian babesteko. Ur-bazterreko haltzen eta beste zenbait zuhaitzen urpeko sustraien artean ezkutatzea ere gogoko dute.

Gehienetan, ezkutatuta pasatzen du eguna karramarroak, eta iluntzean ateratzen da gordelekutik.

Orduan hasten da janari bila, oinez, hagin indartsuak prest dituela, janariari heltzeko edota bere burua defendatzeko. Herri-sinesmenak bestelakorik badio ere, aurreraka ibiltzen da karramarroa. Igeri egitean soilik ibiltzen da atzeraka: gorputz azpian biltzen duen isatsa uzkuritu eta jauzi egiten du uretan.

Janari ugari ditu elikagai: intsektuak eta intsektu-larbak, barraskiloak, zizareak, arrainen arrautzak, hildako arrainak eta beste animaliak, eta zenbait uretako landareen sustraiak ere bai.

Emeak 50-350 arrautza jartzen ditu, eta sabelaldean eramaten ditu ia sei hilabetez. Denbora horren buruan jaiotzen dira karramarro txikiak: 8 mm inguruko luzera izaten dute eta helduen oso antzekoak dira. Emeak hain ondo zainduta ere, harritzekoa izaten da arrautzen %20 baino gehiagotik karramarroak jaiotzea.

Hazteko, karramarro txikiak bere eskola utzi behar du. Hamar bat egun pasatzen ditu azal bigunarekin, eskolaren babesik gabe. Denbora horren buruan, bere eskol berria gogortzen da. Egun horietan hazten da, hain zuzen ere, karramarroa. Bere lehen urtean zazpi edo zortzi aldiz berritzen du eskola, eta 2-6 cm hazten da, inguruko baldintzen egokitasunaren arabera. Ondorengo urteetan, helduak direnean, emeek urtean behin aldatzen dute eskola, eta harrek, berriz, urtean bitan.

Karramarroen garapena geldoa da eta, oro har, hiru urterekin lortzen dute sexu-heldutasuna.

Gaur egun, bertako karramarroaren egoera oso larria da: desagertzeko arriskuan daude. Laurogeiko hamarkadaz geroztik, afanomikosiak jota daude bertako karramarroak.

Gaixotasun fungikoa da eta, ziurrenik, kanpoko karramarroak ekarritakoan sartu zen Euskal Herrira. Gaixotasun horrek larriki gutxitu ditu karramarro-populazioak. Gainera, uraren kutsadurak eta gehiegizko arrantzak arazoa areagotu dute. Espezieak mendialdeko erreka batzuetan soilik irauten du. Inguru horiek nahiko isolatuta daudenez, gaixotasuna ez da haraino iritsi. Karramarroaren desagertze tamalgarria gure ibaien egoera kaskarraren adierazle da.

OSKOLDUNAK

Es el Crustáceo de mayor tamaño de las aguas dulces. Constituye una de las piezas más codiciadas por los pescadores.

Hasta hace pocos años era muy frecuente en todos los ríos guipuzcoanos; la contaminación, la fuerte presión de pesca que sufría y, sobre todo, la llegada a nuestros ríos de una enfermedad importada (Afanomikosis), desconocida hasta ahora en estas aguas, acabó prácticamente con la presencia de esta especie, que ha quedado relegada a unos pocos enclaves, siendo muy raro encontrar algún ejemplar en la mayoría de los ríos.

Hoy en día está prohibida su pesca.

Sólo respetando estrictamente esta norma, quizá a largo plazo el Cangrejo pueda volver a instalarse en nuestros ríos.

El Cangrejo de río vive en aguas de dureza elevada, es decir de alto contenido en sales de calcio. Necesitan del calcio para que su caparazón se desarrolle en condiciones.

Ur gezetako ixkirarik handiena da eta arrantzaleentzat pieza estimatua.

Orain dela urte gutxirarte Gipuzkoako ibai guztietan ugari agertzen bazen ere, uren kutsadurak, arrantzaleen hustiaperak eta batez ere kanpotik sartutako gaitz batek (Afanomikosisak) eraginda la desagertu egin da espezie hau. Ibai gehienetan desagertu egin da. Leku bakar batzutan bakarrik aurki daiteke gaur egun karramarroa. Bere arrantza debekatuta dago.

Arau hau zintzo beteta bakarrik lor daiteke agian, epe luzera, berriro espezie hau gure ibaietan azaltzea.

Karramarroak ur gogorretan bizi dira; hau da, Kaltzio gatzeko kantitate handiko uretan.

Kaltzioa beharrezkoa bait dute maskorra ongi osatzeko.



CRUSTÁCEOS

El Cangrejo Rojo o de las Marismas (Karramarro gorria edo paduretako karramarroa)

Procambarus clarkii

Es otra especie diferente, de procedencia americana, que ha proliferado extraordinariamente en los tramos bajos y medios de nuestros ríos gracias a su diseminación y suelta por particulares pero con criterios equivocados.

Por su parte, la administración ha promovido también la introducción de otro crustáceo americano, el Cangrejo Señal (*Pacifastacus leniusculus*), que se ha extendido por algunas cuencas fluviales alavesas.

Aunque la introducción de estas especies foráneas ha permitido reanudar la práctica de la pesca del “cangrejo”, su presencia en nuestras aguas impide que pueda recuperarse en un futuro más o menos próximo la especie autóctona, ya que son portadoras de la afanomicosis.

Karramarro gorria edo paduretako karramarroa (Cangrejo de Rojo o de las Marismas) *Procambarus clarkii*

Beste espeziea da, Amerikatik ekarria. Izugarri ugaltu dira karramarro gorriak ibaien erdialdeetan eta behealdeetan, partikularrek askatu baitituzte, okerreko irizpideak oinarritzat hartuta.

Administrazioak, berriz, Amerikatik ekarritako beste krustazeo bat sartzea bultzatu du: **señaledun karramarroa** (*Pacifastacus leniusculus*); eta, dagoeneko, Arabako arro batzuetan zabaldu da. Kanpoko espezie horiek sartzeak ahalbidetu du gure ibaietan karramarroaren arrantzari berriro ere ekitea baina, aldi berean, espezi horien presentziak eragozten du bertako espeziea gaur edo bihar berreskuratu ahal izatea, afanomikosia baitute sartutako karramarroek.




OSKOLDUNAK



ANFIBIOAK

ANFIBIOS



Jo beza irakurleak Euskal Herriko Fauna bilduma honetan bertan, «Ornogabeak, Anfibioak eta Narrastiak» I. liburukian hain zuzen, anfibioen gainean idatzitako atal zabalera.

Hemen, adierazgarri gisa, igel arrunta aurkeztu dugu, espezie honetan ibaikoena.

Remitimos al lector al extenso apartado Anfibios publicado en esta misma colección en el tomo I de Fauna de Euskal Herria "Invertebrados, Anfibios y Reptiles".

Aquí de modo representativo presentamos la rana común como la especie más fluvial.



Rana Común (Ur-igela)

Rana perezi

La **Rana Común** o **Rana Verde** (*Rana perezi*) es una especie termófila de amplia distribución europea. Su cuerpo es robusto, con hocico puntiagudo. Las patas posteriores son largas y le permiten dar saltos de larga distancia. Su color es verde oliva o grisáceo y, a veces, presenta manchas negras dispersas.

La **Rana Común** habita exclusivamente el medio acuático, charcas, lagunas y ríos. Son gregarias y pasan largo rato bien sobre la orilla, bien sobre el agua, flotando, calentándose al sol. Esta especie es muy voraz; se alimenta de insectos, lombrices de tierra.

Las hembras son mayores que los machos y realizan puestas masivas, entre 800 y 3.000 huevos, entre la vegetación acuática. Son de actividad diurna, aunque en algunas ocasiones también son activas por la noche. Son muy bulliciosas; suelen formar coros de numerosas voces, con un canto potente y prolongado durante largo tiempo.

Ur-igela (Rana Común)

Rana perezi

Ur-igela (*Rana perezi*) espezie termofiloa da, eta European oso hedatuta dago. Gorputz sendoa eta mutur punta-zorrotza ditu. Atzeko hanka luzeak ditu eta, horiei esker, luzera handiko saltoak egiten ditu. Berde oliba edo berde grisaxka izaten da, eta, batzuetan, tanto beltzak izaten ditu han-hemenka.

Ur-igela uretan bakarrik bizi da: putzuetan, aintziretan eta ibaietan. Taldekoia da eta denbora luzean egoten da ur bazterrean, uraren gainean igeri zein eguzkitan. Oso jatuna da eta, besteak beste, intsektuak eta lur-zizareak jaten ditu.

Emeak arrak baino handiagoak dira eta errute masiboak egiten dituzte: 800 eta 3.000 arrautza bitartean. Landare urtarren artean erruten dituzte.

Egunez ibiltzen dira, baina, tarteka, gauez ere bai. Oso zaratatsuak dira eta hainbat ahotsetako koruak egiten dituzte, denbora luzez, kantu sendo batekin.



NARRASTIAK

REPTILES



OFIDIOAK - OFIDIOS

Culebra de Collar (Suge Gorbataduna)*Natrix natrix*

La Culebra de Collar se encuentra ampliamente repartida por toda Europa. Sobrepasa el metro con facilidad, su cuerpo es muy grueso en estado adulto. Posee un color dorsal gris oliva, pardo o verdoso, con o sin pequeñas manchas negras.

La Culebra de Collar detrás de la cabeza presenta un collar amarillento muy característico, evidente sobre todo en los ejemplares jóvenes. Vive en zonas de matorral, bosques, prados húmedos y en los cursos de agua. Se alimenta de ranas y sapos y, a veces, también captura tritones y renacuajos. Pese a sus costumbres y alimentación, es mucho menos acuática que la Culebra Viperina. Es de actividad diurna. Su comportamiento ante un posible agresor es muy similar al realizado por la Culebra Viperina; es muy aparatoso, pero el animal nunca llega a morder. Cuando es capturada, también vacía el contenido de su glándula anal. También puede hacerse la muerta quedándose inmóvil con el vientre hacia arriba, la boca abierta y la lengua fuera. Las hembras llegan a poner hasta 4 docenas de huevos, en lugares húmedos y soleados; normalmente escoge los montones de estiércol para depositarlos. Las crías se alimentan de insectos y renacuajos. Puede llegar a vivir unos 10 años.

Suge Gorbataduna (Culebra de Collar)*Natrix natrix*


Suge Gorbataduna Europa osoan zehar bizi da.

Normalean metro bat baino gehiago izaten baitu luzeraz eta haren gorputza oso lodia baita helduaroan. Atzeko aldean, gris oliba, arre edo berdexka izaten da, eta, batzuetan, orban beltz txikiak ere izaten ditu.

Suge Gorbatadunak lepoko horizta oso bereizgarria izaten du buruaren atzeko partean, eta banako gazteenengan ikusten da argien. Sastrakadietan, basoetan, larre hezeetan eta ur-ibilbideetan bizi da. Igelez eta apoez elikatzen da, baina, batzuetan, uhandreak eta zapaburuak ere harrapatzen ditu. Ohitura eta elikadura-modu horiek izanda ere, ez da Suge Biperakara bezain urtarra. Egunez ibiltzen da.

Erasotzaileekin, aurreko espezieak duen jarreraren antzekoa izaten du; oso ikusgarria da, baina ez du inoiz ere ausiki egiten. Harrapatzen dutenean, uzki-guruina husten du.

Batzuetan, hilarena egin dezake: geldidirik egoten da, sabelaldea gora begira eta ahoa irekita eta mingaina kanpoan duela. Emeak 4 dozena arrautza errun ditzake, toki heze eta eguzkitsuetan; normalean, gorotz-multzoen gainean jartzen ditu. Kumeak intsektuez eta zapaburuez elikatzen dira. Hamar bat urtez bizi daiteke.



UGAZTUNAK

MAMÍFEROS

Algunas especies de mamíferos son también genuinos habitantes del medio fluvial. Curiosamente, varios de ellos ostentan la triste categoría de amenazadas, y se encuentran en grave riesgo de desaparición. Es el caso de la Nutria, extinguida en Bizkaia y Gipuzkoa, rarísima en Navarra y Álava, pero también el del Desmán Ibérico.

Ugaztun espezie batzuk gogoko dituzte ur-bazterrak eta inguru horietan bizi dira. Ugaztun horietako batzuk desagertzeko arrisku larrian daude. Igaraba Bizkaitik eta Gipuzkoatik desagertu da; Nafarroan eta Araban, berriz, bakar batzuk besterik ez dira gelditzen. Desman piriniarra ere oso egoera larrian dago.

Jo beza irakurleak Euskal Herriko Fauna bildumako II. liburukira. Ugaztunei buruzkoa da bigarren hori. Hemen, ibaiko habitatetan bizi direnak baino ez ditugu aipatuko.

Remitimos al lector al tomo II de Fauna de Euskal Herria "Mamíferos", limitándonos aquí a los más estrictamente ligados a hábitats fluviales.



MAMÍFEROS RIBEREÑOS - URERTZEKO UGAZTUNAK

Nutria (Igaraba). *Lutra lutra*

Es de los mustélidos de mayor tamaño y el mejor adaptado a la vida acuática: cuerpo fusiforme, membranas interdigitales y cola larga y ancha, adaptaciones útiles para la natación. Su dieta está basada fundamentalmente en peces, anfibios y cangrejos, cuyos restos óseos, escamas o caparazones son fácilmente distinguibles en sus heces fecales, que deposita en las piedras que emergen en ríos y lagunas. Muestra una gran destreza en la captura de sus presas en el agua y habilidad para separar la piel rugosa de los sapos, de la masa muscular. En tierra, es de movimientos más torpes y cuando se alarma ante posibles peligros es capaz de ponerse en pie, apoyada sobre las patas traseras y cola. De carácter lúdico y juguetón, probablemente la persecución de que ha sido objeto, a causa de su preciada piel, le ha recluido en sus actuales hábitos nocturnos. Presente hasta hace casi una década en los ríos navarros de aguas limpias y con abundante vegetación, ha desaparecido prácticamente de todos ellos y sólo mantiene un núcleo de consideración en el Ega. Canalizaciones, dragados, contaminación, embalses y desaparición del cangrejo autóctono, han sido las causas de su alarmante retroceso, que ha convertido a esta especie en el símbolo de la fauna europea amenazada.

Igaraba (Nutria). *Lutra lutra*

Mustelido handienetakoa da eta hoberen egokitu dena uretara: gorputz fusiformea, hatzarteko mintzak, buztan luze eta zabala... guztiak ere igerian egiteko benetan baliagarriak diren egokitzeak. Igaraben elikagai funtsezkoenak arrainak, anfibioak eta karramarroak dira. Harrapakin horien hezur, ezkata edo oskolak antzeman daitezke, ibai eta urmaeletan urgaineratzen diren harrien gainean igarabek uzten dituzten gorozkietan. Harrapakinak trebetasun handiz harrapatzen dituzte urpean, eta aparteko abilezia dute apoei azala kentzen. Lurrean mugimendu traketsagoak dituzte, eta beren burua arriskuan ikusten badute, atzeko hanken eta buztanaren gainean zutik jartzeko gai dira. Oso jolastiak dira eta, ziurrenik, beren larruazal preziatua dela eta jasan dituzten jazarpenen ondorioz hartu dituzte gaur egungo ohitura gautarrak. Aurreko hamarkada bitartean bizirik iraun dute igarabek Nafarroan, ur garbia eta landare ugari zuten hainbat ibaietan. Gaur egun ordea, ia desagertu dira: Ega ibaian dago igaraben gun e bakarra. Atzerakada larri hori eragin duten faktoreak asko dira: bideratze eta dragatze-lanak, kutsadura, urtegiak, eta bertako karramarroaren desagertzea, besteak beste. Desagertzeko arriskuan dauden europar espezieen sinbolo bihurtu da igaraba.



MAMÍFEROS RIBEREÑOS

Visón Europeo (Uripurtatxa). *Mustela lutreola*

Es otro mustélido acuático cuya piel es la más preciada y que pocos se imaginan que forma parte de nuestra fauna salvaje. Conocido solamente desde los años 60 –aunque seguramente habitara antes– posiblemente mantenga contacto con las poblaciones de la zona atlántica francesa. Localizado inicialmente en ríos de la vertiente cantábrica, apareció recientemente en los de la mediterránea. De tamaño ligeramente más pequeño que un turón, es de aspecto muy parecido aunque de cabeza más fina y corta, con mentón y labio superior blanco y resto del cuerpo castaño oscuro. Membranas interdigitales y cola corta. Su alimentación consiste en peces, anfibios y ratas de agua.

Otro mamífero introducido de origen foráneo es el **Visón Americano** (*Mustela vison*), del que no hay constancia de poblaciones instaladas pero sí de ejemplares aislados en el medio natural. En situación idéntica a la del Coipú, su importación se debió a su cría en granjas de peletería, y su asilvestramiento a la fuga desde las mismas. Existe un grave riesgo de que la instalación del Visón Americano perjudique seriamente al Visón Europeo, especie autóctona con la que competiría. La responsabilidad del País Vasco en la conservación del Visón Europeo es máxima, ya que se trata de la única región de Europa occidental (junto con la costa atlántica francesa) donde esta especie se halla presente.



Bisoi europarra (Visón Europeo). *Mustela lutreola*

Uretako beste mustelidoa da bisoi europarra. Honen azala da preziatuena, eta askok ez dute pentsatuko gure faunako espeziea denik. 60ko hamarkadaz geroztik hemen bizi dela badakigu eta, ziur asko, lehenago ere hemen egongo zen. Litekeena da hemengo bisoiek Frantziako eremu atlantikoko bisoiekin konexioa izatea. Hasera batean, isurialde kantauriarreko ibaietan ikusi zituzten eta, geroago, isurialde mediterraneoan. Ipurtatsa baino pixka bat txikiagoak dira, baina antza handia dute. Bisoiak buru meheagoa dute, kokotsa eta goiko ezpaina zuriak dituzte, eta gorputza marroi iluna. Hatzarteko mintza dute eta buztan motza. Arrainak, anfibioak eta ur-arratoiak dituzte elikagai funtsezkoenak.

Bisoi Amerikarra (*Mustela vison*) kanpotik ekarritako espezie da, eta populazio egonkorrik ez dago, baina badakigu bakar batzuk bizi direla egoera naturalean. Koipuekin gertatu zen antzera, bisoi amerikarrak ekarri zituzten granjetan hazi eta haien larruazala saltzeko, eta espeziea basati bihurtu zen animalia batzuk ihes egin zutelako. Bisoi amerikarra mehatxu larria izan daiteke bertako bisoiarentzat, biak lehiatu beharko dute eta. Euskal Herriak erantzukizun itzela du bisoi europarraren kontserbazioan, Europa ekialdetik ia desagertu den espeziea baita (Frantziako eremu atlantikoan bakarrik irauten du).



Bisoi Amerikarra / Visón Americano



Koipu / Coipú (*Myocastor coipus*)

URERTZEKO UGAZTUNAK

Desmán Ibérico (Desman Piriniarra).*Galemys pyrenaicus*

Es un pequeño insectívoro de la familia de los topos que habita exclusivamente en aguas limpias de torrenteras y arroyos de montaña. Su rasgo morfoógico más característico es su corta trompa, gracias a la cual atrapa invertebrados acuáticos mientras bucea. En Navarra se encuentra presente en la mayoría de tramos trucheros. Por el contrario, en la Comunidad Autónoma Vasca vive en contadísimos enclaves.



Desman Piriniarra / Desmán Ibérico

Desman Piriniarra (Desmán Ibérico).*Galemys pyrenaicus*

Intsektujale txikia da, satorren familiakoa. Uharretan eta mendiko erreka garbietan soilik bizi da. Desman piriniarraren ezaugarri morfologiko nabarmenena bere tronpa laburra da. Urpean igerian dabilenean, tronpa horrekin harrapatzen ditu uretako ornogabeak. Nafarroan, amuarrainak dauden ibai-zati gehienetan daude desman piriniarrak, Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, oso leku gutxitan daude.

Rata de Agua (Mendebaldeko Ur-arratoia).*Arvicola sapidus*

Es el roedor más típico de los cauces, miembro de la familia de los topillos pero considerablemente más grande que éstos. Excava sus madrigueras en las orillas de ríos y lagunas. Se distribuye por todo el territorio. No debe ser confundida con el Coipú (*Myocastor coipus*), otro roedor herbívoro de origen sudamericano, introducido en Europa para su explotación en granjas peleteras y asilvestrado tras su escape o liberación de las mismas. Existe una población en el río Bidasoa y alrededores, que se ha asentado procedente de Francia.

Mendebaldeko Ur-arratoia
Rata de Agua**Mendebaldeko Ur-arratoia (Rata de Agua).***Arvicola sapidus*

Ibaietako karraskari ohikoenak da. Lursaguaren familiakoa da, baina nabarmen handiagoa. Ibai eta urmaletako ur-bazterretan zulatuz egiten du bere gordelekua. Lurralde guztian zabaltzen den espezia da. Ez da koipuekin (*Myocastor coipus*) nahastu behar. Karraskari landarejale hori Hegoamerikatik ekarri zen granjetan hazi eta haien larruazala saltzeko, eta espeziea basati bihurtu zen animalia batzuk ihes egin zutelako edo askatu zituztelako. Frantziatik etorri eta Bidasoa inguruan kokatu den populazioa egonkortu da.

Musgaños (Ur-Satitsuak). *Neomys s.p.*

De la familia de las musarañas, el Musgaño de Cabrera (*Neomys anomalus*) y el Patiblanco (*N. Fodiens*) son pequeños insectívoros vinculados a arroyos y sus riberas, tanto en la vertiente atlántica como en la mediterránea.

Ur-Satitsuak (Musgaños). *Neomys s.p.*

Cabrera Ur-satitsua (*Neomys anomalus*) eta Ur-satitsu Hankazuria (*N. Fodiens*) satitsuen familiako intsektujale txikiak dira. Erreka eta ibaien inguruan bizi dira, bai isurialde kantauriarrean, baita mediterraneoan ere.

Musgaño de Cabrera. *Cabreranur-satitsua. Neomys anomalus.*Musgaño Patiblanco. *Ur-satitsu Hankazuria. Neomys Fodiens.*

ARRAINAK


PECES





Arrainei buruz

Generalidades sobre los peces



Aspecto externo de tres especies presentes en nuestros ríos, con las secciones transversales de sus cuerpos y que ilustran los tipos morfológicos que se pueden observar.

La anguila (a), con su cuerpo alargado y cilíndrico.

El barbo (b), con su cuerpo fusiforme y sección elíptica.

Por último, la platija (c), con su cuerpo aplanado.
(según Román Montull).

Cure ibaietako hiru espezieren kanpoko itxura, haien gorputzetako zeharkako ebaketekin. Ikus daitezkeen morfologia-motak erakusten dituzte.

Aingira (a), gorputz luzexka eta zilindrikoarekin.

Barboa (b), gorputz fusiforme eta ebaketa eliptikoarekin.

Azkenik, platuxa (c), gorputz zapalarekin.
(Román Montullen arabera).

Curiosamente, para un taxónomo no existen “los peces” como grupo propiamente definido. Aunque a nivel popular nos resulta fácil intuir o definir a los peces, un científico distinguiría los ciclóstomos o lampreas, que no son peces por carecer de mandíbula inferior, y al resto que sí la tienen. Entre éstos, la siguiente división se establecería entre aquéllos con esqueleto cartilaginoso (condictios) y los que poseen esqueleto óseo (osteíctios). Los primeros son exclusivamente marinos, y agrupan a tiburones y rayas. Los segundos viven en aguas saladas, salobres o dulces, y engloban entre 20 000 y 30 000 especies. Así pues, el de los peces sería un grupo con valor más bien artificial.

Una característica morfológica de los peces es su cuerpo fusiforme, hidrodinámicamente adecuado para desplazarse por el agua.

Las aletas son los órganos propulsores y estabilizadores. Hay aletas:

- pares, como las pectorales y pélvicas,
- impares, como la anal, la dorsal y la caudal.

Según la simetría de esta última se diferencian colas:

- protocercas de las fases embrionarias;
- hetocercas, de los peces cartilaginosos;
- homocercas de los peces óseos.

La epidermis, delgada y mucosa, recubre las escamas.

La estructura interna es básicamente la misma que la de otros vertebrados.

Se puede destacar:

- La línea lateral, órgano longitudinal sensitivo que detecta cambios en la presión del medio.
- La vejiga natatoria, presente sólo en los peces óseos, funciona como una cámara de regulación, que se hincha cuando el pez se mantiene a flote y se deshinchacha cuando éste se va al fondo.
- La respiración se produce a través de las branquias, laminillas membranosas en las que se realiza el intercambio de gases, protegidas por un opérculo.
- Los peces tienen sexos separados, y su fecundación suele ser externa. La mortalidad de los huevos y alevines es muy grande: de miles de huevos fecundados, sólo algunos sobreviven.

Harritzekoa bada ere, taxonomoen iritziz arrainek ez dute talde bat osatzen. Hizkuntza herrikoia erabiltzen duenak, erraz sumatzen eta azaltzen du zer diren arrainak. Zientzialariak, ordea, zehaztuko du ziklostomoak edo lanproiak ez direla arrainak, ez baitute beheko barailarik, eta gainerakoek bai. Gainerako horien artean ere, bi talde bereiziko ditu: kartilagozko eskeletoa dutenak (konduktiek) eta hezurrezko eskeletoa dutenak (osteiktiek). Lehenengo taldekoak marrazoak eta arraiak dira, eta itsasoan bizi dira guztiak. Bigarren taldekoak ur gazi, gazikara eta gezetan bizi dira, eta 20.000-30.000 espezie dira guztira. Beraz, «arrainen multzoa» kontzeptu artifizial samarra da.

Arrainen ezaugarri morfologikoetako bat da uretan mugitzeko hidrodinamikoki aproposa den gorputz fusiformea izatea.

Arrainen zenbait hegats:

- bikoitiak dira (bular-hegatsak eta pelbis-hegatsak)
- beste batzuk bakoitiak (uzki-hegatsa, bizkar-hegatsa eta isats-hegatsa).

Simetriaren arabera, zenbait isats-hegats bereizten dira:


- isats-hegats protozerkoak (enbrioi-egoeran dauden arrainenak),
- hetozerkoak (kartilagozko eskeletoa duten arrainenak)
- homozerkoak (hezurrezko eskeletoa duten arrainenak).

Muki-mintz mehe batez osatutako epidermisak estaltzen ditu arrainen ezkatat.

Barne-egitura beste ornodunek dutenaren berdina da funtsean.


Baina aipatzekoa da:

- Saihetseko lerroa, inguruko presio-aldaketak antzematen dituen zentzumen-organo longitudinala.
- Igeri-maskuria arrain hezurdunek soilik duten erregulazio-ganbera da: arraina ur azalean egoteko puzten da igeri-maskuria, eta ondoratzeko husten da.
- Zakatzen bidez arnasten dute arrainek: gas-trukea egiteko erabiltzen dituzten mintz txikiak dira, operkulu batez babestuak.
- Arrainek sexu bereiziak dituzte eta ernalketa, gehienetan, kanpoko izaten da. Arrautzen eta arrainkumeen heriotza-tasa handia da: ernaldutako milaka arrautzetatik, bakar batzuk bakarrik irauten dute bizirik.




- a) Sudurzuloa; b) Zakatza; c) Begia; d) Bizkar-hegats hezurtsua; e) Bizkar-hegats kartilaginosoa; f) Saihetseko lerroa; g) Isats-hegatsa; h) Uzki-hegatsa; i) Hegats abdominala; j) Bihotza; k) Gibela; l) Urdaila; m) Igeri-maskuria; n) Obarioa
- a) Orificio nasal; b) Branquia; c) Ojo; d) Aleta dorsal ósea; e) Aleta dorsal cartilaginosa; f) Línea lateral; g) Aleta caudal; h) Aleta anal; i) Aleta abdominal; j) Corazón; k) Hígado; l) Estómago; m) Vejiga natatoria; n) Ovario

(Peter Grahnen arabera / Según Peter Grahnen)




(Román Montullen arabera / Según Román Montull)



Ibaietako arrain-familien siluetak.
(Ricardo de Juanaren arabera).

Siluetas de familias de peces fluviales.
(Según Ricardo de Juana).



Arrainen isats-hegats moten eskema.

Hegats horren bidez bereizten dira arrainak.

Isats-hegats **heterozerkoa** itsasoko espezieek baino ez daukate.

Isats-hegats **homozerkoa**, berriz, arrain-espezie gehienek dute.

Biak erabat beltzez ageri dira marrazkian.

Isats-hegats homozerkoak hainbat aldaera izan ditzake:

zuzena edo muxarratua izan daiteke, hala nola, izokinarena,

isats amuarrainarena, amuarrain arruntarena eta

ortzadar-amuarrainarena, platuxa latzarena

eta arrain hiruarantzarena;

konbexua, mazkarrarena eta gabuxinoarena, adibidez;

eta konkaboa, kolakarena, eskailuarena, loinarena,

zarbarena, barboarena, zamo txikiarena, buruzabalarena

eta perkarena, esaterako.

(Román Montullen arabera).

Esquema con los tipos de aleta caudal que se distinguen en los peces.

La aleta caudal **heterocerca**
está presente únicamente en especies marinas.

La aleta caudal de tipo **homocerca**
la presentan la mayor parte de las especies.

Ambas totalmente de negro en el dibujo.

La aleta caudal homocerca suele tener variantes
y así nos encontramos que puede ser:

recta o escotada, como en el salmón, reo,
truchas común y arco-iris, platija y espinoso;

convexa, como en la locha y el gabuxino;


cóncava, como en el sáballo, eskailu, loina, gobio,
barbo, carpín dorado, corcón y perca.

(Según Román Montull)


Euskal Herriko arrainak

Distribución de los peces

Cuadro de distribución de especies en cada vertiente, tramo del río, lagunas y embalses.

	Curso alto			Estuario	Mar
	Z. Superior	Z. Inferior		Se reproducen en el río	Se reproducen en el mar
V. Atlántica	trucha	trucha chipa locha loina anguila barbo común gobio*	 *reg. oriental	Corcón platija anguila espinoso	salmón reo sábalo alosa

Espezieen banaketa-taula, isurialde, ibaiaren eremu, aintzira eta urtegien arabera.

	Goiko bidea			Estuarioa	Itsasoa
	Goiko aldea	Beheko aldea		Ibaian ugaltzen dira	Itsasoan ugaltzen dira
Atlantiko isuria	amuarraina	amuarraina ezkailua mazkarra loina aingira barboa zarboa*	 *ekialdeko eskualdea	buruzabala platuxa latza aingira arrain hiruarantza	izokina itsas amuarraina kolaka kolaka

El origen y composición de la ictiofauna actual del País Vasco se remonta al período postglacial de la última glaciación. El casquete de hielos que avanzó desde el norte hacia el sur provocó la desaparición de numerosas especies de la fauna europea y obligó a muchas a sufrir migraciones hacia áreas más benignas, en dirección sur. Este proceso afectó, también, a los peces de agua dulce; así, la Península Ibérica fue un lugar de privilegio donde se concentraron gran número de especies, enriqueciendo, de alguna forma, la ya bien nutrida fauna ibérica.

Sin embargo, hay otras e importantes razones. En la Península y gracias a la diversidad de biotopos y condiciones climáticas y a su aislamiento geográfico, motivado por los Pirineos y el mar, se cuenta con numerosos endemismos o especies cuya área de distribución es exclusiva de aquella o se encuentran localizadas en enclaves concretos. Esto, unido a una variedad natural elevada, hace que la situación en la Península sea original en cuanto a ictiofauna se refiere, aunque, también, viene a suceder lo mismo con otros grupos de vertebrados.

El comienzo de la retirada de los hielos impone nuevas necesidades migratorias. La mayor parte de los ríos europeos están despoblados y muchas especies encuentran en ellos ambientes que les son propicios y en los que la competencia es, en principio, menor. Tal es así, que van siendo ocupados poco a poco. Comienza de esta forma un movimiento de especies que, algunos miles de años después, ha dado como resultado la actual situación y distribución de los peces de agua dulce ibéricos y europeos.

A medida que la fusión del casquete de hielos era mayor, las especies migraban hacia el norte. Parece ser que para ello aprovechaban, entre otros medios, la línea de costa, ya que la elevada cantidad de agua dulce que provenía de la fusión de los hielos daba lugar a la presencia de una estrecha franja costera de agua salobre dulce. Tal condición favoreció la expansión de especies como la Trucha, Anguila, Espinoso, etc.

Las migraciones de peces, en uno y otro sentido, se han dejado sentir, también, en el País Vasco. En efecto, la fauna ictiológica de agua dulce es muy variada y rica para el conjunto total, a pesar de que en los últimos años y debido a factores de contaminación, muchas especies han desaparecido de algunos cauces, desgraciadamente de demasiados, y otras se encuentran en una situación muy crítica. Este hecho se ha puesto de manifiesto, sobre todo, en la vertiente atlántica.

Euskal Herrian gaur egun daukagun iktiofauna azken izozte-aldiari zor diogu. Elur izoztuen estalkia iparraldetik hegoaldera zabaldu zenean, Europako espezie ugari desagertu zen eta beste asko hegoaldera joan ziren, toki epelagoen bila. Ur gezetako arrainengan ere eragin handia izan zuen izozteak: Iberiar penintsula bizileku atsegina zen arrain-mota askorentzat, eta espezie horiek lehenetik ere ugaria zen fauna iberikoa are gehiago aberastu zuten.

Aberastasun horrek, ordea, baditu aintzat hartzekoak diren beste arrazoi batzuk. Iberiar penintsulan, batetik, biotopo eta klima ugari dago, eta, bestetik, itsasoaz eta Pirinioez inguratutako lurraldea denez, beste lurraldeetan aurkitzen ez diren hainbat arrain daude. Peninsulako espezie endemikoak dira batzuk, eta beste batzuk, berriz, toki jakinen batean bakarrik bizi dira. Horrek guztiak, berezko ugaritasunari gehiturik, emaitza paregabea du: iktiofauna aparta, eta gainerako ornodun-multzoen artean ere antzeko ugaritasuna nabari da.

Elur-izotzak urtzen hasi zirenean, bestelako migrazio-mugimenduak sortu ziren. Europako ibai gehienak ia hutsik zeuden eta arrain-mota askorentzat bizi-giro egokia sortu zen ibai haietan, ia lehiarik gabea, hasiera batean behintzat. Beraz, hainbat espezie harantz joaten hasi ziren. Migrazio-mugimendu haien ondorioz, milaka urteren buruan, Iberiar penintsulan eta Europan gaur egun dugun ur gezetako fauna osatu da.

Garai hartan, izotzak urtzen ziren heinean, espezieak iparraldera egiten zuten. Horretarako, besteak beste, itsasertza erabiltzen zuten, antza. Elur-izotzak urtzean ur geza ugari itsasoratzen zen eta, sasoi hartan, itsasertzeko urak gazi-geza bihurtu ziren. Itsasertz hura zeharkatzen zuten, itxura denez, hainbat espeziek, Europa aldera joateko. Giro berezi haren ondorioz hedatu ziren hainbat espezie: amuarraina, aingira, arrain hiruarantza, etab.

Ur gezetako arrainen migrazioak Euskal Herrian ere nabarmenak izan dira eta, oro har, ur gezetako iktiofauna ugaria eta aberatsa da. Azken aldian, hala ere, hainbat espezie galdu egin dira zenbait erreka eta ibaitatik –gehiegitatik galdu ere!– kutsaduraren erruz; beste batzuetan, berriz, arriskuan daude. Kalte hori nabarmena izan da, batez ere, isurialde atlantikoan.

Diferencias entre las vertientes

Las diferencias actuales entre los peces de esta vertiente y los de la mediterránea son notables;

- los peces de la vertiente atlántica son de origen centroeuropeo y atlántico,
- los peces de la vertiente mediterránea son de origen mediterráneo.

Hay que tener en cuenta además, la desigual longitud de los ríos de una vertiente y otra, desde el nacimiento a la desembocadura, y la contaminación.

Tanto en una vertiente como en otra existen lagunas y embalses, aunque más frecuentes e interesantes en la mediterránea. Como además, las condiciones ambientales que se dan en una y otra vertiente son diferentes, la evolución que han seguido ha sido desigual, y el resultado final se traduce en una ictiofauna diferente e independiente.

Ríos atlánticos

En la vertiente atlántica faltan el curso medio y bajo de los ríos; éstos, tras un curso alto mas o menos largo, llegan a su desembocadura, al *estuario*. Eso motiva la ausencia de un grupo notable de especies, la de los **ciprínidos**.

A pesar de la ausencia generalizada de éstos, los estuarios favorecen la presencia de un grupo de especies interesante y típico, entre los que se destaca:

- el Sábalo,
- el Espinoso o
- el Corcón,

y la ocurrencia temporal de algunas especies que migran hacia el mar o hacia los cauces para reproducirse, como:

- Salmón,
- Reo o Trucha Marisca,
- Platija,
- Anguila, etc.

A pesar de todo, es evidente que la variedad de peces que se encuentra en este momento en los ríos de esta vertiente dista mucho de ser la de hace unos treinta años, cuando los efectos de la contaminación no se habían dejado sentir.

Ríos mediterráneos

Si los ríos de la vertiente atlántica son cortos, de aguas más o menos rápidas, y desembocan en el mar dando lugar a la formación de pequeños estuarios, por el contrario los ríos de la vertiente mediterránea son largos, sus aguas sólo son rápidas en un principio y después son lentas. Todos van a parar al Ebro.

Bi isurialdeen arteko ezberdintasunak

Gaur egun, isurialde atlantikoko ur gezetako arrainak eta isurialde mediterraneokoak ez dira berdinak:

- lehenengoak, jatorriz, Europatik eta Atlantikotik etorritakoak dira,
- bigarrenak, berriz, Mediterraneotik.

Gainera, kontuan hartu behar da isurialde bateko eta beste ibaiak ez dutela luzera berdina iturburutik itsasora bitartean, iparraldean laburragoak baitira eta hegoaldean luzeagoak, eta kutsadura ere ez da berdina alde bietan.

Bi isurialdeetan badira urmaelak eta urtegiak, baina hegoaldekoak ugariagoak eta handiagoak dira. Azkenik, alde batean eta bestean ingurugiroa ere berdina ez denez, bilakaera desberdina izan dute alde bakoitzeko arrainek eta, guzti horren ondorioz, iktiofauna bereziak eratu dira.

Isurialde atlantikoa

Kantauri itsasora doazen ibaietan erdialdea eta behealdea falta dira. Izan ere, ibai horiek, luzeagoa ala laburragoa izan daiteken goialdearen ondoren, berehala iristen dira ibai-ahora, *estuariora*.

Hain zuzen ere, horregatik ez da ia ageri ziprinidoen multzoko arrainik (zamoak, esate baterako). Ziprinidorik ia ageri ez bada ere, ibai-ahoetan bizi ohi diren multzoetako arrain ugari dugu hemen, esate baterako:

- kolakak,
- arrain hiruarantzak,
- hondoetako korrokoiak, etab.

Gainera, itsasorako bidean edota ibaian gora ugaltzera doazen arrain askok ere egonaldia egiten dute ibai-ahoan, hala nola:

- izokinak,
- itsas amuarrainak,
- platuxa latzak,
- aingirak, etab.

Hala eta guztiz, kutsaduraren eraginez, isurialde honetan duela hogeita hamar urte baino espezie gutxiago bizi da gaur egun.

Isurialde mediterranea

Kantauri itsasora doazen ibaiak laburrak, ur bizikoak, azkarrak eta berehala itsasoratzen direnak badira, Mediterraneora doazenak oso bestelakoak dira: luzeak dira, hasieran soilik dituzte ur bizi eta azkarrak, eta gero geldiagoak. Isurialde mediterraneoko ibai guztiek Ebrora isurtzen dituzte urak.

Especies

A continuación, se enumeran las diferentes especies que se encuentran en cada una de las divisiones o apartados que se han hecho con anterioridad.

En el **curso alto** es preciso distinguir entre:

- la zona de cabecera, *superior*, en la que vive exclusivamente la Trucha,
- y la zona algo más *inferior*, en la que viven la Trucha, Chipa o Ezkailu, Anguila y Locha;
- en la vertiente atlántica oriental y en esta parte del río vive, además, el Coto.

En el **curso medio** se pueden distinguir tres regiones:

- la inmediatamente *superior*, donde vive la Trucha, Anguila, Chipa o Ezkailu y Locha, y, en algunos ríos de la vertiente atlántica, el Salmón y la Trucha de Mar o Reo.
- En la *zona media* viven la Trucha, que encuentra ya su límite inferior, la Chipa, Loina o Madrilla, Locha, los barbos, el Gobio y la Anguila.
- En la zona inferior del curso medio, se encuentran además de estas últimas y con la excepción de la Trucha, los carpines Común y Dorado, la Colmilleja y Bermejuela.

En los pozos y represas mayores están la:

- Perca,
- Tenca y
- Carpa.

En el **curso bajo** se encuentran los barbos Común y de Montaña, la Loina o Madrilla, Chipa, Gobio, Tenca, Carpa, Carpines Común y Dorado, Cacho, Anguila, Perca, Lucio, Blenio de Río, Locha, Colmilleja y Bermejuela.

En los **estuarios** se encuentran la:

- Platija,
- Corcón,
- Sábalo,
- Anguila
- Espinoso.

Este último es muy escaso y se encuentra, más bien, en zonas de **marisma**.

En las **lagunas y embalses** se encuentra un elevado número de especies, en su mayor parte introducidas. Son frecuentes:

- Carpa,
- Tenca,
- Perca,
- carpines Dorado y Común,
- Lucio,
- Anguila,
- Loina,
- Barbo Común,
- Trucha Arcoiris
- Gambusia, en menor medida.

Espezieak

Erreka eta ibaietako arrainak aztertzeko, ibaien hiru aldeak bereiziko ditugu: goialdea, erdialdea eta behealdea.

Goialdeak bi zati ditu:

- batetik, goi-ibarra, soilik amuarrainak dituen,
- eta, bestetik, beherago dagoen zatia, espezie gehiago dituen, hala nola, amuarrainak, ezkailuak, aingirak eta mazkarrak.
- Isurialde atlantikoko mendebaldean burtainak ere bizi dira ibaien goialdean.

Erdialdeak hiru zati ditu.

- Goiko zatian amuarrainak, aingirak, ezkailuak eta mazkarrak bizi dira, eta, isurialde atlantikoko ibaie-tan, baita izokinak eta itsas amuarrainak ere.
- Erdiko zatian amuarrainak bizi dira (beherago ez ditugu jada aurkituko) eta beste hainbat espezie: ezkailuak, loina txikiak, mazkarrak, barboak, zarboak eta aingirak.
- Beheko zatian ere arrain horiek aurkitzen ditugu (amuarrainak izan ezik) eta beste espezie batzuk ere ageri dira: zamo txikiak, mazkar arantzadunak eta errutilo hegatsgorriak.

Osin eta ur bilduetan, berriz:

- perkak,
- tenkak
- eta zamo arruntak daude.

Behealdean barbo arruntak, mendi-barboak, loina txikiak, ezkailuak, zarboak, tenkak, zamo arruntak, zamo txikiak, iparraldeko katxoak, aingirak, perkak, lutxoak, blenioak, mazkarrak, mazkar arantzadunak eta errutilo hegatsgorriak daude.

Estuarioetan:

- platuxa latzak,
- korrokoia,
- kolakak,
- aingirak
- eta arrain hiruarantzak daude.

Azken hori oso gutxitan ikusten da eta, batez ere, **padu-retan** bizi da.

Urmael eta urtegietan espezie ugari dago, gehienbat gizakiek sartutakoak. Batez ere zamo arruntak:

- tenkak,
- perkak,
- zamo txikiak,
- lutxoak,
- aingirak,
- loina txikiak,
- barboak
- ortzadar-amuarrainak
- ganbusiak ere badaude, baina urriagoak dira.

SALMÓNIDOS

TRUCHA

Trucha de Río (Ibai-Amurraína). *Salmo trutta fario*

La Trucha de Río es la forma no migradora de la especie *Salmo trutta*.


Por el contrario, la Trucha Marisca o Reo (*Salmo trutta trutta*) es migradora anadroma, es decir, vive habitualmente en el mar o en estuarios y penetra en los ríos para reproducirse. La Trucha Arco-iris es una especie foránea, que se diferencia de la autóctona por carecer de pintas rojas oceladas.

La Trucha de Río es la reina de la pesca fluvial merced a su bravura y su valor gastronómico.

Es una especie muy exigente en lo que a calidad del agua se refiere, soportando sólo caudales bien oxigenados, temperaturas bajas y niveles de contaminación mínimos. Por estos motivos, sus hábitats preferidos son los arroyos y ríos de montaña, en los que viven sedentarias y territoriales, salvo desplazamientos reproductivos hacia los frezaderos. Como el resto de los salmónidos, es un voraz depredador de macroinvertebrados acuáticos y otros animalillos.

Aunque su distribución natural abarcaría la mayoría de los cauces fluviales del territorio, tanto en la vertiente cantábrica como en la mediterránea, el acusado deterioro de calidad de las aguas hace que en la práctica se encuentre sólo en cabeceras. Los vertidos urbanos e industriales impiden su asentamiento en muchísimos tramos.

La gestión piscícola de esta especie se basa, en muchos acotados, de hecho, en la pesca sin muerte (devolución de las piezas capturadas vivas al río) o en la repoblación y suelta de los ejemplares.




Ibai-Amurraína (Trucha de Río). *Salmo trutta fario*

Salmo trutta espezieko amuarrain ez migratzailea da ibai-amurraína.

Itsas amuarraina (*Salmo trutta trutta*), berriz, migratzaile anadromoa da: itsasoan bizi da eta ibaietara joaten da ugaltzera. Ortzadar-amuarraina kanpotik etorritako espeziea da, bertakoek dituzten orban gorrixka ozelaturik gabea.

Ibai-amuarraina da ibai-arrantzako espezie nagusia, arrain kementsua delako eta balio gastronomiko handia duelako. Kalitate oneko ura behar du, ondo oxigenatua, hotza eta gutxi kutsatua. Beraz, mendiko erreka eta ibaiak atsegin ditu. Espezie sedentarioa da, inguru batean bizitzen da eta ugaltzeko bakarrik mugitzen da handik. Beste salmonidoen antzera, gogoz jaten ditu ibaietan bizi diren ornogabe handiak eta beste animaliatxoak.

Ibai-amuarrainarentzat egokiak lirateke, berez, lurralde guztiko ibai gehienak, baina bi isurialdeetako urak –bai isurialde kantaauriarrekoak, bai mediterraneokoak– oso kaltetuak daudenez, goi-ibarretan bizi da soilik. Isurketa urbano eta industrialen eraginez, ibai zati askotan ezin da bizi. Espezieak bizirik iraun dezan, hainbat eremu babestuetan amuarrainak arrantzatu ostean ibaira itzuli behar dira eta, gainera, amuarrain ugari askatu dute erreka eta ibaiak birpopulatzeko.



IZOKINAK

AMURRAINA



Trucha Marisca, de Mar o Reo (Itsas Amurraina).

Salmo trutta trutta.

El Reo puede alcanzar hasta casi 1 m de longitud total.

Es una especie que vive en el mar y acude a los ríos para reproducirse, como el Salmón;

puede ser confundida, morfológicamente con éste.

Ambos tienen unas costumbres muy parecidas, sobre todo en lo que se refiere a su reproducción, aunque a veces el Reo es mucho más reacio a abandonar el agua dulce y permanece en los ríos por más tiempo.

El estado de conservación de la Trucha Marisca no es muy halagüeño, ya que ha sufrido una regresión en las últimas décadas, achacada también a la contaminación.

Es un pez raro que sólo aparece en algunos ríos y estuarios de la costa vasca.

Itsas Amurraina (Trucha Marisca, de Mar o Reo).

Salmo trutta trutta.

la metro bat luze izatera iristen da itsas amurraina.

Itsasoan bizi bada ere, ibaietara sartzen da errutera, izokinaren antzera. Bi espezieak tankera berdintsua dutenez, biak nahastea ere ez da harritzekoa.

Ohitura berdintsuak dituzte biek, batez ere errunaldiari dagokionez; hala ere, itsas amurrainak luzaroago irauten du ur gezetan.

Kutsaduraren ondorioz, itsas amurrain gutxiago dago azken hamarkadetan. Arrain urria da, zenbait ibaietan eta euskal itsasertzeko estuario batzuetan soilik ageri da.



SALMÓNIDOS

SALMÓN

Salmón (Izokia). *Salmo salar*

El Salmón es una de las especies que mayor tamaño llega a alcanzar: los machos pueden llegar al metro y medio, con 35 kg de peso, mientras que las hembras son algo menores, 1-2 m y 20 kg. de peso. A pesar de esto, el tamaño de los salmones que se llegan a capturar es muy inferior.

Esta especie vive en el mar y únicamente acude a los ríos para reproducirse. Con las primeras riadas, a mediados de noviembre y hasta la primavera, el Salmón se dirige a las zonas del río donde nació. Con gran potencia asciende por los ríos, salvando obstáculos como presas, etc., dejando totalmente de alimentarse. Las hembras realizan la puesta, que consta de unos 5.000 huevos, en hoyos que ellas mismas han excavado entre la grava del fondo del río; los machos fertilizan los huevos y los protegen durante el tiempo que dura su incubación.

Extenuados por el esfuerzo realizado y víctimas de infecciones de hongos, se dejan arrastrar por la corriente hacia el mar. Desgraciadamente, son muy pocos los que consiguen sobrevivir, ya que se estima que sólo lo consigue el 5% del total que ascendió al río. Los jóvenes viven unos cinco años en el río, alimentándose de insectos, crustáceos y pececillos; aquí crecen con lentitud, pero cuando van al mar lo hacen con rapidez. El Salmón suele capturar arenques, espinosos, lanzones y crustáceos; es muy voraz.

Esta especie, frecuente hace algunos años en nuestros ríos, es susceptible de desaparición si no se toman medidas drásticas para su conservación; en este sentido es de destacar la labor que se está desarrollando en la región oriental del país para su conservación.

Izokia (Salmón). *Salmo salar*

Ur gezetako espezien artean handienetakoa da izokina: metro eta erdiko luzera eta 35 kilogramoko pisua izatera irits daitezke arrak; emeak gutxiago, 1,20 m luze eta 20 kg inguru. Hala ere, harrapatu eta jaten ditugunak askoz ere txikiagoak izaten dira.

Itsasoan bizi da, eta errute-aldian bakarrik igotzen da ur gezetara. Azaroaren erdialdean, lehenengo uholdeekin batera, ibaian gora igotzen da izokina sorlekuraino, udaberrira arte bertan irauteko. Eragozpen handiak gaindituz igotzen da ibaian gora, urtegi edo presak etab. gaindituz, alegia. Bitarte horretan jateari ere uzten diote izokinek. Emeek 5.000 arrautza inguru erruten dituzte, ibai hondoko hartxintzarren artean egiten dituzten zuloetan. Arrek ernaltzen dituzte arrautzak eta baita zaindu ere, izokinkumeak jaio bitartean.

Egindako ahalegin handiaren ostean eta onddoek eragindako gaixotasunek jota, ur-lasterrak eramaten ditu izokinak itsasora. Tamalez, oso gutxi dira itsasoko ur gazietara bizirik iristen direnak: igo ziren izokinetatik %5 baino ez. Izokin gazteak, berriz, bost urtez bizi ohi dira ibaietan. Intsektuak, krustazeoak eta arraintxoak jaten dituzte eta oso astiro hazten dira ibaietan, itsasoratzean, ordea, berehala hazten dira. Jatun handia da izokina: sardinzarrak, arrain hiruarantzak, lantzoak eta krustazeoak jaten ditu.

Orain urte batzuk gure ibaietan izokin ugari bizi zen, gaur egun, ordea, galtzeko zorian dago, neurri zorrotzak hartzen ez badira, behintzat. Izokinen iraupena bermatzearen, eginahal handiak egiten ari dira Ipar Euskal Herrian.



IZOKINAK

IZOKIA



CICLO BIOLÓGICO DEL SALMÓN ATLÁNTICO

El Salmón atlántico es un *migrador anádromo*, es decir, que efectúa la reproducción y el crecimiento juvenil en los ríos de agua dulce y el alcance de la madurez sexual y crecimiento hasta el estado adulto en el mar.

La reproducción

El inicio del proceso reproductor se efectúa en otoño y tiene una duración aproximada de unos 3 meses, desde noviembre a enero. Los salmones van a reproducirse al río en que nacieron y pasaron su etapa juvenil, con un porcentaje de fidelidad muy elevado, ya que son muy pocos los individuos que no entran en el río que les corresponde.

Entrada en el río

La entrada en el río se produce escalonadamente y tiene lugar a lo largo de todo el año, aunque se produce de forma preferente a partir de verano.

Ya en primavera entran los primeros ejemplares, salmones de primavera,

- los salmones-trucha o añales entran a lo largo del mes de junio y
- los salmones de verano a partir de este mes.

La entrada hacia el estuario se produce como respuesta a determinados factores físicos y químicos del agua, como son las corrientes de las mareas y las características químicas del agua del río, que influyen de forma notoria también, como responsables de la localización del río de origen de los salmones; la entrada es muy lenta, ya que requiere de las adaptaciones pertinentes a los cambios de salinidad del agua.

De la misma forma, el ascenso río arriba es lento y lleva consigo paradas que pueden ser más o menos largas y que se interpretan como consecuencia de los cambios fisiológicos que ocurren en el organismo para su adaptación al agua dulce.

Entre estos cambios hay que mencionar dos:

- por una parte, los salmones dejan de alimentarse, como consecuencia de la degeneración parcial de su tubo digestivo. Con anterioridad, han acumulado grandes reservas de grasa que les permitirá disponer de las calorías necesarias.
- Por otra parte, la mandíbula inferior de los machos crece desmesuradamente y forma un repliegue hacia arriba.

Atlantikoko izokina migratzaile anadromoa da: erreka eta ibaietako ur gezetan jaio eta han igarotzen du gaztaroa. Gero, itsasora joaten da; han hazten da eta sexu-heldutasuna lortzen du.

Ugaltze-prozesua

Ugaltze-prozesua udazkenean hasten da eta hiru hilabete inguru irauten du (azarotik urtarrilera). Ia beti, izokinak jaiolakura itzultzen dira ugaltzera, oso gutxi dira beste ibai batera joaten direnak.

Ibairatzea

Ibairatzea pixkanaka egiten dute urte osoan, baina, batez ere, uda ostean. Udaberria aldera sartzen dira lehen izokinak (udaberriko izokinak):

- izokin-amuarrainak ekainean sartzen dira,
- eta handik aurrera udako izokinak.

Estuarioan sartzen dira, uraren ezaugarri fisiko eta kimikoei erantzunez. Itsaslasterrak eta ibaiko uraren ezaugarri kimikoak, besteak beste, lagungarri dira, izokinek ezagutu dezaten zein den euren jatorrizko ibaia. Ibairatzea prozesu luzea da, uraren gazitasun-maila ezberdinetara egokitu behar baitute izokinek. Ibaian gora ere poliki joaten dira, geldialdiak egiten dituzte –laburrak edo luzeagoak– ur gezetara egokitze beharrezkoak diren aldaketa fisiologikoei denbora behar baitute.

Aldaketa horien artean, aipatzekoak dira ondorengo biak:

- batetik, izokinek jateari uzten diote (horretarako, aldezturik gantz-erreserba handiak pilatu dituzte, gero kaloriorik erabili ahal izateko);
- bestetik, arren beheko baraila asko handitzen da, eta gorantz tolesten da.

ATLANTIKOKO IZOKINAREN ZIKLO BIOLOGIKOA



Los frezaderos

Los frezaderos o lugares en los que tiene lugar el desove o la puesta de huevos se reconocen por varios factores, aunque su comprensión no es del todo total en la actualidad. En gran medida intervienen factores olfativos y las feromonas producidas por los ejemplares maduros sexualmente ya ubicados en las zonas de reproducción.

Los frezaderos poseen varias características comunes, como son:

- la escasa profundidad del agua, por debajo del medio metro, la elevada velocidad de la corriente del agua, en torno a 60-80 cm/s, y
- la presencia de un suelo semicubierto de piedras cuyo diámetro medio oscila en torno a los 5 cm.

Machos y hembras emiten simultáneamente óvulos y esperma y la fecundación alcanza, por lo general, una tasa superior al 90%, que se puede considerar como muy elevada.

El número de huevos y su tamaño está determinado por características genéticas y por el tamaño de las hembras; por término medio, ponen entre 1.500 y 2.000 huevos por kg de peso. Por tanto, una hembra de 10 kg de peso pondrá unos 18.000 huevos.

Erruteko lekua

Erruteko lekua aukeratzean, hainbat faktorek eragina dute. Prozesua oraindik guztiz ezagutzen ez bada ere, nabarmena da usaimena funtsezkoa dela, eta ugaltzeko lekuetan dauden izokin helduen feromonek ere garrantzi handia dutela.

Zenbait ezaugarri izaten dituzte erruteko lekuek:

- uraren sakonera eskasa izaten da (metro erdi bat baino gutxiago), abiadura handia izaten du urak (60-80 cm/s)
- eta bost zentimetro inguruko diametroa duten harriek estaltzen dute hondoaren parte bat.

Arrek eta emeek aldi berean isurtzen dituzte obuluak eta esperma, eta ernaltze-tasa oso altua izan ohi da, %90etik gorakoa.

Ezaugarri genetikoek mugatzen dute arrautzen kopurua eta tamaina; oro har, 1.500-2.000 arrautza jartzen dute kilogramo bakoitzeko. Beraz, hamar bat kilo pisatzen duen izokin eme batek 18.000 arrautza inguru jarriko ditu.

CICLO BIOLÓGICO DEL SALMÓN ATÁNTICO

Las tasas de mortalidad de los jóvenes en sus primeros meses de vida es muy elevada, como ocurre en todos los salmónidos, y alcanza valores superiores por término medio al 90%.

La reproducción en sí misma y los complicados procesos fisiológicos que permiten al salmón la vida en agua dulce incide directamente en su supervivencia y provocan una mortandad muy elevada. El mayor porcentaje de supervivientes está a favor de las hembras y varía entre el 25 y el 50%; los machos, por el contrario, tienen una tasa de mortalidad en torno al 95%. Los individuos sobrevivientes regresan al mar.

El alevín

El alevín de salmón es muy territorial, representando este hecho uno de los principales factores de regulación de la densidad de pobladón.

Pintos

Los jóvenes pasan de 1 a 2 años en el río, periodo en el que se denominan pintos.

Esguines. Proceso de esmoltificación

Transcurrido este periodo sufren un proceso denominado esmoltificación, que conlleva cambios morfológicos, fisiológicos y etológicos, y que va a permitir a los nuevos esguines la vida en el mar; es decir, los pintos se transforman en esguines a través del proceso de esmoltificación.

Entre los *cambios morfológicos* hay que citar la adquisición de una librea plateada y un cuerpo más fusiforme, mejor adaptado a la natación y a la vida en el mar.

Los *cambios fisiológicos* afectan al control del balance hídrico y de sales minerales del animal, la osmorregulación, y es uno de los más importantes que tienen lugar en el organismo. Hay que pensar que si este cambio no se produjera, tras un corto periodo de vida en agua salada, estos animales morirían por deshidratación, ya que la diferencia de concentración de sales entre el cuerpo y el medio y la falta del mencionado sistema de control del intercambio hídrico provocarían la paulatina pérdida del agua del animal, que no se vería compensada por la ingestión del alimento.

Finalmente, hay un *cambio de comportamiento* que es digno de mención; como hemos mencionado, los jóvenes salmones son muy territoriales. Pues bien, una vez en el mar, se comportan como gregarios, tanto para la búsqueda de alimento como en sus desplazamientos.

El proceso de esmoltificación no ocurre al azar, sino que se produce en un momento determinado de la vida del animal, cuando alcanza una talla determinada, y ante determinadas circunstancias ambientales, de temperatura y duración del día, etc. En el río Bidasoa, este proceso se lleva a cabo cuando los pintos tienen uno o dos años de vida, mientras que en latitudes más septentrionales ocurre cuando poseen 3,4 y hasta 5 años de vida.

Gainerako salmonidoen antzera, izokin txikien heriotza-tasa oso handia da lehen hilabeteetan, %90etik gorakoa, batez beste.

Ugaltzeko egin behar dituzten ahaleginek eta ur gezetan bizitzeko behar dituzten prozesu fisiologiko konplexuek heriotza-tasa handia dute ondorio. Izokin emeen %25-50 bizirik ateratzen da, baina ia ar guztiak hiltzen dira (%95 inguru). Bizirik irauten dutenak itsasora itzultzen dira.

Izokinkumea

Lutxo arrunta (Lucio). *Esox lucius*

Arrain luzea da lutxoa: 90 cm-ko luzera izaten du, eta metro bat edota metro eta erdi izatera ere irits daiteke.

Aintzira eta urmaeletan sartu zuten aspaldi, eta ibaien behealdeko ur bareetan ere bizi da.

Arrain bakartia da eta harrapari aparta: landare artean ezkutatzen da eta harrapakinen bat pasa zain egoten da, mugimendu azkar batez bat-batean harrapatzeko. Jatun handia da eta, sarritan, bere espeziekoak ere jaten ditu. Arrainak jaten ditu, eta bere pisuaren erdia dutenak ere harrapatzen ditu. Arrain harrapariaren eredu argia da.

Otsailetik maiatzera bitartean erruten du, oso sakonak ez diren uretan eta landare artean. Eme bakoitzak 20.000-80.000 arrautza jar ditzake. Arrautzetatik ateratzen diren larbek egun batzuk egiten dituzte uretako landareen hostoei erantsita.



ESPECIES INTRODUCIDAS

Trucha Arco-iris (Ortzadar Amuarraina).

Oncorhynchus mykiss

La Trucha Arco-iris suele medir unos 25-50 cm, pudiendo llegar a alcanzar un máximo de 70 cm.

Es una especie americana que se introdujo en los ríos por su mayor tolerancia a la temperatura y resistencia a concentraciones más bajas de oxígeno.

Sin embargo, y dada su falta de adaptación a las condiciones de nuestros ríos, no llega a reproducirse y, por tanto, las repoblaciones que se venían realizando con esta especie se han dejado de efectuar, salvo raras excepciones.

Hoy día, se explota comercialmente en las piscifactorias.

Los alevines suelen ser víctimas de multitud de depredadores, y aunque en las piscifactorías carecen de ellos, una nueva especie los ha incluido en su dieta como presa habitual, el **Martín Pescador**.

Es frecuente que en las inmediaciones de aquéllas se instalen gran número de parejas de esta especie.

Las jóvenes truchas sienten la necesidad de acudir al mar, al cabo de unos dos años, al igual que lo hace la especie originaria de América: éste es uno de los motivos por los que la reproducción en el río no tiene continuidad ni éxito ulterior, en los pocos casos en que se ha llegado a producir.

En este sentido, la Trucha Arco-iris es comparable a la **Trucha Marisca** o **Reo**, ya que tiene unas costumbres similares.

Los ejemplares que viven en condiciones naturales en nuestros ríos, suelen ocupar el curso alto y el curso medio.

Ortzadar-amuarraina (Trucha Arco-iris).

Oncorhynchus mykiss

25-50 cm-ko luzera izan ohi du ortzadar-amuarrainak eta, gehienez ere, 70 cm-ko luzera hartzen du.

Kaliforniatik ekarritako espeziea da eta 1890ean sartu zuten gure ibaietan, tenperatura aldaketei eta oxigeno eskasiari aurre egiteko gai delako. Hala ere, gure uretan ez du giro egokirik aurkitu, antza, eta ez da ugaltu. Emaizak ikusita, espezie honekin egiten ziren birpopulaketak ez dira jada egiten, salbuespenak salbuespen.

Gaur egun arrain-haztegietan ustiatzen dituzte.

Ortzadar-amuarrainen kumeak mokadu goxoa dira harrapari askorentzat. Arrain-haztegietan ez dago harraparik, baina arerio berri bat atera zaie: **martín arrantzalea**. Espezie horren ohiko janari bihurtu dira ortzadar-amuarrainak, eta arrain-haztegien inguruan martin arrantzale bikote ugari biltzen da.

Ortzadar-amuarrain gazteek, bi urteren buruan, itsasora joateko grina izaten dute, Amerikan egiten duten antzera. Hori da, hain zuzen ere, ibaietan egindako ugalketa urrien arrakasta eskasaren arrazoietakoa bat. Itsas amuarrainaren antzeko ohiturak ditu ortzadar-amuarrainak. Gure ibaietan aske uzten dutenean ibaien goialdean eta erdialdean bizi da.



SARTUTAKO ESPEZIEAK



HEGAZTIAK

LAS AVES





Estuarioko hegaztiak

Aves de estuario

En el País Vasco, enclavado en un continente ornitológicamente pobre como es Europa, contamos con unas 90 especies de aves ligadas al medio fluvial y palustre. De éstas sólo 35 especies se reproducen en Euskal Herria, mientras que el resto pasan el invierno en nuestra tierra o la atraviesan en sus desplazamientos migratorios.

Al estudiar el medio fluvial y las comunidades orníticas asociadas a éste, se ha de destacar en primer lugar que el río es mucho más que una simple corriente de agua.

La existencia de taludes terrosos donde excavar los nidos:

- la presencia de masas de carrizo o espadaña
- y de una ripisilva o bosque de ribera que, desde las estrechas alisedas de montaña.
- A las alamedas y choperas de llanura bordea el río y sirve de refugio para las aves, junto con los recursos tróficos que ofrecen las aguas, condicionan la composición de la comunidad ornítica fluvial.

Ornitologikoki urria den Europan kokatua dago Euskal Herria, eta ibai nahiz paduretako laurogeita hamar bat espezien bizileku da. Espezie horietatik hogeita hamabost soilik ugaltzen dira Euskal Herrian. Gainerakoek negua igarotzen dute gure lurraldean, edo hemendik pasatzen dira migrazio-ibilbidea egiteko.

Ibaiak eta haien inguruko hegazti-espezieak aztertzean, aipatu behar da, lehenik eta behin, ibaia ez dela ur hutsa. Ibaietako hegazti-komunitatearen eraketa baldintzatzen duten hainbat elementu daukade:

- lurrezko ibaiertz malkartsuak egotea (haietan zulatu eta habiak egiteko),
- hegaztien babesleku diren lezkadiak
- eta ibar-basoak egotea ibai ondoan (haltzadi estuak mendietan, lautadetako lertxundi eta makaladiak lautadetan), eta ibaiak eskaintzen dituen baliabide trofikoak (elikagaiak) egotea.

Casi todas las aves de los cursos superiores del río pueden observarse en la marisma en una u otra época del año. En las aguas libres, ricas en peces y crustáceos, las especies buceadoras que capturan sus presas bajo el agua como:

- cormoranes (*Phalacrocorax carbo*),
- colimbos (*Gavia s.p.*),
- somormujos (*Podiceps s.p.*) y
- serretas (*Mergus s.p.*),

Se ven complementadas por aves que actúan desde el aire sobre peces de las aguas superficiales.:

- gaviotas (*Larus s.p.*) y
- charranes (*Sterna s.p.*),

Aguas someras y charcas rodeadas de vegetación son el hábitat preferido por:

- garzas (*Ardea s.p.*)
- garcetas (*Egretta garzetta*),
- martinetes (*Nycticorax nycticorax*),
- zampullines (*Podiceps ruficollis*),
- fochas (*Fulica atra*),
- gallinetas (*Gallinula chloropus*) y
- ánades (*Anas s.p.*),

Ibaietako ibilbidearen azken zatiko hegazti gehienak paduran ikus daitezke urte-garai batean edo bestean. Ur libreak aberatsak dira arrain eta krustazeoetan; haietan hainbat arrain murgilari ikus daitezke. Hegazti horiek uraren azpian harrapatzen dituzte arrainak hala nola:

- ubarroak (*Phalacrocorax carbo*),
- aliotak (*Gavia s.p.*),
- murgilak (*Podiceps s.p.*) eta
- zerrak (*Mergus s.p.*),

Haien ondoan airetik aritzen diren uraren azaleko arrainen gainean mokoka:

- kaioak (*Larus s.p.*) eta
- txenadak (*Sterna s.p.*),

Ondorengo hegazti hauek, berriz, ur ez oso sakonak eta landaretzaz inguratutako urmaelak dituzte gustuko habitat:

- lertxunak (*Ardea s.p.*)
- lertxuntxoak (*Egretta garzetta*),
- amiltxoriak (*Nycticorax nycticorax*),
- txilinportak (*Podiceps ruficollis*),
- kopetazuriak (*Fulica atra*),
- uroiloak (*Gallinula chloropus*) eta
- ahateak (*Anas s.p.*),



Encuentran en ellas los animales y plantas que precisan en su dieta.

Muchas de estas especies se refugian y anidan en los carrizales junto con:

- rascones (*Rallus aquaticus*),
- polluelas (*Porzana s.p.*),
- avetoros (*Botaurus stellaris*),
- carriceros (*Acrocephalus s.p.*).

Otras especies que pasan casi toda su existencia en la espesura.

Por último, por las ricas y amplias playas de limo pulula una increíble variedad de

- limícolas que se reparten el fangal en función de la longitud de sus picos y patas, acompañados muchas veces por
- gaviotas y
- garcetas.

A estas aves eminentemente acuáticas se les suman:

- fringílicos,
- páridos,
- túrdidos,
- rapaces,
- alaúdidos y
- otras especies que usualmente viven en medios terrestres pero que se sienten atraídos por los recursos que puntualmente les ofrece la marisma.

También durante sus migraciones muchas aves se sedimentan en la marisma durante todas las épocas del año, pero especialmente en otoño e invierno, los carrizales sirven de dormitorios comunales a

- lavanderas,
- escribanos,
- golondrinas
- y sobre todo a los inmensos bandos de estorninos que durante el día comen en campos y cultivos y por la noche buscan la seguridad del carrizal.

La densidad de aves que se alcanza en las marismas vascas varía enormemente de una estación a otra, pasando del verano en el que la marisma aparece casi desierta al bullir de limícolas, garzas, patos y gaviotas que se produce en invierno y especialmente durante las migraciones otoñal y primaveral. Es en estas estaciones cuando se revela la extraordinaria importancia que las marismas vascas tienen para las migraciones de las aves ribereñas europeas y como áreas de invernada secundarias en los crudos inviernos que obligan a las aves a huir de las marismas de la Europa atlántica.

De las antaño abundantes marismas que orlaban el litoral vasco, sólo tres conservan muestras representativas del ecosistema, aunque en un estado precario:

- Txingudi,
- Urdaibai
- y Baiona

Ur horietan aurkitzen dute bere dietan beharrezko dituzten animaliak eta landareak.

Espezie hauetako askok lezkadien artean aurkitzen dute babesa eta egiten dute habia:

- uroilanda handiak (*Rallus aquaticus*),
- uroilandak (*Porzana s.p.*),
- txori zezenak (*Botaurus stellaris*),
- lezkariak (*Acrocephalus s.p.*),

Beste espezie batzuk landaretzaren trinkotasunean ematen dute ia bizitza osoa.

Azkenik, lohietako hondartza aberats eta zabaletan lohietako hegazti-espezie ugari ibiltzen da.

- Zangoen eta mokoaren luzera nolakoa, hala banatzen dute lupetza hegazti horiek. Ondoan izaten dituzte sarri
- kaioak eta
- lertxuntxoak ere.

Hegazti hauek uretakoak dira erabat. Inguruan izaten dituzte

- fringílicak,
- parídicak,
- túrdicak,
- harrapariak,
- alaúdicos
- eta, normalean, lehorrean bizi arren, padurak eskaintzen dizkien baliabideen erakarrita itsasertzera hurbiltzen diren beste espezie batzuk.

Beste hegazti asko, migrazio bidean direla, paduran geratzen dira urte-saso guztietan, baina batez ere udazkenean eta neguan. Lezkadietan etzaleku komunalak antolatzen dituzte

- buztanikarek,
- berdantzek,
- enarek eta, batez ere,
- arabazozo-banda izugarriak. Egunez, soro eta larreetan jaten dute arabazozo horiek eta gauez lezkadietan bilatzen dute babesa.

Euskal Herriko paduretan bizi diren hegaztien dentsitatea asko aldatzen da urte-garai batetik bestera: udan, ia basamortua ematen du padurak; neguan, eta, batez ere udazkeneko eta udaberriko migrazioetan, aldiz, lohietako hegaztien, lertxunen, ahateen eta kaioen izugarritzko zalaparta egoten da. Urte-saso horretan geratzen da agerian Euskal Herriko padurak zein garrantzitsuak diren Europako ibaietako hegaztien migratorako. Eta, negu gorrian Europa atlantikoko paduretatik ihes egin behar duten hegazti askorentzat negualdia igarotzeko bigarren mailako babesleku ere badira gure padurak.

Antzina, padura ugari zeuden euskal itsasertzean, baina egun hirutan baino ez da gordetzen ekosistemaren adibide aipagarriarik. Hirurak, gainera, nahikoa egoera oinarritzkoan daude. Hauek dira:

- Txingudi,
- Urdaibai
- eta Baiona.

AVES DE ESTUARIO - ESTUARIOKO HEGAZTIAK

Podicipédidas (somormujos y zampullines)

Vistas de lejos, recuerdan a las anátidas mientras nadan en la superficie de lagunas y remansos de grandes ríos, o en embalses. Sin embargo, pronto podremos distinguirlas de ellas sobre todo por sus picos, que nos hablan claramente de su alimentación.

La forma de puñal nos indica una dieta depredadora: sin desdeñar insectos, moluscos o plantas acuáticas, somormujos y zampullines son fundamentalmente depredadores de anfibios y peces de pequeño y mediano tamaño, a los que ensartan sumergidos a gran profundidad se ayuda de sus dedos lobulados —otra diferencia con las anátidas, de patas palmeadas—.

Son excelentes buceadores, se alimentan en las zonas más hondas, alejadas de las orillas, por lo que a pesar de tener la misma dieta alimenticia que garzas y garcetas, no compiten entre sí. Las garzas pescan donde sus largas patas y cuello se lo permiten, en las orillas, por lo que resultan especies complementarias.

Podizipedidoak (murgilak eta txilinportak)

Urrutitik ikusita, anatidoen antza dute, urmaeletan, ibai handietako urloetan edo urtegietan igeri egiten dutenean. Hala ere, berehala bereiziko ditugu, batez ere beren elikagaiak zein diren salatzen duten mokoengatik. Txilinportek eta murgilek sastakai itxurako mokoak dituzte, eta horrek adierazten du harrapariak direla: ur sakonetan harrapatzen dituzte anfibioak eta arrain txiki nahiz ertainak, hatz lobulatuen laguntzaz. Hortxe datza, hain zuzen ere, anatidoekiko beste desberdintasuna, oin palmatuak baitituzte anatidoek, eta ez hatz lobulatuak.

Urpekari apartak dira eta ur sakonetan bilatzen dute jatekoa, urertzetik urrun. Lertxun eta lertxuntxoek arrantzatzen dituzten harrapakin berdinak jaten dituzte baina, hala ere, ez dute elkarrekin lehiatzen. Ondo konpontzen dira, lertxun eta lertxuntxoek sakonera eskaseko ur-bazterretan harrapatzen baitute jatekoa, hanka eta lepo luzeen laguntzaz.



AVES DE ESTUARIO

PODICIPÉDIDAS (SOMORMUJOS Y ZAMPULLINES)

Zampullín Cuellinegro (Txilinporta lepabeltza).

Podiceps nigricollis

Ha sido una especie ocasionalmente incorporada a la lista de acuáticas nidificantes en Navarra. Confirmada en 1989 por primera vez su reproducción mantiene todavía unos efectivos escasos. Su elegante silueta, similar a la del Zampullín Común, se distingue por su largo y erguido cuello y puede ser observada en Pitillas y alguna otra laguna situada más al sur, tanto en época de nidificación como en invernada. En la Comunidad Autónoma Vasca sólo es observada en invierno, en zonas costeras o humedales de interior.



Txilinporta lepabeltza (Zampullín Cuellinegro).

Podiceps nigricollis

Nafarroan habia egiten duten espezien zerrendan berriki sartutako espeziea da. 1989an egiaztatu zen, lehen aldiz, hemen ugaltu zela eta, oraingoz, oso gutxitan egiten du hemen bere habia. Hegazti dotorea da, txilinporta txikiaren antzekoa. Lepo luze eta tentea du. Pitillasko urmaelean eta handik hegoaldera dauden beste zenbait urmaletan ikus daiteke, bai habia egiteko garaian, bai neguan. Euskal Autonomia Erkidegoan neguan soilik ikus daiteke, itsasaldean edo barrualdeko ingurune hezeetan.

Zampullín Común (Txilinporta Txikia).

Tachybaptus ruficollis

El más pequeño de la familia, el Zampullín Chico (*Tachybaptus ruficollis*, *Txilinporta txiki*), pasa a menudo desapercibido gracias a su continua actividad buceadora. Pueden llegar al centenar las parejas que se reproducen en Navarra, siendo frecuente observarlo en remansos fluviales. En Álava la población nidificante ronda el medio centenar de parejas. En la vertiente atlántica, sin embargo, cría sólo en contadísimos enclaves.



Txilinporta Txikia (Zampullín Común).

Tachybaptus ruficollis

Familiako txikiena da txilinporta txikia (*Tachybaptus ruficollis*). Ia beti urpean ibiltzen direnez, inor ohartu gabeen bizi dira sarritan txilinporta txikiak. Ehun bikote inguru ugaltzen dira Nafarroan eta, gehienetan, ibaietako urloetan ibiltzen dira. Araban berrogeita hamar bat bikotek egiten dute beren habia. Isurialde kantauriarrean, aldiz, oso leku gutxitan ugaltzen dira bikote bakar batzuk.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

PODIZIPEDIDOAK (MURGILAK ETA TXILINPORTAK)

Murgil handia (Somormujo Lavanco).

Podiceps cristatus

Udaberrian eztei-geldialdia ikusgarria izaten da. Eztei-jantzi bitxia dute: belarri moduko motots belzkarak eta goleta nabarmenak (gaztaina-kolorekoak eta beltzak) buruaren bi aldeetan. Arrek eta emeek itxura berdina dute. Bien artean habia egiten dute eta 3-6 arrautza txitatzen dituzte. Hegazti txikiak jaiotzen direnean, bi gurasoek ematen diete jaten eta hilabete baten buruan uzten dute habia.

30-50 bikotek egiten dute habia Nafarroan, ia guztiak urmaeletan. Corellako La Estanda urtegiaren ikustekoa da dozena bat murgil handiek nola eramaten dituzten beren kumeak bizkarrean. Arabako urmael eta urtegiaren beste hainbeste bikote ugaltzen dira. Isurialde atlantikoan, berriz, ugaltzeko garaian ez dira ageri, baina gainerako urte-garrietan bai.



Somormujo Lavanco (Murgil Handia).

Podiceps cristatus

En primavera, nos ofrece un bello espectáculo con su parada nupcial, realizada con el plumaje propio de la época reproductora con sus moños negruzcos, en forma de orejas y prominentes golas castañas y negras a ambos lados de la cabeza. Macho y hembra, indistinguibles, construyen la plataforma en la que de 3-6 huevos serán incubados por ambos, para al cabo de un mes ver ya a los pollos que dejan el nido y son alimentados por los dos progenitores.

En Navarra, crían de 30 a 50 parejas según los años, casi exclusivamente en lagunas, siendo un bonito espectáculo ver en la Estanda de Corella cómo una docena de ellas transportan los pollitos sobre las espaldas de los adultos. Un número similar de parejas se reproducen en balsas y embalses alaveses. En la zona atlántica sólo se observa fuera de la época de cría.

AVES DE ESTUARIO

PHALACROCORÁCIDAS (CORMORANES)

Cormorán Grande (Ubarroi Handia).

Phalacrocorax carbo

Es un ave también piscívora, que se deja ver con facilidad en humedales y ríos posada en troncos con las alas entreabiertas, secando su plumaje.

Aunque ha criado esporádicamente, recibimos elevados contingentes de invernantes. Utilizan dormideros comunales situados en arboledas protegidas de embalses o bahías, en los que pueden llegar a concentrarse centenares de ejemplares. Durante el día se reparten por todo tipo de ambientes acuáticos continentales.



Ubarroi Handia (Cormorán Grande).


Phalacrocorax carbo

Hegazti arrainjalea da. Erraz ikusten da ingurune heze eta ibaietan, enbor gainean pausatuta, hegoak erdi zabalik, lumak lehor daitezzen. Noizbehinka egiten dute habia Euskal Herrian, baina ubarroi gehienak negua pasatzera etortzen zaizkigu. Urtegi eta badietako zuhaiztien babesean egiten dute lo, eta ehunka ubarroi handi bildu daitezke horrelako lekuetan. Egunez, berriz, mota guztietako ur-ingurune kontinentaletan ibiltzen dira.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

PHALAKROKORAZIDOAK (UBARROIAK)



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Ardeidas

Son representantes de la familia de las ardeidas:

- Avetoro,
- Avetorillo,
- Garza Real,
- Garza Imperial,
- Garceta,
- Garcilla Bueyera,
- Martinete...

Inconfundibles por sus largas patas y cuello, grácil silueta en la que al volar sólo sobresalen las patas tras la cola, por llevar el cuello recogido, y batir lento de alas.

El pico en forma de puñal que nos habla de su dieta depredadora.

Su alimentación, basada en animales vivos como peces, anfibios, insectos, crustáceos y otros invertebrados acuáticos, se diferencia de unas especies a otras en el tamaño de sus presas y la profundidad a las que las capturan, dependiendo de la talla del ave y la longitud de sus picos y patas.

Además, dado que Garza, Garceta y Garcilla Bueyera son diurnas y Martinete, Avetoro y Avetorillo nocturnas, rara vez entran en competencia.

Como la del resto de los depredadores, su presencia en un ecosistema es un buen índice de la salud de éste.

Ardeidoak

Ardeidoen familiakoak dira:

- Txori Zezena,
- Amiltxori Txikia,
- Lertxun Hauskara,
- Lertxun Gorria,
- Lertxuntxo Txikia,
- Lertxuntxo Itzaina,
- Amiltxori Arrunta, etab.

Hanka eta lepo luzeak dituzten hegazti lirainak dira. Hegan egiten dutenean, lepoa bilduta eramaten dute eta hankak, berriz, buztanaren atzean luzatuta. Hegoak astiro mugitzen dituzte.

Sastakai itxurako mokoek adierazten digute hegazti horiek harrapariak direla.

Animalia biziak jaten dituzte: arrainak, anfibioak, intsektuak, krustazeoak eta uretako beste ornogabeak. Espezien arteko desberdintasunei erreparatzean, bakoitzaren altuera, eta bere moko eta hanken luzera funtsezkoak dira, horiek mugatzen baitute bai harrapakinen tamaina, bai arrantza egiteko behar duten ur-sakonera.

Gainera, espezie batzuk eguneko hegaztiak dira (lertxuna, lertxuntxo txikia eta lertxuntxo itzaina) eta beste batzuk gauekoak (amiltxori arrunta, txori zezena eta amiltxori txikia). Beraz, ez dute ia elkarrekin lehiatzen.

Gainerako harraparien kasuan gertatzen den bezala, hegazti horien presentziak adierazten du ekosistemaren osasun-egoera ona dela.

Garceta Común (Lertxuntxo Txikia)

Egretta garzetta

Tiene un plumaje inmaculadamente blanco contrastando elegantemente con su pico y patas negras.

Engalana su librea nupcial con dos largas plumas adornando su nuca y podemos observarla en aguas tranquilas y someras de nuestros ríos, completamente inmóvil, como si de una bella escultura se tratara, con su cabeza mirando al agua, acechando. Cuando un pececillo se aproxima, lanza su temible pico con gran precisión. Completan su dieta anfibios, crustáceos, moluscos e insectos.

Aunque puede verse en Navarra como invernante ocasional, es más frecuente durante esta época en la Comunidad Autónoma Vasca, especialmente en marismas costeras como Urdaibai o Txingudi.

Su presencia estival se reduce a los sotos del Ebro, nidificando unas pocas parejas en la laguna de Las Cañas.

Lertxuntxo Txikia. (Garceta Común)

Egretta garzetta

Lumaje zuri-zuria du, moko eta hanka beltzekin kontraste dotorea egiten duena.

Bere eztei-jantziak bi luma luze ditu garondoan.

Gure ibaietan ikus dezakegu, sakonera eskaseko ur bareetan.

Geldi-geldirik egoten da zelatan, eskultura baten antzera, beti urari begira. Arraintxo bat inguratzen denean, lertxuntxo txikiak bere moko beldurgarriarekin harrapatzen du doitasun handiz. Anfibioak, krustazeoak, moluskuak eta intsektuak ere jaten ditu.

Negu partean Nafarroan ikus daiteke noizbehinka,

baina Euskal Autonomia Erkidegoan ohikoagoa da,

batez ere Urdaibai eta Txingudiko paduretan.

Udan Ebroko ibar-basoetan soilik ikus daitezke lertxuntxo

txikiak: bikote batzuk Las Cañas urtegiaren inguruan dituzte habiak.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDKOAK)



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Martinete (Amiltxori Arrunta). *Nycticorax nycticorax*

Su nombre latino define perfectamente a esta garza –cuervo de noche– por sus costumbres crepusculares y nocturnas y grito que recuerda al de los cuervos. Es estival en nuestra geografía, a donde llega en la primavera procedente del África tropical.

Nidifica en colonias sobre árboles de ribera que le brinden la necesaria tranquilidad, pero es capaz de adaptarse –si no encuentra éstos– haciéndolo en carrizales, como ocurre en la Reserva Natural de la laguna de Las Cañas, la más importante colonia de Euskal Herria.

A partir de su instalación en 1975, su aumento ha sido constante. Desde 1987, la laguna de Las Cañas viene cumpliendo el mínimo exigido por el Convenio de Ramsar, para ser considerada Zona de Importancia Internacional, puesto que el número de parejas nidificantes de Martinete supera la cifra de 75 considerada como criterio numérico para esta especie.

Parejas sueltas han nidificado también, o lo han intentado, en sotos del Río Ebro y Río Aragón, pero más del 90% de las parejas nidificantes en Navarra se concentra en Las Cañas. En la Comunidad Autónoma Vasca, algunos ejemplares se dejan ver también a lo largo del Ebro y otros ríos mediterráneos, sin que se haya confirmado su cría.

Amiltxori Arrunta (Martinete). *Nycticorax nycticorax*

Amiltxori arruntaren latinezko izenak –gaueko belea– ondo adierazten ditu hegazti horren ohitura gautarrak eta beleen antzera egiten dituen karrankak. Afrika tropikaletik etortzen da udaberrian, eta uda partean ibiltzen da Euskal Herrian.

Beharrezko babesa eta lasaitasuna ematen duten ur-bazterreko zuhaitzetan egiten dituzte habiak, koloniak osatuz.

Baina, zuhaitzik ez badute aurkitzen, inguruko baldintzetara egokitu eta lezkadietan egiten dituzte habiak. Las Cañas Natur Parkeko urtegian, hain zuzen ere, lezkadietan egiten dituzte habiak, eta hura da Euskal Herriko amiltxori arruntaren koloniarik handiena.

1975ean kokatu ziren han eta harrez gero, amiltxori arruntaren populazioak etengabe egin du gora. 1987az geroztik Las Cañas urtegiak gaintitzen ditu Nazioarteko Hezegune Garrantzitsu izateko Ramsar hitzarmenean zehaztutako gutxieneko kopuruak. Amiltxori arruntaren kasuan, 75 bikotek osatzen dute gutxieneko hori.

Zenbait bikotek habia egin izan dute –edota horretan saiatu dira– Ebro eta Aragoi ibaietako ibar-basoetan, baina Nafarroan ugaltzen diren amiltxori arruntaren %90 Las Cañas urtegian daude. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Ebron eta isurialde mediterraneoko beste ibaien inguruan ikusten dira amiltxori arruntak, baina oraingoz ez da baieztatu han ugaltzen direnik.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDEKOAK)



Tras la puesta, de 3-5 huevos de color azul-verdoso pálido, ambos padres incuban durante 21 días y los pollos, que son alimentados por los dos –a base principalmente de anfibios y peces– andan por los alrededores durante unos 20 días. Vuelan a los 35-40 días, y a lo largo del mes de julio se emancipan abandonando la colonia, pudiendo ser vistos a muchos kilómetros de sus lugares de origen.

A finales de agosto y durante septiembre y octubre, emigran –de noche– hasta alcanzar África tropical.

La población nidificante en Navarra supera el centenar de parejas, distribuidas principalmente en colonias, en una decena de carrizales. Destacan como lugares de nidificación, las lagunas de Las Cañas con 26-28 parejas y un carrizal cercano a Villafranca, con 33-38 parejas, seguidos muy de cerca por la laguna de Cardete, en Tudela, con 21-23 parejas reproductoras.

Sin embargo, otros carrizales de lagunas de la Ribera y sotos del Arga y Ebro, no deben ser menospreciados, pues constituyen una garantía frente a la vulnerabilidad que supone la concentración de efectivos en unos pocos humedales, en los que cualquier contratiempo afectaría de forma irreversible a la mayoría de la población.

En la Comunidad Autónoma Vasca sólo es observada durante los pasos migratorios, si bien recientemente alguna pareja ha criado en los humedales de Laguardia, en Álava.

Kolore urdin berdexka argia duten 3-5 arrautza jartzen dituzte, eta bi gurasoek 21 egunez txitatzen dituzte arrautzak.

Txitak jaiotzen direnean, bi gurasoak arduratzen dira haiei jaten emateaz –anfibioak eta arrainak, batez ere– eta hogei bat egunez ibiltzen dira kumeak habi inguruan.

35-40 egun dituztenean, hegan hasten dira. Uztailean euren gisara ibiltzeko gai dira; kolonia uzten dute eta handik hainbat kilometrotara ikus daitezke.

Abuztuaren amaieran eta irailean migratzen dute –betiere gauzez– Afrika tropikalera iritsi arte.

Nafarroan ehunetik gora bikote habiagile daude; batez ere kolonietan, hamar bat lezkaditan banatzen dira hegazti horiek. Habia egiteko lekuen artean nabarmentzekoak dira Las Cañas aintzirak, 26-28 bat bikoterekin, eta Alesbes heritik gertuko lezkadi bat, 33-38 bikoterekin. Tuterako Cardete aintziran ere mordoska bizi da: 21-23 bikote ugaltzaile inguru.

Dena dela, ez dira bazterrean uztekoak Erriberako aintziretako lezkadi batzuk eta Arga eta Ebro ibaietako ibar-baso batzuk ere. Ale guztiak hezegune gutxi batzutan biltzea arriskutsua litzateke, edozein gorabehera gertatuta ere, mehatxu larrian legoke eta populazio gehiena; ondorioz, beste gunek horiek hor izatea berme bat da ardeidoentzat. Euskal Autonomia Erkidegoan, migrazio-bideetan baino ez dira ikusi izan; nolanahi ere, berriki bikoteren batek Guardiako hezeguneetan, Araban, hazi ditu kumeak.

AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Garza Imperial (Lertxun Gorria). *Ardea purpurea*

Gusta de nidificar en orillas de lagunas o madres viejas de ríos, invadidas por vegetación palustre, fundamentalmente carrizal.

Llega a nuestras latitudes en marzo y hace enormes plataformas en lo más espeso del carrizal, donde pone de 3 a 6 huevos azul verdosos que son incubados principalmente por la hembra, durante casi un mes. Los pollos que abandonan el nido hacia los diez días, vuelan a las 6 semanas.


Acabada la nidificación, las garzas imperiales se dispersan en todas direcciones pudiendo alejarse de su colonia cientos de kilómetros. En agosto y septiembre parten aisladas o en pequeños grupos, migrando sobre todo de noche, hasta alcanzar sus cuarteles de invierno africanos.

Más pequeña que la Garza Real, de plumaje oscuro, es fácil observarla en el Ebro y cauces bajos del Arga y Aragón, pescando. Llama la atención su forma de atraer a los peces. A la orilla del río, en plena canícula, forma un embudo con sus alas alrededor de la cabeza, que proyectan una sombra que atrae a los peces simulando una fresca pero falsa cueva.

La población nidificante en Navarra supera el centenar de parejas, distribuidas principalmente en colonias, en una decena de carrizales. Destacan como lugares de nidificación, las lagunas de Las Cañas con 26-28 parejas y un carrizal cercano a Villafranca, con 33-38 parejas, seguidos muy de cerca por la laguna de Cardete, en Tudela, con 21-23 parejas reproductoras.

Sin embargo, otros carrizales de lagunas de la Ribera y sotos del Arga y Ebro, no deben ser menospreciados, pues constituyen una garantía frente a la vulnerabilidad que supone la concentración de efectivos en unos pocos humedales, en los que cualquier contratiempo afectaría de forma irreversible a la mayoría de la población.

En la Comunidad Autónoma Vasca sólo es observada durante los pasos migratorios, si bien recientemente alguna pareja ha criado en los humedales de Laguardia, en Álava.



Lertxun Gorria (Garza Imperial). *Ardea purpurea*

Urmaelen ertzean edo ibaien uharka zaharretan habia egitea gogoko du lertxun gorriak. Zingirako landareez, batez ere lezkaz, betetako lekuak aukeratzen ditu.

Martxoan iristen dira Euskal Herrira eta lezkadi trinkoenetan egiten dituzte egundoko habiak. Kolore urdin berdexka duten 3-6 arrautza jartzen dituzte emeek eta bi gurasoek (gehienbat emeek) ia hilabetez txitatzen dituzte. Txitek hamar egun inguru dutenean habia uzten dute, eta sei aste betetzean hegan hasten dira.

Ugaltzeko garaia amaitu ostean, lertxun gorriak sakabanatu egiten dira eta beren kolonietatik ehunka kilometrotara joaten dira. Abuztuan eta irailean abiatzen dira, bakarka edo talde txikitan. Migrazioa batez ere gauzez egiten dute, Afrikara iritsi arte, eta han pasatzen dute negua.

Lertxun hauskara baino txikiagoa da eta lumaje iluna du. Erraz ikusten da Ebron, Arga eta Aragoi ibaien behealdean ere bai. Arrantzan ibiltzen da, eta oso deigarria da nola erakartzen dituen arrainak. Udaminean, ibaiertzean jarri eta buruaren inguruan inbutu moduko bat osatzen du hegoekin. Hartara, itzalgunea sortzen du uretan, haitzulo fresko baten antzekoa, eta arrainak hara inguratzen dira.

Ehun bikote baino gehiagok egiten dute habia Nafarroan, hamar bat lezkadietan kokatutako kolonietan, batez ere. Las Cañas urtegian 26-28 bikote daude, Alesbestik gertu dagoen lezkadi batean 33-38 bikote bizi dira, eta Cardeteko urmaelean, Tuteran, beste 21-23 bikote ugaltzen dira.

Erriberako urmaeletako beste lezkadiak, eta Arga nahiz Ebro ibaietako ibar-basoak aintzat hartzekoak dira. Izan ere, bikote guztiak hain leku gutxitan kontzentratu egoteak arriskua dakar: gunehorietan arazoren bat sortuz gero, egoera oso larria izango litzateke. Horrelako larrialdi bat gertatuz gero, inguruan lezkadi eta ibar-basoak egoteak espeziaren iraupena ahalbideratuko luke, eta horregatik dute hainbesteko garrantzia oraingoz hutsik dauden gunehoriek. Euskal Autonomia Erkidegoan, migrazio garaian soilik ikusten dira lertxun gorriak, baina oraindik orain Araban, Guardiako ingurune hezeetan, bikote batek hazi ditu kumeak.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDEKOAK)



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)



Garza Real (Lertxun Hauskara). *Ardea cinerea*

Es la garza de mayor tamaño de color grisáceo, fácil de observar en campos, ríos, lagunas o pantanos en cualquier época del año. En invierno no tiene competidor... pues la Garza imperial como hemos visto, se encuentra en África. En esta dura época, no sólo disfrutamos de los efectivos estivales sino que éstos se ven reforzados por los contingentes europeos que vienen a invernar.

Confirmada por primera vez su nidificación en Navarra. En 1990, esta desconfiada garza ha elegido para la cría extensos carrizales como el de Pitillas, pese a que lo común suele ser que sitúe sus nidos en árboles. Tal vez atraída por la presencia de otras ardéidas con las que sentirse protegida o porque los sotos –en principio hábitat más favorable– han visto muy reducidas sus dimensiones y sufren una presión continua (talas, obras de encauzamiento, visitantes, caza, pesca, pastoreo ...) no brindando la tranquilidad necesaria, una docena de parejas vienen criando en Navarra, en carrizales, si bien siguen utilizando los cursos medios y bajos del Arga, Aragón y Ebro, para alimentarse.

En Álava también han criado varias parejas durante estos años. No obstante, la especie es común fuera de la época reproductiva, en todo tipo de zonas húmedas y ríos.

Lertxun Hauskara (Garza Real). *Ardea cinerea*

Lertxun handiena da. Kolore grisaxka du eta erraz ikusten da landa, ibai, urmael eta zingiretan, edozein urtarotan. Neguan ez du lehiakiderik, lertxun gorria Afrikara joaten baita. Negu partean, udan ere hemen bizi diren lertxun hauskarez gain, Europatik negua pasatzera etortzen direnak ere biltzen dira.

1990ean baieztatu zen, lehenengo aldiz, lertxun hauskarak Nafarroan habia egin zuela. Oro har, zuhaitzetan egiten ditu habiak baina, Nafarroan, lertxun fidagaitz horrek Pitillaskoa bezalako lezkadi zabalak aukeratu ditu. Agian han beste ardeidoak egoteak eragin du aukera hori, edo baliteke ibar-basoak –printzipioz habitat egokiagoa osatzen dutenak– txikiegiak izatea. Izan ere, asko murriztu dira ibar-basoak, gainera, presio handia jasaten dute (mozketak, bideratze-lanak, bisitariak, ehiza, arrantza, artzaintza, etab.) eta ez dute ematen behar bezain besteko lasaitasuna. Dozena bat bikotek egiten dituzte habiak Nafarroan, betiere lezkadietan, baina janaria bilatzeko garaian Arga, Aragoi eta Ebro ibaietako erdialdera eta goialdera joaten dira oraindik ere.

Araban ere zenbait bikotek hazi dituzte kumeak urteotan. Ugalketa-garaitik kanpo, lertxun hauskara ohikoa da ibaietan eta mota guztietako ingurune hezeetan.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDEKOAK)



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Avetoro Común (Txuri-zezen Arrunta).

Botaurus stellaris

Su presencia durante el día, en la espesura del carrizal, es casi imposible de descubrir debido a su pardo plumaje y su curiosa actitud de quedarse absolutamente inmóvil, con el cuello estirado y pico dirigido hacia arriba, simulando ser una espadaña más.

Debe su nombre a su impresionante canto nupcial –un grave mugido que resuena en la noche– y que desgraciadamente apenas se ha escuchado en los últimos años. Especie en peligro de extinción puede ser aún vista en vuelo al anochecer en los escasos días en que permanece descansando durante su paso prenupcial, aunque posiblemente aún queden algunas parejas, en alguna de nuestras principales lagunas, como Pitillas. Las pocas citas de que se dispone para esta especie corresponden, mayoritariamente, a ejemplares en migración que se sedimentan en los humedales como mayor cobertura de carrizal.

Lertxuntxo Itzaina (Garcilla Bueyera).

Bubulcus ibis

Lertxuntxo itzainak behi-hazienden artean ibiltzeko ohiturari zor dio bere izena. Haziendek bazkatzen dutenean, mota askotako animali txikiak altxatzen dira belar tartetik, eta horrela harrapakin ugari lortzen ditu lertxuntxo itzainak.

Hogeit bat lertxuntxo itzain bizi dira urte osoan Ebroren ibaiertzean, Murillo de las Limaseko arroz-soroen aurrean. Espezia hedatzen ari da eta, azken urteotan, ugalketa-kolonia finkatu da Las Cañas urtegian, amiltxori arruntak eta lertxuntxo txikiak dauden inguruan. Lertxuntxo Karramarrozalea (*Ardeola ralloides*) ere migrazio-garaian ikus daiteke, noizbehinka, ingurune heze batzuetan.



Txuri-zezen Arrunta (Avetoro Común).

Botaurus stellaris

la ezinezkoa da txori zezena egunez ikustea lezkadi trinkoetan, lumaje arrea izateaz gain, geldigeldirik egoten baita, lepoa luze eta mokoa gorantz, beste lezka bat izango balitz bezala.

Txori zezenak bere eztei-txioari zor dio izena, gauean egiten duen marruari, alegia. Tamalez, azken urteotan ia ez da entzun txori zezenaren eztei-txioa. Desagertzeko arriskuan dago baina, oraindik ere, iluntzean ikus daiteke hegan, eztei-aurreko migrazio-garaian egun gutxi batzuetako atsedena hartzen ari denean. Baliteke bikote batzuk oraindik ere egotea Pitillaskoa bezalako urmael nagusietan.

Oso txori zezen gutxi dabil Euskal Herrian; ikusten diren gehienak migrazioa egiten ari dira eta lezka ugari duten ingurune hezeetan pausatzen dira.

Garcilla Bueyera (Lertxuntxo Itzaina).

Bubulcus ibis

Debe su nombre a su costumbre de andar entre el ganado vacuno aprovechándose de todo tipo de pequeños animales que levantan al pastar.

Una veintena de estas pequeñas garzas –especie que se encuentra en expansión– suele verse durante todo el año, a orillas del Ebro frente a los Arrozales de Murillo de las Limas. Pero además, en los últimos años se ha instalado una colonia de cría en la laguna de Las Cañas, en compañía de martinetes y garcetas.

La Garcilla Cangrejera (*Ardeola ralloides*) es raramente observada en algunos humedales durante los pasos migratorios.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDEKOAK)



Avetorillo (Amiltxori Txikia). *Ixobrychus minutus*

Un corto y sordo ladrido, emitido rítmicamente, nos avisa de la presencia de la más pequeña de nuestras garzas. De contrastado plumaje rosa y negro en los machos, pico e iris amarillo, patas verdes y poco mayor que una paloma doméstica, pasa muy desapercibido en el carrizal, donde alarmado, utiliza la misma estrategia que su pariente mayor el Avetoro.

Invernante en África, llega en primavera a nuestros humedales, para reproducirse. Una veintena de parejas lo hace en los cañaverales de Pitillas, Las Cañas y otras lagunas de la Ribera Navarra, así como en sotos del Ebro y Zadorra, construyendo unas plataformas ligeras de unos 25 cm de diámetro, hechas de juncos, carrizos o tallos de plantas, tapizadas con materiales vegetales más finos, donde los 4-6 huevos blancos serán incubados por ambos progenitores durante unos 20 días. Los pollitos alimentados por los dos padres permanecen alrededor de una semana en el nido y pueden volar hacia los 30 días, siendo los jóvenes pardos, similares a la hembra.

Amiltxori Txikia (Avetorillo). *Ixobrychus minutus*

Zaunka labur, isil eta erritmiko batek

adierazten du amiltxori txikia gertu dugula.

Lumaje arrosa eta beltza dute arrek, mokoa eta irisa horiak dira, hankak berdeak, eta etxe-uso baten antzeko tamaina dute.

Lezkadietan ez da ia nabarmentzen eta bere burua arriskuan ikusten duenean, txori zezenak erabiltzen duen estrategiaz baliatzen da.

Afrikan pasatzen du negua eta udaberrian iristen da gure ingurune hezeetara, hemen ugaltzera.

Hogeit bat bikotek egiten dituzte habiak Pitillas, Las Cañas eta Nafarroako erriberako beste urmaeletako seskadietan, edota Ebro eta Zadorrako ibar-basoetan.

Habia egiteko, 25 cm diametroko oinarriak egiten dituzte, horretarako ihiak, lezkak edo landare-zurtoinak erabiliz, eta gero landare finagoekin estaltzen dituzte.

Bi gurasoek 4-6 arrautza zuri txitatuko dituzte 20 egunez, eta biak arduratzen dira txitei jaten emateaz.

Txitek astebete egiten dute habian eta 30 egun inguru dutenean hasten dira hegan. Amiltxori txiki gazteak arreak dira, emearen antzekoak.



AVES DE ESTUARIO

CICÓNIDAS (CIGÜEÑAS)

Cigüeña Blanca (Amia-moko Zuria). *Ciconia ciconia*

Es conocida por todos debido a su costumbre de anidar en iglesias y altos edificios. Ligada a dichos populares como «Por San Blas la cigüeña verás» que alude al regreso de las primeras cigüeñas desde sus refugios invernales, aunque cada vez es más frecuente ver ejemplares todo el año, pues van en aumento las que prefieren ahorrarse el viaje hasta el África occidental al sur del Sahara.

La evolución de la población de Cigüeña Blanca ha sido clarísimamente descendente desde los años 40 del siglo XX, en que se efectuaron los primeros censos.

En los 80 se verificó el mínimo de parejas nidificantes, a punto de la desaparición. Desde entonces, sin embargo, se ha producido una notable recuperación a la que no deben ser ajenos el mayor respeto hacia la especie y la recuperación de algunos humedales, pero sobre todo el incremento de la supervivencia y del éxito reproductivo como consecuencia del aprovechamiento de vertederos y basureros, en los que encuentran abundantes y estables fuentes de alimentación.

Por otro lado, muchas cigüeñas perecen electrocutadas o colisionan con cables de tendidos eléctricos.

El gran tamaño y peso que pueden alcanzar los nidos, ocupados año tras año, hace que en ocasiones creen problemas a los edificios que los sustentan. Como contrapartida, las cigüeñas acogen bien las plataformas y emplazamientos artificiales que se les ofrecen para favorecerlas.

La población navarra, tras el declive sufrido desde los años sesenta hasta mediados de los 80, ha iniciado una recuperación.

A modo de ejemplo, las causas de la desaparición de 44 parejas fueron: 18 por destrucción del nido, 4 por obras en las proximidades, 4 por derribo del edificio, 3 por caída debida al viento, 3 por muerte de las cigüeñas (al menos una de la pareja) y 12 por causas desconocidas.

En los arrozales de reciente implantación cerca de Tudela, no es raro observar más de un centenar de cigüeñas procedentes principalmente de las parejas concentradas en Alfaro, que aprovechan la exhuberante población de Rana Común, floreciente al abrigo de los nuevos cultivos.

En la Comunidad Autónoma Vasca, aunque durante los años 40 se censaron una treintena de parejas, durante los 80 sólo nidificaba una pareja en Gamarra Mayor, pueblo próximo a Vitoria. Durante la década siguiente se han ido incorporando nuevas parejas, hasta el punto de que hoy son una quincena las que crían en Álava y el enclave de Orduña.



Amia-moko Zuria (Cigüeña Blanca). *Ciconia ciconia*

Oso ezaguna da, elizetan eta eraikin altuetan habia egiteko ohitura duelako. «San Blasetan zikoina kanpandorretan» eta antzeko esaera herrikoiek adierazten dute otsailean itzultzen direla lehen amiamokoak negua leku epelagoetan igaro ostean. Hala ere, gero eta gehiago dira urte osoan hemen egoten direnak, Afrika mendebaldera –Sahara hegoaldera– joan gabe.

Amiamoko zurien populazioa ezagutzeko lehen zenbaketak XX. mendeko 40ko hamarkadan egin ziren eta, ordutik hona, nabarmen behera egin du amiamokoen kopuruak.

80ko hamarkadan zenbatu ziren kopururik eskasena eta, harrezkero, susperraldian dago amiamokoen populazioa. Espeziearekiko begirune handiagoak eta zenbait ingurune hezeen berreskuratzeak eragin positiboa izan dute, baina erabakigarria den faktorea da zabortegietan jateko ugari aurkitzen dutela urte osoan, eta faktore horrek erraztu du amiamoko zurien iraupena eta ugaltzearen arrakasta.

Kontuan hartu behar da, ordea, amiamoko zuri asko elektrokutatuta hiltzen direla edo talka egiten dutela linea elektriko kableekin. Amiamokoen habiak oso handiak eta astunak dira, eta urtero betetzen badira, litekeena da eraikinari kalteak eragitea. Bestalde, espeziea babesteko eskaintzen zaizkien habi artifizialak gogo onez onartzen dituzte amiamoko zuriek, eta onarpen horrek oso emaitza positiboak ditu.

60ko hamarkadatik 80ko hamarkadako erdialdera arte jasandako gainbeheraren ostean, Nafarroako amiamoko-populazioa berriro ere gora doa.

Esate baterako, 44 bikote desagertzearen arrazoiak hauek izan ziren: 18 bikote desagertu ziren habia suntsitu zelako, 4 inguruan eraikuntza-lanak egiten ari zirelako, 4 eraikina bota zutelako, 3 haizeak habia bota zuelako, 3 bikotea osatzen zuten amiamokoetako bat (gutxienez) hil zelako, eta 12 arrazoi ezezagunengatik.

Tutera inguruan berriki ezarri dituzten arroz-soroetan, ohikoa da ehun amiamoko zuri baino gehiago ikustea. Alfaron kontzentratuta dauden bikoteak dira, gehienbat, eta ur-igelak harrapatzea joaten dira arroz-soroetara, han erruz ugaltzen ari baitira ur-igel arruntak.

40ko hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoan hogeita hamar bat bikote zenbatu bazituzten ere, 80ko hamarkadan bikote bakarra zegoen (Gamarran, Gasteiz inguruan).

Ondorengo hamarkadan bikote gehiago etorri ziren eta, gaur egun, hamabost bat bikotek hazten dituzte kumeak Araban eta Urduñan.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ZIKOINEN FAMILIAKOAK (AMIAMOKOAK)



AVES DE ESTUARIO

CICÓNIDAS (CIGÜEÑAS)



Amia-moko Zuria / Cigüeña Blanca



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ZIKOINEN FAMILIAKOAK (AMIAMOKOAK)

Amiamoko beltza. (Cigüeña Negra). *Ciconia nigra*

Amiamoko beltza bere ahaide zuria baino ezezagunagoa dugu, ez baitu habiarik egiten Euskal Herrian.

Jakin badakigu, ordea, garai batean egin izan zituztela.

Batez ere Iberiar penintsularen hego-mendebaldeko eta Europa ekialdeko haritz, artelatz eta pinuz betetako baso itxietan jartzen du habia, eta baita labar helezinetan ere, betiere ingurune hezeetatik gertu.

Ugalketaren ostean, Afrika ekialde eta hegoalderako migrazioa hasten du.

Migrazio horietan zeharkatzen dute Euskal Herria 400 bat amiamoko beltzek, eta zenbait ibar-baso eta urmaeletan pausatzen dira.



Amiamoko beltza / Cigüeña Negra

Cigüeña Negra (Amiamoko Beltza). *Ciconia nigra*

Es menos conocida que su pariente la Blanca, por su escasez y no nidificar en Euskal Herria (aunque existen referencias antiguas de ello).

Cría en densos bosques de robles, alcornoques o pinos, o bien en acantilados inaccesibles, siempre cerca de lugares húmedos, principalmente del suroeste ibérico y Europa del Este.

Terminada la reproducción, emprende la migración que puede llevarle a África oriental y meridional.

Es en sus viajes migratorios cuando alrededor de 400 individuos cruzan nuestra geografía, deteniéndose algunos en sotos, lagunas y balsas.

Mokozabala Zuria (Espátula). *Platalea leucorhodia*

Mokoaren itxurari zor dio izena.

Ez du Euskal Herrian habiarik egiten eta kumerik sortzen, baina Urdaibaiko eta Txingudiko kostaldeko hezeguneetan hartzen du atsedan Holandako kolonietatik migratzen duten hegazti askok bezala. Inoiz, aleren bat ere ikusi izan da barnealdean. Espezie oso ikusgarria da.



Mokozabala Zuria / Espátula

Espátula (Mokozabala Zuria). *Platalea leucorhodia*

Debe su nombre común a la forma de su pico.

No cría en el País Vasco, pero los humedales costeros de Urdaibai y Txingudi sirven como estaciones de reposo durante la migración de las aves procedentes de las colonias holandesas. Ocasionalmente algún ejemplar se deja ver en el interior. Es una especie muy vistosa.

AVES DE ESTUARIO

ANÁTIDAS (PATOS Y AFINES)

Anátidas

Este grupo de aves acuáticas incluye varios tipos diferenciados.

Los **ánsares** son de gran tamaño, más pesados y de cuello más largo que los patos. Ambos sexos presentan una librea similar. Sólo el Ánsar Común (*Anser anser*) es observado regularmente en nuestro territorio, pero sobre todo durante sus viajes migratorios entre Escandinavia, área de cría, y los humedales de Doñana (Huelva) y Villafafila Zamora), donde transcurre la invernada. Los bandos en vuelo son reconocibles por la clásica formación en "V", que pueden adoptar también grullas y cormoranes.

Los **cisnes**, conocidos por su uso ornamental en jardines y colecciones zoológicas, son raros visitantes de los estuarios. Los **tarros**, de tamaño parecido al de los gansos, son también infrecuentes.

Los **ánades**, *patos nadadores* se alimentan en aguas someras sumergiendo medio cuerpo y dejando la cola y trasero fuera del agua. El macho presenta tonos mucho más vistosos que la hembra.

Los **porrones**, *patos buceadores* se sumergen completamente y por eso frecuentan aguas algo más profundas.

Las **serretas** tienen picos finos y aserrados, son gráciles y llevan moños de plumas en la cabeza. Solo algunos ejemplares se dejan ver durante la invernada o los pasos migratorios.

La **Malvasía Canela** (*Oxyura jamaicensis*), una especie americana asilvestrada en Europa a raíz de su importación y crianza en cautividad. En estos años se dejan ver en el embalse de Ullbarri-Gamboa.

Se ha comprobado su hibridación en la naturaleza con la **Malvasía Euroasiática** (*Oxyura leucocephala*), una especie autóctona ibérica en riesgo de desaparición. Precisamente este cruzamiento podría contribuir a extinguir el genotipo de la especie autóctona, que sería absorbido por el exótico.

Anatidoak

Uretako hegaztien talde horrek hainbat mota ezberdin biltzen ditu.

Antzarak oso handiak dira, ahateak baino astunagoak, eta lepo luzeagoa dute. Arrek eta emeek antzeko itxura dute. Euskal Herrian antzara hankagorritzak (*Anser anser*) soilik ikusten dira aldizka, batez ere Eskandinaviako ugalketa lekueetatik Doñanako (Huelva) eta Villafafilako (Zamora) ingurune hezeetarako migrazioa egiten dutenean edota Eskandinaviara itzultzeko bidea egiten dutenean. «V» itxurako taldetan egiten dute hegan, kurrilo eta ubarroien antzera.

Beltxargak edo zisneak oso ezagunak dira, lorategietan eta zoologia-bildumetan apaingarri gisa erabiltzen direlako, baina estuarioetan ikustea ez da batere ohikoa. **Paitak** antzaren tamaina bertsukoak dira eta gutxitan ikus daitezke Euskal Herrian.

Ahateak sakonera eskaseko uretan igeri ibiltzen dira. Jatekoa bilatu nahi dutenean, gorputzaren erdia urpean sartzen dute, isatsa eta atzealdea agerian dutela. Arrak emeak baino kolore ikusgarriagoak ditu.

Murgilariak urpean ibiltzen dira, eta horregatik nahiago dituzte ur sakonagoak.

Zerrek moko fina dute, zerra-itxurakoa. Segailak dira eta lumaz osatutako mototsak dituzte buruan. Zerra bakar batzuk soilik ikusten dira, negu partean edo migrazio-garaian.

Ahate Herdoiltsua (*Oxyura jamaicensis*) espezie amerikarra da, Europan basotua, ustiatzeko hona ekarri ostean. Azken urteotan Uribarri-Ganboako urtegian ikusi ohi da.

Egoera naturalean **Ahate Buztanzuriarekin** (*Oxyura leucocephala*) hibridatu da. Ahate buztanzuria Iberiar penintsulako ahate autoktonoa da eta desagertzeko arriskuan dago. Hibridazioak arrisku hori areagotzen du, espezie autoktonoaren genotipoa desagertzeko prozesuan eragin baitezake. Hori gertatuz gero, espezie exotikoak bereganatuko luke bertakoa.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ANATIDOAK (AHATEAK ETA KIDEKOAK)



Hasta seis especies de anátidas pueden nidificar regular u ocasionalmente en nuestro territorio, pero son una quincena o más las que nos visitan durante la migración o la invernada. El contingente invernante depende de las condiciones meteorológicas imperantes en Europa, ya que olas de frío empujan a las acuáticas a buscar climatologías menos rigurosas en el sur del continente. Además, el nivel de agua en lagunas y embalses también se refleja en el número de aves: durante épocas de sequía, éste se reduce considerablemente.

Los humedales más importantes para las anátidas, por las cantidades que acogen, son:

- el embalse de Ullíbarri-Gamboa, en Álava;
- las lagunas de Las Cañas y Pitillas en Navarra
- el estuario de Urdaibai en Bizkaia.

Pero junto a ellos se encuentran otros humedales, de dimensiones más reducidas y origen artificial (como las balsas de riego) o natural.

Es necesario destacar el recuperado humedal de Salburúa, cerca de Vitoria-Gasteiz, y las lagunas de Laguardia, declaradas biotopo protegido.

Euskal Herrian sei anatido espeziek egiten dute habia. Espezie horietako batzuk ohikoa dute hemen ugaltzea eta besteak, berriz, beste lekuetan ugaltzen dira gehienetan, baina noizbehinka hemen egiten dute beren habia. Negu partean edo migrazio-garian, ordea, hamabost espezie edo gehiago izan ditzakegu. Europako klimatologiaren arabera hegazti gehiago edo gutxiago etortzen zaizkigu, hotz-boladetan uretako hegaztiak eguraldi epelagoaren bila etortzen baitira Europako hegoaldera. Gainera, urmael eta urtegietako ur-mailak ere eragina du: lehortee-tan askoz ere hegazti gutxiago egoten da.

Anatido kopuru handienak:

- Uribarri-Ganboako urtegian (Araba),
- Las Cañas eta Pitillasko urmaeletan (Nafarroa),
- Urdaibaiko estuarioan (Bizkaia) daude.

Baina, haiekin batera, beste ingurune heze txikiagoak ere aipatzekoak dira. Horietako batzuk artifizialak dira (ureztatzeko baltsak, esate baterako) eta beste batzuk naturalak.

Aipatzekoak dira berreskuratutako Salburuako hezegunea, Gasteiz inguruan, eta Guardiako Biotopo Babestuko urmaelak.

AVES DE ESTUARIO

ANÁTIDAS (PATOS Y AFINES)

El número de parejas de patos nidificantes, se sitúa probablemente alrededor de las 1.500-2.000 parejas, de las que la inmensa mayoría son de Azulón. Pero además del azulón hay:

- Cercetas
- Ánades Friso,
- Silbón,
- Rabudo,

que son patos de superficie que, al levantar el vuelo de la lámina acuática, lo hacen súbitamente y pasan largo tiempo filtrando las aguas superficiales en busca de alimento. Tarea en la que alcanza la mayor perfección adaptativa el largo y ensanchado pico en espátula del Cuchara Común.

Otras anátidas sin embargo como:

- Porrón Común,
- Porrón Moñudo,
- Pato Colorado,

se alimentan de plantas o animales acuáticos del fondo, gracias a su gran destreza como buceadoras, por lo que se produce una distribución espacial perfecta en la explotación de los recursos tróficos por parte de las diferentes anátidas.

Todas las citadas especies pueden observarse en las lagunas, pantanos, ríos, o «madres viejas» en invierno, de forma habitual, a las que se unen unos pocos ansares comunes que pasan la estación desfavorable en nuestras latitudes, y varios miles que pueden permanecer –tomándose unos días de descanso en su migración, sobre todo prenupcial, dependiendo de las condiciones meteorológicas– alimentándose en los campos cercanos a los humedales, sobre todo de Pitillas, Loza, Auza, Zolina, Ullíbarri-Gamboa y Urdaibai.

1.500-2.000 ahate bikotek jartzen dituzte habiak Euskal Herrian, gutxi gorabehera, eta gehienak basahateak dira. Basahateaz gain, beste ur azaleko ahateak ere badaude:

- Zertzetak,
- Ipar-ahateak,
- Ahate Txistulariak
- Ahate Buztanluzeak.

Uretatik bat-batean altxatzen dira ahate horiek. Denbora luzean dihardute ur-azala iragaten, jatekoaren bila. Zeregin horretarako gehien egokitu den mokoahate moko-zabalarena da, luzea eta zabala baita, espatula formakoa.

Beste hainbat anatido:

- Murgilari Arrunta,
- Murgilari Mottoduna
- Ahate Gorritzta,

hondoetako landare eta animaliez elikatzen dira, oso urpekari trebeak direlako. Horrenbestez, anatidoen banaketa espaziala ezin hobe da, eta baliabide trofikoak ere egoki banatu daude espezie ezberdinen artean.

Aipatutako espezie guztiak ikus daitezke eskuarki urmael, urtegi, ibai eta uharka zaharretan. Gainera, zenbait antzara hankagorritzta ere etortzen dira negua pasatzera, eta milaka dira migrazio-bidean atsedaldia hartzen dutenak, batez ere ezteiaurreko migrazio-garaian, beti ere eguraldiaren arabera. Ingurune hezeetatik gertu dauden soroetan aurkitzen dute jatekoa, eta batez ere Pitillasen, Lozan, Auzan, Zolinan, Uribarri-Ganboan eta Urdaibain egoten dira.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ANATIDOAK (AHATEAK ETA KIDEKOAK)



Poniendo una nota de brillante colorido en contraste con el dorado carrizal y las azules aguas, pasan el invierno en nuestras zonas húmedas, completan la lista de anátidas:

- el Tarro Blanco, grande y bello,

y de forma más esporádica otras especies como:

- el Porrón Pardo,
- las serretas,
- los negrones

De todas las citadas, aparte del Azulón, tan sólo el Ánade Friso, el Pato Colorado y el Porrón Común nidifican en el territorio de forma habitual, –si bien, en escaso número de parejas– y de forma ocasional también lo hacen el Pato Cuchara Común y la Cerceta Carretona.

Anatido horiek guztiek negua pasatzen dute gure ingurune hezeetan eta kolorea ematen diote lezkadi hori eta ur urdinez osatutako paisaiari. Anatidoen zerrenda osatzeko:

- Paita Arrunta, handia eta ederra aipatu behar da, eta baita noizbehinka agertzen diren zenbait espezie ere:

- Murgilari Arrea,
- zerrak,
- ahatebeltzak.

Aipatutako anatido guztietatik, basahateaz gain, soilik ipar-ahateak, ahate goriztak eta murgilari arruntak egiten dute habia Euskal Herrian eskuarki. Baina ahate moko zabalek eta uda-zertzetek ere egiten dituzte hemen beren habiak noizean behin.


AVES DE ESTUARIO

ANÁTIDAS (PATOS Y AFINES)

Ánade Azulón (Basahatea). *Anas platyrhynchos*

Probablemente el más conocido de todos nuestros patos, el Ánade Real o Azulón está presente en lagunas, embalses, ríos y acequias. Con su característica cabeza y cuello verde lustroso y collar blanco en los machos, espejuelo azul, pico amarillo y la hembra pardo oscura, inicia el cortejo nupcial ya en otoño. Nidifica en sotos, lagunas, campos de cultivo, etc. y su numerosa puesta (hasta 16 huevos) tras unos 28 días de incubación –que realiza la mimética hembra– abandona el nido nada más nacer y sigue a ésta camino del agua.

Una larga retahíla de pollitos perfectamente disciplinados en fila india, siguen a la pata en busca de alimento. Sumergiendo la mitad anterior del cuerpo y levantando la popa, no desdenarán larvas de mosquito, pequeños moluscos, crustáceos e insectos acuáticos, aunque su dieta es principalmente vegetariana.



Basahatea (Ánade Azulón). *Anas platyrhynchos*

Gure ahaterik ezagunena da, ziurrenik. Urmaeletan, urtegietan, ibaietan eta ubideetan ikus dezakegu. Burua eta lepoa berdeak ditu. Arrak lepoko zuria, ispilu urdina eta moko horia du. Emeak, berriz, kolore arre iluna. Eztei-gorteiatzea udazkenean hasten dute. Habia ibar-basoetan, urmaeletan, soroetan, etab. jartzen dute. Emea 16 arrautza jartzeko gai da. Arrautzak jarri ostean, 28 egunez txitatzen ditu. Txitak jaiotzen direnean, berehala uzten dute habia: amaren atzetik joaten dira uretara.

Txita lerro luze eta diziplinatua izaten du basahate emeak bere atzean. Jatekoa bilatzeko, gorputzaren aurrealdea urpean sartzen dute, eta atzealdea altxatzen dute. Landareak jaten dituzte, batez ere, baina bestelako janariak ere bai: eltxo-larbak, molusku txikiak, krustazeoak, ureko intsektuak, etab.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ANATIDOAK (AHATEAK ETA KIDEKOAK)



AVES DE ESTUARIO

ANÁTIDAS (PATOS Y AFINES)

Pato Colorado (Ate gorrizta). *Netta ruffina*

Es la anátida buceadora de mayor tamaño.

Luce un bello plumaje que nos habla de su exótico origen, Asia central. El macho de gruesa y redonda cabeza naranja, explota aun más su atractivo ante las hembras, esponjando las plumas de su cabeza para así parecer mayor.

Aun en su plumaje de eclipse, conserva un bello aspecto con su pico rojo. Hace el nido sobre el suelo o flotante en aguas someras, protegido por la vegetación, poniendo de 6-16 huevos sobre una capa de plumón. Si precisa marcharse durante la incubación, la hembra, al igual que el Somormujo y Zampullín, deja tapados los huevos hasta su vuelta.



Ate gorrizta (Pato Colorado). *Netta ruffina*

Anatido urpekari handiena da. Ahate gorriaren lumaje ederrak bere jatorri exotikoaren berri ematen du, Asia erdialdekoa baita. Arrak laranja-koloreko buru mardul eta borobila du.

Emeen aurrean itxura ederragoa izateko, buruko lumak arrotzen ditu eta buru handiagoa duela ematen du.

Neguko lumaje apalagoa duenean ere itxura bikaina du, bere moko gorriarekin. Lurrean egiten du habia, edo sakonera eskaseko uretan flotatzen, landareen babesean. Lumatxa-geruza baten gainean 6-16 arrautza jartzen dituzte. Txitatze-aldian alde egin behar badu, emeak arrautzak estalita uzten ditu itzultzen den arte, murgilek eta txilinportek egiten duten antzera.



Ánade Friso (Ipar-ahatea). *Anas strepera*

Es de tamaño algo menor que el ánade real, presenta la más sobria librea nupcial, pudiendo pasar muy desapercibido.

El macho, posado sobre el agua, parece enteramente grisáceo salvo por su característica popa negra que nos permite diferenciarlo a cierta distancia. La hembra, parda, muy similar a las de Azulón o Ánade Rabudo, pero algo más pequeña que éstas presenta un color naranja a ambos lados de pico.

Las lagunas de Las Cañas y Pitillas y el embalse de Ullíbarri-Gamboa son el escenario en que las escasas parejas nidificantes construyen sus nidos al abrigo de la vegetación palustre, cerca del agua.

Ipar-ahatea (Ánade Friso). *Anas strepera*

Basahatea baino pixka bat txikiagoa da eta eztei-jantzirik neurritsuena du. Ia ez da nabarmentzen.

Arrak, ur gainean dagoenean, erabat grisa dirudi, popa beltza ezik, eta hari esker bereizten da urrutitik. Emea arrea da, basahatearen eta ahate buztanluzearen antzekoa, baina haiek baino pixka bat txikiagoa, eta mokoaren bi alboak laranja-kolorekoak ditu.

Bikote bakar batzuk egiten dituzte habiak Las Cañas eta Pitillasko urmaeletan eta Uribarri-Ganboako urtegian, betiere zingirako landareen artean eta uretik gertu.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ANATIDOAK (AHATEAK ETA KIDEKOAK)

Porrón Común (Murgilari arrunta). *Aythya ferina*

Tiene la cabeza y el cuello castaño oscuros, pecho negro y cuerpo gris en el macho y hembra parda como casi todas las anátidas. Hace bueno el dicho del «andar patoso» fuera del agua, pues sus patas, muy bien adaptadas a la propulsión gracias a la cual es un gran buceador, están situadas hacia la parte trasera del cuerpo, lo que le confiere una marcha nada garbosa en tierra.



Murgilari arrunta (Porrón Común). *Aythya ferina*

Burua eta lepoa marroi ilunak ditu, bular aldea beltza eta gorputza, berriz, arrak grisa du eta emeak arrea, anatido gehienen antzera. Uretik kanpora ibilera traketsa du. Murgilari arruntaren hankak propulsiarako oso ondo egokituta daude, gorputzaren atzealdean kokatuak, eta horrexegatik da hain baldarra lur gainean ibiltzen denean.



AVES DE ESTUARIO

PANDIÓNIDA (RAPACES)

Águila Pescadora (Arrano Arrantzalea).

Pandion haliaetus

La otra rapaz ligada a los humedales de interior y a los estuarios es el Águila Pescadora (*Pandion haliaetus*). Nidifica en el norte de Europa pero algunos escasos ejemplares invernan con regularidad en Sobrón, Ullíbarri-Gamboa o Urdaibai. Verla capturando peces con su vuelo pesado y majestuoso es todo un privilegio.

Arrano Arrantzalea (Águila Pescadora).

Pandion haliaetus

Barrualdeko ingurune hezeetako eta estuarioetako beste harraparia dugu arrano arrantzalea (*Pandion haliaetus*). Europa iparraldean egiten dute habia, baina bakar batzuk Sobronera, Uribarri-Ganboara edo Urdaibaira etortzen dira negua pasatzera. Benetako gozamina da arrano arrantzalearen hegaldi dotoreari begira egotea eta arrainak harrapatzen ikustea.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

PANDIONIDA (HARRAPARIAK)



AVES DE ESTUARIO

ACCIPÍTRIDAS (RAPACES)

Aguilucho lagunero Occidental (Zingira-mirotza).

Circus aeruginosus

Ave rapaz de mediano tamaño, que recuerda al Milano Negro. Su larga cola rectangular y, sobre todo, anchas y largas alas en forma de V obtusa sobrevolando a baja altura en cortos planeos y majestuoso batir de alas sobre el carrizal, le permite sorprender a sus presas con su repentina llegada.

Más grande y robusto que otros aguiluchos, sin obispillo blanco, está ampliamente distribuido por el Paleártico occidental.

La desaparición de humedales y su caza lograron exterminarlo a comienzos de siglo en varios países de Europa, siendo su presencia cada vez más rara –hasta casi desaparecer– en muchos otros.

Parece evidente que la mejoría en la situación de esta especie –perfecto indicador del nivel de salud de los ecosistemas acuáticos– responde al mantenimiento de sus hábitats y prohibición de su caza, pudiendo recuperarse con un mínimo de respeto hacia los medios que lo sustenta y a él mismo.

En Navarra, tras la declaración de zonas protegidas en diverso grado –Reserva Natural, Enclave Natural, etc.– de los más importantes humedales, parece observarse la misma tendencia a la recuperación. Considerada su población cercana a las 9 parejas hacia 1985, ha experimentado un aumento continuo desde 1987 para alcanzar las 50-60 en los 90, incrementando igualmente el número de enclaves ocupados, de 5 en los 80 a 15 en los 90.

Los incrementos anuales, se deben en parte a una mayor prospección, pero sobre todo a un incremento real de sus efectivos.

Esto no debe llevarnos a engaño, puesto que la población de aguiluchos laguneros sigue siendo muy vulnerable:

casi la mitad, nidifica en Pitillas lo que quiere decir que: cualquier factor que altere la población de esta laguna, afectaría muy seriamente al conjunto de ésta.

Además, el otro 50% muestra un fracaso bastante elevado en la reproducción, debido a la sequía o desecación de balsas, molestias, quemas, etc.

El Aguilucho Lagunero nidifica sobre grandes y espesos carrizales, donde dispone de presas suficientes y escaso riesgo.

Frecuenta también pequeños carrizales e incluso se cita su nidificación en otras latitudes, en campos de cereal, landas o repoblaciones jóvenes.

Están cada vez más frecuentemente adaptados a estos lugares, lo que podría traducirse como un cambio de comportamiento, sin duda ligado a la desaparición de los hábitats óptimos.

Zingira-mirotza (Aguilucho lagunero Occidental).

Circus aeruginosus

Hegazti harrapari ertaina da, miru beltzaren antzekoa.

Buztan luze eta angeluzuzena du, eta «V» kamuts baten itxurako hego zabal eta luzeak. Haiei esker altura txikian ibiltzen da hegan lezkadi gainean. Planeatze laburrak eginez eta hegoak dotore astinduz, bat-batean iritsi eta ustekabean harrapatzen ditu ehizakiak.

Beste mirotzak baino handiagoa eta sendoagoa da eta ez du ipurtxuntxur zuririk. Mendebaldeko Paleartikoan oso zabaldua dago.

Inguru hezeen urritzeagatik eta ehizagatik XX. mendearen hasieran Europako zenbait herrialdetik desagertu zen, eta gainerakoetan ere gero eta urriagoa zen, ia desagertzera iritsi arte herrialde horietako askotan.

Zingira-mirotzaren egoera uretako ekosistemen osasunaren adierazle bikaina da, eta argi dago egoerak hobera egin duela, habitatei eutsi zaielako eta ehiza debekatu delako.

Hegaztiak errespetatuz, eta hegazti horiek bizirik irauteko behar dituzten bitartekoak ere errespetatuz, espeziea berreskuratu daiteke.

Nafarroan inguru heze nagusiak maila ezberdinetan babestu ondoren (Natur Erreserbak, Natur Guneak, etab. izendatuz) berreskuratze-joera hori nabarmena da. 1985ean 9 bikote inguru zeuden, baina 1987tik aurrera etengabe gora egin du zingira-mirotzen populazioak. 90eko hamarkadan 50-60 bikote ziren eta ingurune gehiagoetara hedatu ziren (5 ingurunetan ageri ziren 80ko hamarkadan, eta 15 ingurunetan 90eko hamarkadan).

Urtero antzemandako gorakadak, neurri batean, prospekzio handiago baten ondorio ere badira, baina, batez ere, populazioaren benetako gorakada islatzen dute.

Hala ere, ez gaitezen engainatu, zingira-mirotzen populazioa oraindik ere egoera kaskarrean dago. Populazio osoaren erdiak Pitillasen jartzen ditu habiak, eta horrek esan nahi du edozein faktorek Pitillasko populazioa aldatzen badu egundoko eragina izango lukeela populazio osoaren egoeran. Gainera beste %50 horren ugalketak ez du arrakasta handirik hainbat arrazoiengatik: lehorteak, urmaelen lehorteak, eragozpenak, erretzeak, etab.

Zingira-mirotzak lezkadi handi eta itxietan jartzen du habia, harrapakin ugari eta arrisku gutxi baititu inguru horietan.

Lezkadi txikietan ere ibiltzen da eta bestelako lekuetan ere jarri izan du bere habia: zereal soroetan, otalurretan edota baso berrietan. Gero eta gehiago egokitzen dira horrelako inguruetara. Egokitze horrek portaera-aldaketa adierazten dute eta, zalantzarik gabe, habitat egokiaren desagertzearekin zerikusia du portaera-aldaketak horrek.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

AKZIPITRIDOAK (HARRAPARIAK)

La madurez sexual, es alcanzada normalmente a los 2-3 años, pero el macho puede reproducirse al año.

La pareja se forma ya en el territorio de cría, pudiendo coincidir los mismos adultos durante varios años, pero no es muy frecuente. Se dan casos de poligamia, en los que los machos más viejos y experimentados, son capaces de alimentar simultáneamente varias polladas.

Los vuelos nupciales comienzan con la llegada a los lugares de reproducción. El macho hace acrobacias a gran altura, picados, y simula ataques contra la hembra.

Ésta incuba los huevos durante 31-34 días en el nido que frecuentemente construye sobre todo ella y mientras, es alimentada por el macho, al igual que los jóvenes en las primeras semanas. Éste deja caer la presa, siendo recogida por la hembra antes de tocar tierra —comportamiento típico de los aguiluchos—.

El régimen alimenticio es muy variado, pudiendo especializarse durante el período reproductor, según la accesibilidad de las diferentes presas. En general, el grueso lo constituyen los roedores, seguidos de pequeñas o medianas aves, sus huevos y pollos, anfibios, culebras de agua y jóvenes galápagos.

En Navarra, la población nidificante parece sedentaria, realizando pequeños desplazamientos tras la reproducción (sobre todo los jóvenes), pero en invierno —quizá incrementada con efectivos del norte— se ven concentraciones de más de 100 individuos en Pitillas, 40 en Dos Reinos, etc.

Precisamente en invernada y pasos migratorios se dejan ver ejemplares también en las zonas húmedas alavesas, vizcaínas y guipuzcoanas. Algunos incluso se observan durante la época de cría, aunque su reproducción no ha podido ser comprobada en los últimos años.

2-3 urterekin lortzen dute sexu-heldutasuna, baina urtebeterekin ere ugaltu daiteke arra.

Ugalketa-guneetan osatzen da bikotea. Urteetan bikotekide berdina izatea litekeena da, baina ez da oso ohikoa.

Poligamia kasuak ere izaten dira. Adin eta esperientzia gehien duten arrek txitaldi bat baino gehiago elika ditzakete aldi berean.


Eztei-hegaldiak ugalketa-guneetara iritsi bezain laster hasten dira. Arrak akrobaziak egiten ditu altuera handian, amildu egiten da, eta emea erasotzeko itxurak egiten ditu.

Emeak egiten du batez ere habia, eta han txitatzen ditu arrautzak 31-34 egunez. Bitartean arrak ekartzen du jatekoa, bai emearentzat, bai txitentzat. Mirotzen ohiko portaerari jarraituz, arrak harrapakina erortzen uzten du eta emeak harrapatzen du, lurrera erori baino lehen.

Zingira-mirotzek elikadura askotarikoa dute. Ugalketa-aldian espezializatzea litekeena da, inguruan dituzten harrapakinen arabera. Oro har, karraskariak harrapatzen dituzte, batez ere, baina bestelakoak ere bai: hegazti txiki edo ertainak, hegazti-arrautzak, txitak, anfibioak, suge gorbatahunak eta apoarmatu gazteak.

Nafarroan habiak egiten dituzten zingira-mirotzak nahiko egonkorra dira. Ugalketa ostean joan-etorri txikiak egiten dituzte (gazteek, batez ere) baina neguan biltzen dira eta, ziurrenik, iparraldeko herrialdeetakoak ere etortzen dira. Kontzentrazio handiak ikusten dira: 100 zingira-mirotz baino gehiago Pitillasen, 40 bat Dos Reinos inguruan, etab.

Negu partean eta migrazio-garaian Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ingurune hezeetan ikusten dira zingira-mirotzak. Ugalketa-garaian ere ikusi ohi dira, baina azken urteotan ez da ugaltzerik baieztatu Euskal Autonomia Erkidegoan.



AVES DE ESTUARIO

RÁLLIDAS

Rállidas

Esta familia de aves acuáticas agrupa a dos tipos de especies de costumbres bien diferentes. Por un lado, abundantes y fáciles de observar:

- Focha
- Gallineta.

Por otro, escasas, que pasan su vida ocultas en la espesura de carrizales:

- Rascón
- Polluelas.

Rallidoak

Uretako hegaztien famili honen barnean bi espezie-mota ezberdin daude, eta ohitura oso desberdinak dituzte biek. Batetik espezie horietako hegazti ugari dago eta erraz ikus daitezke:

- Kopetazuria
- Uroiloa

Bestetik, espezie horietako hegazti gutxi dago eta lezkadi itxietan ezkutaturik bizi dira:

- Uroilanda Handia
- Uroilanda.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

RALLIDOAK

Focha Común (Kopetazuri arrunta). *Fulica atra*

Las fochas son inconfundibles por su cuerpo macizo, plumaje totalmente negro que contrasta con su pico y escudete frontal blancos. Son muy comunes en lagunas y embalses con superficie de aguas libres, aunque también hacen uso de los carrizales para esconderse y ubicar los nidos. Aunque viven en grupos grandes, es frecuente verlas peleándose por el mantenimiento de un pequeño territorio. Cuando se ven obligadas a huir y alzar el vuelo, cosa que no hacen a menudo, chapotean enérgicamente batiendo las alas y avanzando a ras de agua.



Kopetazuri arrunta (Focha Común). *Fulica atra*

Kopetazuri arruntak hegazti oso bereziak dira: gorputz sendoa dute, lumajea beltz-beltza, mokoa eta kopeta, berriz, zuriak. Ur azal irekia duten urmael eta urtegietan ohikoa da, baina lezkadiak ere erabiltzen dituzte, han ezkutatzeko eta habiak egiteko. Talde handietan bizi badira ere, sarritan ibiltzen dira lehian euren lurraldetxo defendatzeko. Ihes egin behar badute, indar handiz astintzen dituzte hegoak eta ur azalaren mailan aurrera egiten dute, hegan hasteko. Dena den, gutxitan egin behar izaten dute ihes.



AVES DE ESTUARIO

RÁLLIDAS



Gallineta (Urdilo arrunta). *Gallinula chloropus*

Las gallinetas prefieren la vegetación emergente y los matorrales que rodean arroyos, ríos y lagunas, evitando en mayor medida las aguas abiertas. Es fácil observarlas desde los puentes que cruzan los cauces, sin importarles la carga contaminante que puedan transportar estas aguas. Cuando están alarmadas se alejan a la búsqueda de un refugio mientras mueven espasmódicamente su cola para dejar ver, a modo de semáforo de advertencia, el contraste entre sus caudales blancas y el resto del plumaje, muy oscuro.

Urdilo arrunta (Gallineta). *Gallinula chloropus*

Uroiloek urgaineratzen diren landareak gogoko dituzte; erreka, ibai eta urmael ondoko sastraka artean ibiltzen dira, ur irekiak sailhestuz. Oso ondo ikusten dira ibai gaineko zubietatik. Ura kutsatua badago ere, ondo egokitzen dira. Izutzen direnean gordelekua bilatzen dute eta, aldi berean, buztana astintzen dute, egoera larria dela adierazteko. Buztaneko lumak zuriak dira eta gainerakoak oso ilunak.



ESTUARIOKO HEGAZTIK

RALLIDOAK

Polluelas (Uroilanda). *Porzana s.p.*

Rascón (Uroilanda Handia). *Rallus aquaticus*

Auténticos fantasmas del carrizal, los rascones y polluelas desarrollan la práctica totalidad de su existencia en la espesura de la vegetación palustre de marismas, lagunas, acequias y orillas de ríos, dejándose ver raramente y sólo como unas aves oscuras de tamaño medio (entre 18 y 28 cm) que se asoman al borde del carrizal o que atraviesan rápidamente un claro de la vegetación y desaparecen otra vez entre las cañas.

Muchas veces son únicamente sus gritos y reclamos los que delatan su presencia en un área húmeda.

Así, si tenemos en cuenta sus hábitos parcialmente nocturnos, junto con lo intrincado de su hábitat y su carácter discreto no es de extrañar que nos encontremos ante los miembros de la avifauna europea con biología menos conocida, especialmente en lo relativo a sus hábitos reproductores y movimientos migratorios.

Toda su anatomía refleja una perfecta adaptación a la vida en el interior del cañizal. Los plumajes muestran un diseño básico de partes superiores marrones listadas de negro, pecho y cara gris y flancos oscuros con listas verticales claras, que los enmascaran en el juego de luces y sombras de la vegetación.

El desplazamiento entre la maraña de carrizos se ve facilitado por un cuerpo estrecho y unas patas y dedos largos que les permiten andar sobre suelos blandos e inestables, nadar y trepar o correr agarrándose a los tallos de la vegetación.

Tanto rascones como polluelas son polífagas aunque la representación que los invertebrados, pececillos, semillas y tallos tienen en cada especie es diferente.

Toda la fenología reproductora se desarrolla en la espesura. El nido consiste en una plataforma de materia vegetal entre la vegetación cerca o sobre el agua. A menudo doblan las plantas de los alrededores para formar una especie de techo. Las puestas son numerosas, de 6 a 11 huevos y los pollos nidífugos y cubiertos de plumón oscuro siguen a los adultos al poco de nacer. En algunas especies los pollos tienen un espolón en el vértice flexor del ala.

Ocasionalmente los adultos pueden cambiar o trasladar los huevos y polluelos a otro nido si existen molestias en el primer emplazamiento.

El rascón nidifica tanto en la vertiente atlántica como en la mediterránea, incluso en charcas y humedales de pequeño tamaño. Sin embargo, la cría de las polluelas Bastarda (*Porzana parva*), Chica (*P. pusilla*) y Pintoja (*P. porzana*) ha sido citada sólo esporádicamente.



Uroilanda Handia / Rascón

Uroilanda (Polluelas). *Porzana s.p.*

Uroilanda Handia (Rascón). *Rallus aquaticus*

Uroilanda handiek eta uroilanden lezkadiko mamuak dirudite. Ia bizi guztia inguru zingiratsuetako landare ugarien artean egiten dute. Paduran, urmaeletan, ubideetan eta ibaiertzetan ezkutatuta egoten dira, eta oso gutxitan ikusten dira. Ikusten direnean ere, tamaina ertaineko (18-28 cm) hegazti ilunak direla soilik nabarmentzen da. Lezkadiaren ertzean azaltzen dira une batez eta berehala ezkututzen dira kanabera artean.

Sarritan haien garrasi eta apeuengatik soilik dakigu ingurune hezean daudela, ez baitira batere ikusten.

Ohitura gautarrak dituzte –neurri batean behintzat–, ezkutalekuz beteriko habitata, eta izaera zuhurra.

Ez da harritzekoa Europako hegazti-faunaren espezie guztien artean uroilanda handien eta uroilanden biologia izatea ezezagunena. Hegazti horien ugalketaz eta migrazioaz ia ez dakigu ezer.

Uroilanda handien eta uroilanden anatomia kanaberadian bizitzeko erabat egokitu da. Lumajearen goialdea marroia da, lerro beltzekin. Sabelaldea eta musua grisak. Saihetsak ilunak, lerro bertikal argiekin. Lumaje horri esker ederki ezkututzen dira hegaztiak landaretzaren argiune eta itzalen artean.

Lezkadietako sastraka artean erraz ibiltzeko, gorputz estua dute, eta hanka luzeak, hatz luzeekin. Hartara, lur bigun eta ezegonkorretan ibiltzeko gai dira, ederki egiten dute igeri, eta landareen zurtoinei helduz igotzen dira haien gainera edo korrika ibiltzen dira.

Uroilanda handiak eta uroilanden polifagoak dira, baina espezie bakoitzak ornogabe, arraintxo, hazi eta zurtoin desberdinak jaten ditu.

Ugalketa-prozesu guztia sastraka artean izaten da.

Habia landare-materiaz osatutako plataforma da, eta landare artean egiten dute edota ur gainean. Sarritan inguruko landareak tolestean dituzte, habiari sabai moduko bat jartzeko.

Arrautza ugari jartzen dute (6-11). Txitek jaiotze eta berehala uzten dute habia, eta helduen atzetik joaten dira. Espezie batzuetan txitek ezproiak dituzte hegoak tolesteko erpinetan.

Habia dagoen lekuan arazoren bat sortuz gero, helduek eraman ditzakete arrautzak edo txitak beste habi batera.

Uroilanda handiak habiak egiten ditu bi isurialdeetan: bai atlantikoan, bai mediterraneoan, baita urmael eta ingurune heze txikietan ere. Uroilanden ugalketari dagokionez, berriz, oso leku gutxitan ikusi dira uroilanda hankaberdeen (*Porzana parva*), uroilanda txikien (*P. pusilla*), eta uroilanda pikarten (*P. porzana*) habiak.



Uroilanda / Polluela

AVES DE ESTUARIO

Limícolas

Pertenecen al orden de los *charadriiformes*, que engloba a limícolas junto a gaviotas y alcas. Los limícolas se caracterizan:

- Por su estructura más delicada, patas y pico normalmente largos y delgadas alas puntiagudas, vuelo ágil y en ocasiones acrobático.
- Corren con rapidez y son capaces de nadar y bucear aunque, excepto los falaropos y la avoceta, lo hacen raramente.
- Los plumajes suelen ser discretos. No obstante especies como el Ostrero, la Cigüeñuela, la Avoceta y la Avefría presentan diseños llamativos.

Aunque el nombre de limícolas podría sugerir que la vida de esas aves se desarrolla en las playas de limo en áreas marismas y palustres, lo cierto es que la mayoría de las especies sólo emplean este hábitat en la estación no reproductora, en tanto que la nidificación tiene lugar en páramos y brezales de la tundra ártica o las montañas, y en prados y campos de cultivo. Otras especies como la Beca-da y el Alcaraván rara vez frecuentan las playas de limos.

La nidificación viene precedida por un cortejo muy elaborado en el que se combinan vuelos acrobáticos con emisión de sonidos vocales o producidos por el roce y vibración de las plumas con el aire, y danzas. Los huevos profusamente manchados y pintados son muy difíciles de descubrir. Lo mismo les ocurre a los pollos, que nacen cubiertos de un plumón mimético y que siguen a los adultos al poco de nacer.

Nada más terminar la estación reproductora, los limícolas se agrupan en las marismas juntándose enormes bandos de centenares o miles de ejemplares de una o varias especies e iniciando la migración hacia tierras meridionales. Es en estos momentos cuando más fácil es verlos en las marismas vascas. Así, vemos que:

- Las aguas someras de charcas y lagunas son ocupadas por avocetas y cigüeñuelas que se alimentan de pequeños invertebrados por filtración o picoteo.
- Chorlitos dorados, avefrías y zarapitos se alimentan en prados y cultivos, o bien los últimos combinan este medio con playas de limos donde sus largas patas, picos y corpulencia les permiten acceder a alimentos que quedan fuera del alcance de correlimos comunes, gordos y agujas.
- Chorlitejos y chorlitos grises capturan los invertebrados en la superficie del limo, repartiéndose las presas en función de su tamaño y corpulencia.
- Archibebes y andarríos complementan los limos con las aguas someras —en el caso de los archibebes— o con zonas pedregosas —en el del andarríos chico—.

Limikolak

Karadriiformen multzokoak dira, kaio eta pottorroekin batera. Limikolak:

- Egitura finagoa dute: hanka eta moko luzeak, hego fin eta puntazorrotzak, hegada bizia eta zenbait garaitan akrobaziak ere egiten dituzte.
- Bizi-bizi egiten dute lasterka, igeri egiten dute, eta urpean ibiltzeko gai dira baina oso gutxitan sartzen dira urpera (mendebal-txoriak eta abozetak salbu).
- Lumajeak ez dira oso deigarriak, baina badira salbuespenak: itsas mika, zankaluzea, abozeta eta hegabera.

Limikola izenak pentsaraz dezake hegazti horiek lohiz beteriko paduretan eta ingurune zingiratsuetan bizitzen direla beti. Espezie gehienak, ordea, ugalketa-garaia ez denean soilik ibiltzen dira ingurune horietan, eta beste leku batzuetara joaten dira habiak egitera: tundra artikoko basamortu eta txilardietara, mendietara, belardietara, so-roetara, etab. Espezie batzuk —oilagorra eta atalarra, besteak beste— oso gutxitan joaten dira lohia dagoen inguruetara.

Habia jarri aurretik, gorteiatzea ikusgarria izaten da: hegada akrobatikoak, ahots-soinuak, lumen mugimenduez egindako soinuak eta dantzak nahasten dituzte. Arrautzak pintoak dira eta ez dira erraz ikusten. Txitak ere lumatxa mimetikoarekin jaiotzen dira, eta berehala abiatzen dira helduen atzetik.

Ugalketa-garaia amaitu bezain laster, limikolak paduretan biltzen dira, espezie bateko edo gehiagoko talde itzelak osatuz. Ehunka edo milaka hegazti biltzen dira hegoalderako migrazioa hasteko.

Une horietan erraz ikusiko ditugu Euskal Herriko paduretan:

- Abozetak eta zankaluzek sakonera eskaseko urmaletan biltzen dira eta hango ornogabe txikiez elikatzen dira, ura iragaziz edo mokokatuz.
- Urre-txirriak, hegaberak eta kurlintak belardi eta so-roetara joaten dira elikagai bila. Kurlintak, batzuetan, lohietara ere joaten dira eta beren hanka luze, moko eta gorpuzkerari esker txirri arruntek, txirri lodiek eta kuliskak harrapatu ezin dituzten jakiak lortzen dituzte.
- Txirritxo eta txirri grisek lohiaren azaleko ornogabeak harrapatzen dituzte, harrapakinak banatuz, bakoitzaren tamaina eta gorpuzkeraren arabera.
- Bernagorriak eta kuliskak lohi artean ibiltzen dira, baina beste leku batzuetara ere joaten dira. Bernagorriak sakonera eskaseko uretan ibiltzen dira, eta kuliska txikiak, berriz, inguru harritsuetan.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

- Costas rocosas y playas de guijarros son recorridas por correlimos oscuros y vuelvepiedras, en tanto que los correlimos tridáctilos buscan los invertebrados que traen o dejan al descubierto las olas. Los ostreros son los únicos capaces de abrir las almejas y demás bivalvos en tanto que el plancton marino queda reservado a los fararopos.
- Las espesuras de carrizales o juncos son hábitat exclusivo de las agachadizas.
- Los alcaravanes, fuera de la norma, prefieren eriales secos y las becasas formaciones boscosas.

De las 202 especies pertenecientes a las 12 familias de limícolas existentes, en las marismas y humedales vascos son más o menos frecuentes las que citamos a continuación.

- Txirri ilunak eta harri-iraunlariak itsasertz harritsuetan eta harribilezko hondartzetan ibiltzen dira. Txirri zuriak, berriz, olatuek ekarritako ornogabeen bila ibiltzen dira. Itsas mika da txirlak eta beste bibalbioak irekitzeko gai den espezie bakarra. Mendebal-txoriek, berriz, itsas planktonaz elikatzen dira.
- Istingorrak ditugu, lezkadi eta ihi artean habitat egokia aurkitzen dutenak.
- Ingurune hezeak alde batera utzi eta otalur lehorretan joatea nahiago dute atalarrek. Oilagorrak, berriz, basoetara joaten dira.

Limikolen artean 12 familia daude eta, guztira, 202 espezie dira. Euskal Herriko padura eta ingurune hezeetan aurki daitezkeenak honako hauek dira.



AVES DE ESTUARIO

HEMATOPÓDIDAS (LIMÍCOLAS) - HEMATOPODIDOAK

Ostreros

Son limícolas grandes (43 cm) de patas y pico rojos y largos, este último con forma de cincel. El plumaje blanco y negro se parece al de la Urraca, por lo que en ocasiones reciben el nombre de Urracas de Mar.

Itsas mikak

Limikola handiak dira (43 cm), moko eta hanka gorriak dituzte, oso luzeak. Zizel formakoa dute mokoak. Plumajea zuri-beltza da, mikak duenaren antzekoa (hortik datorkio izena).

Ostrero Euroasiático (Itsas Mika).

Haematopus ostralegus

Sólo esta especie, de distribución cosmopolita, el Ostrero Común está presente en el País Vasco como ave invernante o de paso en las costas y marismas.

Su dieta se basa en almejas, berberechos, mejillones y no tanto en ostras como por su nombre se podría suponer. Los bivalvos son abiertos bien a base de golpes con el pico o introduciendo éste entre las valvas semiabiertas y realizando un movimiento de giro y palanca para acabar de abrirlo. Existen aves que son auténticas especialistas en una u otra técnica, necesitando los jóvenes casi un año de práctica para alcanzar la destreza de un adulto. Además de bivalvos, capturan también anélidos y crustáceos, tanto en el limo como en prados húmedos y campos de cultivo.

Itsas Mika (Ostrero Euroasiático).

Haematopus ostralegus

Txirlak, berberetxoak eta muskuiluak jaten ditu batez ere, eta ez ditu hainbeste ostra jaten, gaztelaniazko eta latinezko izenak baietz pentsarazten badute ere. Bibalbioak irekitzeko, mokoarekin kolpatzen dituzte, edo mokoak sartzen dute erdi irekita dauden kuskuen artean, palanka eginez irekitzeko. Hegazti batzuk benetako espezialistak dira teknika batean edo bestean eta, oro har, gazteek urtebeteko praktika behar dute helduen trebetasuna lortzeko. Bibalbioez gain, anelidoak eta krustazeoak ere harrapatzen dituzte, bai lohi artean, bai belardi hezeetan, bai soroetan.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK


CHARÁDRIIDAS - CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)

Avocetas y cigüeñuelas

Limícolas elegantes y gráciles de tamaño mediano a grande, patas y pico largos y plumaje blanquinegro. Dos representantes de esta familia pueden observarse en Euskal Herria; la Avoceta Común (*Recurvirostra avosetta*) de 43 cm y la Cigüeñuela Común (*Himantopus himantopus*) de 38 cm.

Abozetak eta zankaluzeak

Limikola dotore eta segailak dira, tamaina ertain eta handikoak. Moko eta hanka luzeak dituzte, eta lumaje zuri-beltza. Familia horretako bi ordezkari ditugu Euskal Herrian: abozeta (*Recurvirostra avosetta*), 43 cm-koa, eta zankaluzea (*Himantopus himantopus*), 38 cm-koa.



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Avoceta Común (Abozeta). *Recurvirostra avosetta*

Tiene un característico pico negro curvado hacia arriba con el que filtra los organismos de los que se alimenta. Para ello, mientras avanza por aguas someras, mantiene el pico ligeramente abierto, moviéndolo lateralmente como si fuera una guadaña. Las avocetas se alimentan fundamentalmente de crustáceos, moluscos, anélidos, insectos y sus larvas y ocasionalmente algún pececillo o renacuajo. La materia vegetal raramente entra en la dieta. Usualmente utilizan aguas someras de pocos centímetros de profundidad, aunque no es raro verlas en playas de limo o nadando en aguas más profundas, donde sus pies semipalmados le son de gran ayuda.

En Euskal Herria la avoceta no existe como nidificante, pero es común en los pasos migratorios tanto en las marismas costeras como en lagunas y embalses del área mediterránea, sin que sea inusual que algunas aves se queden a pasar el invierno.



Abozeta (Avoceta Común). *Recurvirostra avosetta*

Gorantz kurbatuta dagoen moko luzea du eta horrekin iragazten du ura, jatekoa lortzeko. Horretarako, sakonera eskaseko uretan dabilen bitartean moko erdi irekita uzten du eta pixka bat mugitzen du alboetara, sega baten antzera.

Jateko ugari harrapatzen dute: krustazeoak, moluskuak, anelidoak, intsektuak, intsektu-larbak eta, noizean behin, arraintxoren bat edo zapabururen bat.

Eskuarki ez du landarerik jaten. Sakonera eskaseko uretan ibiltzen dira gehienbat, baina ez da harritzekoa abozetak i kustea lohi gainean edota ur sakonetan igerian, hanka erdi palmatuak oso lagungarriak baitira horretarako.

Euskal Herrian abozetak ez du habiarik egiten, baina ohikoa dugu migrazio-garaian, bai itsasertzeko paduretan, bai isurialde mediterraneoko urmael eta urtegietan. Gainera, abozeta batzuk negu osoa pasatzen dute hemen.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)

Zankaluzea (Cigüeñuela Común).

Himantopus himantopus

La Cigüeñuela, de larguísimas patas rojas, se desplaza también por aguas someras de zonas encharcadas donde, con su pico recto y largo se alimenta picando sus presas –insectos, crustáceos y moluscos– de la superficie del agua o de la vegetación palustre flotante. No es raro verla también en el limo hundiendo el pico en el fango.

Nidifica en pequeñas colonias en islotes de lagunas, entre juncos o en el barro seco. El nido puede variar entre una simple depresión o un montículo de materia vegetal dependiendo del encharcamiento y no del área.

La incubación dura 25-26 días y los pollos son independientes a las 4 semanas. La Cigüeñuela nidifica en pequeño número en la mitad meridional de Navarra, en la laguna de Pitillas y en el humedal de Salburúa, junto a Vitoria.

En las marismas cantábricas se la puede ver en el curso de sus migraciones, aunque nunca en número elevado.

Cigüeñuela Común (Zankaluzea).

Himantopus himantopus

Zankaluzeak hanka gorri luze-luzeak ditu.

Oso sakonak ez diren ur geldietan ibiltzen da eta bere moko zuzen eta luzearekin hartzen ditu jatekoak (intsektuak, krustazeoak eta moluskuak). Lohietan ere ibiltzen da, moko sartuta.

Habiak kolonia txikietan jartzen dituzte, urmaeletako uhartetxoetan, ihien artean edo lokatz lehorren gainean. Habia ezberdinak egiten dituzte: zokogune soila izan daiteke, edo landare-materiaz egindako tontorra, ingurua urez betetzen den ala ez kontuan hartuta. Inkubazioa 25-26 egunekoa izaten da eta txitak beren gisara ibiltzen dira 4 aste dituztenean. Zankaluzeek habia bakar batzuk jartzen dituzte Nafarroako hegoaldean –Pitillasko urmaelean– eta Gasteiz inguruan –Salburuako hezegunean–. Kantauriar itsasoko paduretan migrazio-garaian ikus daitezke zankaluzeak, baina hegazti horien kopurua, betiere, urria da.



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Chorlitejos y afines

Son de tamaño pequeño y mediano: patas y pico largos; alas largas y puntiagudas.

- Avefría,
- Chorlitejos,
- Chorlitos,
- Vuelvepiedras.

Txirritxoak eta kidekoak

Neurritz txikiak eta ertainak dira: ankak eta mokoa luzeak; egoak luzeak eta finak.

- Hegabera,
- Txirritxoak,
- Txirriak,
- Harri-iraunlaria.

Avefría Común (Hegabera). *Vanellus vanellus*

Las avefrías, de 30 cm tienen las partes superiores negras con irisaciones metálicas, inferiores blancas, cola blanca con franja terminal negra y distintivo moño.

Además es el único limícola europeo de alas anchas.

Propia de campos de cultivo, prados y barbechos, en invierno está presente también en playas de limos.

En Euskal Herria nidifica en muy escaso número cerca de lagunas y regadíos del área mediterránea navarra, si bien en invierno es un ave muy común en todo el territorio, sobre todo con olas de frío.

Hegabera (Avefría Común). *Vanellus vanellus*

Hegaberek 30 cm-koak izaten dira. Gainaldea beltza dute, irisazio metalikoekin. Behealdea zuria dute, eta buztana ere zuria, lerro beltzarekin bukaeran. Hegaberen bereizgarri den mototsa dute buruan. Hego zabalak dituen limikola bakarra da Europa guztian. Soroetan, belardietan eta lugorrietan egoten da, eta lohi-guneetan ere bai, negualdean.

Euskal Herrian habia bakar batzuk jartzen dituzte hegaberek urmaelen inguruan, eta Nafarroako inguru mediterraneoko sail ureztatueta. Neguan, ordea, ohikoak dira lurralde osoan, batez ere hotzaldietan.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)

Chorlitejos (Txirritxoak). *Charadrius s.p.*

Tres especies de chorlitejos pueden observarse en Euskal Herria:

- el Chorlitejo Chico (*Charadrius dubius*)
estival y nidificante en ríos de la vertiente mediterránea y algunas marismas cantábricas,
- el Chorlitejo Grande (*Charadrius hiaticula*)
- el Chorlitejo Patinegro (*Charadrius alexandrinus*).

El primero es con mucho el más común y abundante; los otros están únicamente presentes en las migraciones o como invernantes. Morfológicamente se caracterizan por su tamaño pequeño (15-19 cm) partes superiores pardas, inferiores blancas y conspicuas bandas blancas y negras en la cabeza y cuello.



Txirritxo Txikia / Chorlitejo Chico



Txirritxo hankabeltza / Chorlitejo Patinegro

Txirritxoak (Chorlitejos). *Charadrius s.p.*

Euskal Herrian hiru txirritxo mota daude:

- Txirritxo Txikia (*Charadrius dubius*),
- Txirritxo Handia (*Charadrius hiaticula*)
- Txirritxo Hankabeltza (*Charadrius alexandrinus*).

Txirritxo txikia udan ere hemen bizi da, isurialde mediterraneoan ibaien inguruan egiten du habia, eta kantauriar itsasoko padura batzuetan ere bai. Espezie hori da ugariena, gainerakoak migratzaileak dira. Morfoloikoki, tamaina txikia dute (15-19 cm), gainaldea arrea, behealdea zuria, eta lerro zuri eta beltz nabarmenak buruan eta lepoan.



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Chorlitos (Txirriak). *Pluvialis s.p.*

Las únicas especies comunes en nuestra tierra, ambas únicamente en invierno, son:

- Chorlito Dorado (*Pluvialis apricaria*)
- Chorlito Gris (*Pluvialis squatarola*)

De 28 cm, dorso vermiculado de gris o amarillo, en plumaje nupcial presentan la cara, pecho y vientre negros. Nidificantes cincumpolares, en invierno descienden a latitudes más meridionales, prefiriendo el Chorlito Dorado prados y campos del interior y el Chorlito Gris costas arenosas y marismas.



Urre txirri arrunta / Chorlito Dorado

Txirriak (Chorlitos). *Pluvialis s.p.*

Euskal Herrian ikus daitezken bi espezie bakarrak, eta biak ere neguan soilik dira

- Urre txirri Arrunta (*Pluvialis apricaria*)
- Txirri Grisa (*Pluvialis squatarola*) dira

28 cm-koak izaten dira. Bizkarralde pintoa dute, grisa edo horia. Eztei-jantzia dutenean, musua, bularraldea eta sabelaldea beltza izaten dute. Zirkulu polarrean ugaltzen dira eta negu partean hegoaldera jaisten dira. Urre txirri arruntak belardiak eta barrualdeko soroak nahiago ditu, eta txirri grisak, berriz, itsasertz hareatsuak eta padurak.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)



Vuelvepiedras (Harri-iraunlaria). *Arenaria interpres*

El Vuelvepiedras (*Arenaria interpres*) es otro limícola de 23 cm, compacto, de plumaje arlequinado, patas cortas de color rojo o naranja brillante y pico corto ligeramente encurvado.

